



OARSOALDEA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA

2018ko Otsaila



PLAN ESTRATEGICO
OARSOALDEA 2025



1. SARRERA	3
1.1. HAUSNARKETAREN TESTUINGURUA	4
1.2. FASEAK ETA APLIKATUTAKO METODOLOGIA	5
1.3. TXOSTENAREN EGITURA	8
2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK	9
3. OARSOALDEA ESKUALDERAKO ERRONKA SOZIOEKONOMIKO NAGUSIAK	22
4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK	30



1. SARRERA

1. SARRERA

1.1. HAUSNARKETAREN TESTUINGURUA

Oarsoaldeako Eskualdeko 2017-2025 Plan Estrategikoa, aurreko plan estrategikoa onartu zen urteko, 1995eko, errealitateak definitutakoa baino egoera konplexuagoan txertatzen da. Sistema ekonomikoetan izandako aldaketek (globalizazioa, deslokalizazioa, digitalizazioa eta abar), antolaketa- eta kudeaketa-ehundura zailtzen duen erakunde mailako aniztasunak irauteak, eta pixkanaka lurraldea saturatzeak zailtasuna dakarte eta garapen-alternatibak definitzeko garaian eskakizuna handitzen dute.

Plan Estrategiko honek, hain zuzen ere, eskualdeko garapen ekonomikoan oinarritzen du begirada, baina giza aldagaiaren ikuspegia galdu gabe, eragin soziala kontuan hartuta eta jardueren iraunkortasuna aintzat hartuta.

Plan honek benetako aukera dakar eskualdearen etorkizuneko ikuspegia partekatzeko, esfortzuak bateratzeko eta intereseko proiektuak erakartzeko garaian kokapen hobea lortzeko; baita, aukerak zabaltzea ahalbidetuko dion goi mailako eragin-eskaletara sartzeko ere. Eskualdeak bere etorkizuna “gidatzea” da helburua, inertzia zitalak eta erabaki erreaktibo hutsak direnak saihestuz.

Planaren testuinguruan eskualdearen egitura mailako eremuei buruzko hausnarketa kolektibo eta orokorrak lortu nahi du eskualdeak lidergoa berreskuratzea, gero eta joan-etorri handiagoko eta metropolizazioa gertatzen den testuinguruan. Gertu dituen eremuek (Donostia, Irun) indar zentrifugo gisa jarduten dute eta haren garapena bilatu nahi dute eta estrategia-gabeziak gero eta marjinalago geratzeko arriskua ekar dezake. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da osagarritasunak ehuntzea eta protagonismoak hartzea lehentasunezko esku-hartze sektoreetan. Horietan, Oarsoaldeak berezko tokia eta posizionamendu aitortua izan dezake.

Planak erronkak ezartzen ditu eta epe ertain eta luzeko estrategia definitzen du; horren gainean garatu beharko da Oarsoaldeako udalerrien garapen sozioekonomikoa eta oinarri izan nahi du etorkizuneko erabakiak hartzean, bertan bizi direnentzat aurrerabide eta ongizatea lortzeko asmoz.

Hausnarketa-prozesua egitea bera elkarrekin jarduteko borondatearen erakusgarri bezala uler liteke, baina ekintzara pasatzea izango da, hau da, Plana martxan jartzea eta exekutatzea (inplikaturako eragileen artikulazioaren eta norabide berean partekatutako lanaren bidez), udalerrri arteko lankidetzako benetako gaitasuna islatuko duena.

Plan Estrategiko honek eskualdearen eta garapen-agentziaren zerbitzura dagoen laneko tresna izan nahi du. Garapen-agentziak hartuko du planaren dinamizatzaile nagusiaren rola eta eta uneoro, udalerriekin koordinatuta, errealitatera doitzen dela eta plana betetzen dela egiaztatuko du. Horrekin lotuta, zeregin horretan Agentziaren egitura egokitzea planteatuta dago.

1. SARRERA

1.2. FASEAK ETA APLIKATUTAKO METODOLOGIA

Proiektuan zehar erabilitako faseen eta pieza metodologikoen emaitza Plan Estrategiko hau izan da. Hona hemen:

1. Dokumentu-iturrien analisia, iturri estatistikoak arakatzea eta eskualdeko garapen-agentziako langileekin lan saioak.

Plan Estrategikoa egiteko lehen fasean, dokumentuen eta estatistiken azterketa egin zen. Lanaren premisetako bat izan da lehendik dauden plangintzako eta diagnostikorako dokumentuak eta hausnarketak hartzea eta eskualdearen egoerari eta garapen sozioekonomikorako aukerei dagokienez haren "egoeraren erretratua" egitea ahalbidetuko zuten alderdi eta aldagaietan oinarritzea.

Proiektuko etapa honetan egindako azterketa estatistiko eta bibliografikoei esker, gainera, jarraian zehaztutako tailer edo hausnarketa taldeak antolatuzeko eta egituratzeko gai tematiko egokiak identifikatu ahal izan ziren.

2. Lantaldeak edo Tailerrak

Proiektuaren bigarren fasean lantaldeak edo tailerrak egin ziren. Horiek funtsezko tresna izan dira Plan Estrategikoa egiteko eta herritarren eta eskualdeko eragileen partaidetza bideratzeko garaian gakoetako bat izan dira: eragile sozialak eta ekonomikoa, ordezkari politikoak, teknikoak eta erakunde mailakoak. Tailer horiek ahalbidetu zuten eskualdeak etorkizunari dinamismoz eta bizitasunez aurre egin ziezaioten erronkak eta proposamenak identifikatzea.

Tailer horien definizioan aplikatutako irizpideak honako hauek izan ziren: eskualdean aukeratutako eremu tematikoan esku-hartzeko maniobrarako marjina egotea, hausnarketa-eremuak etorkizuneko aldeko agertokiekin lotuta egotea eta eskualdearen indarguneekin lotura edo koherentzia izatea.

Tailerrak 2017ko martxoan egin ziren, kasu bakoitzean gai espezifiko gidoia izan zuten eta honako eremu tematiko hauen inguruan zehaztu ziren:

1. Itsasoa eta Itsas Energia
2. Pertsonen zerbitzua ematea
3. Nekazaritza, Espazio Naturalak, Habitata eta Lurraldea
4. Ekonomia sortzailea
5. Industria eta berrikuntza
6. Merkataritza, Ostalaritza eta Turismo Zerbitzua



ÁMBITO TEMÁTICO / TALLER	Fecha	Lugar	Asistentes *
Itsasoa eta Itsas energia Mar y Energía Marina	Martxoak 13 Marzo	Pasaia	23
Pertsonentzat zerbitzuak Servicios a las personas	Martxoak 15 Marzo	Errenteria	18
Industria eta Berrikuntza Industria e Innovación	Martxoak 16 Marzo	Lezo	18
Sormen ekonomia Economía creativa	Martxoak 20 Marzo	Errenteria	13
Merkataritza, ostalaritza eta Turismo Zerbitzuak Servicios de comercio, Hostelería y Turismo	Martxoak 22 Marzo	Pasaia	22
Landa, Naturaguneak, habitat eta lurraldea Agro, Espacios naturales, hábitat y Territorio	Martxoak 23 Marzo	Oiartzun	18

1. SARRERA

3. Webgunea eta ideien postontzia

Egokitutako beste partaidetzarako bide bat eskualdeko agentziak espresuki sortutako webgunea izan da, Plan Estrategikoari egindako ekarpenak errazago egiteko. Jasotako ekarpenak, funtsean, proiektuko ideien proposamenak izan dira. Haien tratamendua eta azterketa proiektuaren bigarren faseko parte ere bada.



4. Kontrastatzeko eta proposamen berriak lortzeko nahiz sartutako ekintzak zehazteko elkarrizketak/bilerak egitea.

Ildo estrategikoen eskemaren idazketaren hirugarren fasearen ostean, jasotako ekarpenen emaitza gisa, ildo horien kontrasteko, proposamen berriak bilatzeko edo ekintza jakinetan sakontzeko bilera/elkarrizketa egitea izan zen proiektuaren laugarren fasea.


Saio horiek banaka egin ziren (gidoi espezifikokoetan oinarrituta) 2017ko ekainean eta uztailean.

REUNIONES/ENTREVISTAS REALIZADAS

GOBIERNO VASCO-Dirección de Formación Profesional
DFG-Departamento de Servicios Sociales
DFG-Departamento de Innovación
LAB
ELA
Autoridad Portuaria de Pasaia
AZTI-Tecnalia
Sprilur
Behemendi
Mater
Albaola
Arraztalo
Irabaziz
Gaindegia

5. Jarraipeneko eta koordinazioko tresnak


Azkenik, Plan Estrategikoaren gobernantzan, jarraipeneko eta koordinazioko bi tresnak izan dira: Pilotajeko Batzordea (lau udalerrietako, Agentziako eta Idazkaritza Teknikoko ordezkariak) eta Koordinazioko Batzorde Teknikoa (Oarsoaldea agentzia eta Idazkaritza Teknikoa).



6. Plan Estrategikoaren kontraste saioa

2017ko azaroan Planaren aurkezpen eta emaitzen kontraste saio bat egin zen. 70 pertsona inguru bertaratu ziren. Ondoren ekarpenak egiteko hilabeteko epe bat ireki zen.

FASEAK ETA ERABILITAKO METODOLOGIA



1. SARRERA

1.3. TXOSTENAREN EGITURA

Dokumentu honek bloke nagusi hauek ditu:

- Honako **sarrera** hau, Planari dagokion testuinguru orokorra, aplikatutako metodologia eta txostenaren edukia biltzen dituena.
- **Hausnarketa-taldeetan aurkeztutako adierazle sozioekonomikoak.**
Bloke honetan sektore eta enplegu mailako egiturari buruzko adierazle sintetikoen multzoa konfiguratu da, haien bilakaera, dauden enpresen ezaugarriak, berrikuntzari eta lehiakortasunari dagokionez dauden ezaugarriak, kanpoaldearekiko irekitze eta lotura maila, dauden kualifikazio-profilak eta abar. Adierazle multzo hori tailer edo hausnarketa taldeetan aurkeztu eta eztabaidatu zuten, eta horietako bakoitzean garatutako eztabaida espezifikoetarako abiapuntua izan zen.
- **Orsoaldeako eskualdearen erronka sozioekonomiko nagusien formulazioa.**
Orsoaldeako eskualderako erronka sozioekonomiko nagusien definizioa, bakoitzean, hiru gairi sistematikoki erantzunez egin da erronka sartzea, oro har, egokia ote zen; Orsoaldeako eskualdearen kasuan zehazki zergatik den egokia kontuan hartzea, eta estrategia, “nola” edo hiru erronketako bakoitza lantzeko aktibatu beharreko palanka.
- **Ildo Estrategikoak eta Ekintzak definitzea.**
Planaren muina erronkek, ildo estrategikoen eta ekintzek zehazten dute. Aurreko blokean erronkak dagoeneko azalduta daudenez, honako honetan Ildo Estrategikoak landuko ditugu, “justifikazioa” atal batekin, eta proposatutako ekintzak zehaztuko ditugu, dagokien azalpenarekin. Ahal izan denean, gainera, tailerretan, elkarrizketa/bileretan, egokitutako partaidetzarako bideen bidez jasotako (posta elektronikoa, webgunea) edo lantaldean identifikatutako proiektuen ideia zehatzak azaltzen dituzte ekintzek. Proiektu-proposamen horiek (dokumentuan letra etzanez jasotakoak), gehienak ekintzekin lerrotatuta daude eta, besteak beste, hauek mamitzen lagun dezakete.



2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.1 taula Gizarte Segurantzako afiliazio tasa sektorearen arabera

	Oarsoaldea				Gipuzkoa
	2010		2015		2015
	nº	%	nº	%	%
Lehen sektorea (1+2+3)	288	1,2	203	0,9	0,9
Industria eta Energia	4.927	20,3	4.392	19,3	22,3
▪ Industria (5-33)	4.795	19,8	4.332	19,0	21,6
▪ Energia (35)	85	0,4	4	0,0	0,1
▪ Hondakinak eta ura (36-39)	47	0,2	56	0,2	0,6
Eraikuntza	2.639	10,9	1.808	8,0	5,5
▪ Eraikuntza (41+42)	757	3,1	547	2,4	1,7
▪ Eraikuntza-osagarria (43)	1.882	7,8	1.261	5,5	3,8
Zerbitzuak	16.410	67,6	16.339	71,8	71,2
▪ Merkataritza (45+46+47)	4.483	18,5	4.709	20,7	14,3
▪ Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak (77+78+79+80+81+82)	919	3,8	726	3,2	5,3
▪ Hezkuntza (85)	791	3,3	854	3,8	7,3
▪ Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (69+70+71+72+73+74+75)	817	3,4	677	3,0	5,7
▪ Herri Administrazioa (84)	3.047	12,6	2.908	12,8	4,6
▪ Osasuna (86)	201	0,8	332	1,5	6,0
▪ Gizarte Zerbitzuak (87+88)	1.166	4,8	421	1,9	3,9
▪ Finantza zerbitzuak eta aseguruak (64+65+66)	103	0,4	89	0,4	2,3
▪ Garraioa eta biltegiatzea (49+50+51+52+53)	1.705	7,0	2.204	9,7	4,3
▪ Ostalaritza (56)	1.358	5,6	1.512	6,6	6,4
▪ Informazio eta komunikazioak (58-63)	155	0,6	164	0,7	1,6
▪ Etxeko lan pertsonala (97)	301	1,2	436	1,9	3,4
▪ Aisialdi eta kulturalak (90+91+92+93)	331	1,4	360	1,6	1,7
▪ Ostalaritza (55)	50	0,2	18	0,1	0,6
▪ Higiezin zerbitzuak (68)	55	0,2	52	0,2	0,4
▪ Bestelako zerbitzuak (94+95+96+99)	928	3,8	877	3,9	3,2
GUZTIRA	24.264	100,0	22.742	100,0	100

- Oarsoaldean 2015ean kontabilizatutako Gizarte Segurantzara afiliatutako pertsona kopurua 22.742koa da, 2010ean aintzat hatutako kopurua baino % 2 altuagoa. Krisi ekonomikoaren irteeran gaudela esan genezake.
- Sektorekako banaketari erantzunez, zerbitzuen sektorearen gutizko nagusitasuna nabari da. Afiliazioaren % 72 hartzen du, eta gainera, azken urteetan, garrantzi erlatiboak gora egin duela ikusten da.
- Hirugarren sektorearen baitan, hauek dira nagusitzen diren jarduerak: Komertzioa (afiliazioaren % 21 biltzen du), Administrazio Publikoa (% 13), Garraioa eta biltegiatzea (% 10) eta Ostalaritza (% 7).
- Industria eta Energia sektoreak, aldiz, afiliatutako populazioaren % 19 soilik ordezkatzen du. Ordezagarritasuna galdu du termino absolutuetan (afiliatutako 535 pertsona gutxiago 2010 eta 2015 artean) eta erlatiboetan (ehuneko puntu bat galdu du). Gipuzkoako lurraldearekin alderatuta, eskualdean sektoreak duen garrantzia txikiagoa da (% 3 puntu gutxiago).
- Eraikuntzaren sektoreari dagokionez, kontrakoa gertatzen da: eskualdean, Gipuzkoan baino protagonismo handiagoa lortu du: afiliazioaren % 8 eta % 5,5, hurrenez hurren.

Azken finean, Gizarte Segurantzara afiliatutako biztanleriaren egiturak agerian jarri du eskualdearen ezaugarri argi bat: ekonomia hirugarren sektorerantz bideratzea.

2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.2 taula BEG eta enpleguren bilakaera sektorearen arabera

	BEG (Balio Erantsi Gordina) (2000 – 2012)			
	Erreneria	Lezo	Oiartzun	Pasaia
Nekazaritza eta arrantza	↘	↘	↘	↗
Industria	↘	↘	↘	↘
Eraikuntza	↘	↗	↗	↗
Zerbitzuak	↗	↗	↗	↗
	ENPLEGUA (2001 – 2011)			
	Erreneria	Lezo	Oiartzun	Pasaia
Nekazaritza eta arrantza	↘	↘	↘	↘
Industria	↘	↘	↘	↘
Eraikuntza	↘	↘	↘	↗
Zerbitzuak	↗	↗	↗	↗

Iturria: Eustat. Udalplan

- Egitura ekonomikoari buruz, eta zehatzago esanda, eskualdea osatzen duten lau udalerrietako Balio Erantsi Gordinari (BEGd) buruzko datuei buruz Eustatek duen informazioari arreta jarriz gero, egiaztatzen da 2000-2012 aldian, industriaren atzerapena partekatutako fenomenoia izan dela.
- Hori bai, 2012an, udal BEGd-n, sektore industrialak duen garrantzia oso desberdina da; Lezo garrantzi handia du (% 45), batez ere, eskualdeko gainerako udalerriekin alderatzen baldin badugu (% 24 Oiartzunen eta % 21 Errenerian eta Pasaian).
- Zerbitzuen sektorean BEGd-ren garrantziak gora egitea desindustrializazioaren ondorioa da eta Orsoaldeako lau udalerrietatik komuna den elementu gisa ere agertu da. Errenerian eta Pasaian da hirugarren sektorea adierazgarriena (% 72 eta % 70 hurrenez hurren); Oiartzun (% 64) doa jarraian eta Lezo distantzia handira (% 48).
- Bestalde, eraikuntza-sektoreak Oiartzunen lortu du ehuneko kuota altuena (% 10,7 2012an) eta murriztena Pasaian (% 5,7); udalerririk horretan, lehen sektoreak nolabaiteko ordezkagarritasuna eskuratu du (udal BEGd-ren % 3,7).
- Biztanleria eta Etxebizitza Erroldatik datozen okupatutako biztanleriaren bilakaerari buruzko datuek berresten dute 2001-2011 aztertutako aldian sektore guztiek ostera ere enplegua galdu dutela, hirugarren sektoreak izan ezik. Horrek ordezkagarritasunean gora egin du eskualdeko lau udalerrietan.

2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.3 taula Biztanleria jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren arabera

Udalerría	Udal bakoitzean dagoen biztanleria okupatua 2011 (1)	Udal bakoitzean dauden lanpostuak 2011 (2)	(1)/(2)*100
Donostia-San Sebastián	76.635	88.237	115,1
Errenteria	16.244	8.220	50,6
Lezo	2.772	3.141	113,3
Oiartzun	4.609	7.851	170,3
Pasaia	6.372	3.571	56,0

Iturria: Eustat y DIRAE.

2.4 taula 1 16 urte eta gehiagoko biztanleria okupatua, egoera profesionalaren arabera

		2006	2011
Pasaia	Guztira	6.899	6.372
	Enpresaria	196	289
	Autonomoa	863	576
	Kooperatibista	100	123
	Soldatapekoa	4.169	3.952
	Aldi baterakoa	1.485	1.376
Errenteria	Guztira	17.166	16.244
	Enpresaria	455	762
	Autonomoa	2.120	1.503
	Kooperatibista	293	357
	Soldatapekoa	10.505	9.963
	Aldi baterakoa	3.602	3.502

Iturria: Eustat (>= 10.000 biztanle edo gehiago dituzten udalentzat bakarrik dago T)

2.5 taula Gizarte Segurantzako afiliazio tasa


Udalerría	Afiliazio tasa % zuzendaritza – pertsonal. 2014	Afiliazio tasa GS Kualifikazio gabekoak eta ikastunak 2014	Afiliazio tasa (%) Produktzioaren ofiziala 2014
Donostia-San Sebastián	34,57	9,22	20,01
Errenteria	15,10	17,04	33,27
Lezo	15,09	17,32	33,55
Oiartzun	22,91	11,40	30,84
Pasaia	15,49	17,27	32,52

Iturria: Eustat.

- Udalerrian bizi den biztanleria okupatuaren eta enplegua udalerriri horretan duen biztanleriaren bolumenaren arteko kontrastea pertsona langileen erakarpen mailaren adierazlea da, eta azken batean, enplegua sortzeko gaitasunarena.
- 2011ko datuei esker, eskualdeko lau udalerrien artean alde handiak daudela konturatzen gara. Horrela, ikusten da Oiartzunek eta Lezok kanpoko biztanleria langilea erakartzen dutela (okupatutako biztanleria gehiago egoiliarak diren okupatuak baino). Bi udalerrietan kokatutako industriagune/enpresagune garrantzitsuen presentzia oso azalpen-faktore garrantzitsua da.
- Kontrakoa gertatzen da Pasaia eta Errenteriaren kasuan; bertan, udalerriri horietan lokalizatutako enpleguen kopurua okupatutako populazio egoiliararena baino baxuagoa da; hain zuzen ere, bi kasuetan, lanpostu kopurua okupatutako populazio egoiliararen bolumenaren erdialdean kokatzen da.
- Egoera profesionalari erantzunez eta arreta Errenterian eta Pasaian soilik jarritz, -Eustatek 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei buruzko informazioa soilik ematen baitu– argi ikusten da 2011n bi udalerrietako lanean ari ziren pertsonen % 60 inguru soldatapekoen baldintzapean zeudela. Bilakaerari dagokionez, 2006 eta 2011 artean, kopuru absolutuetan eta enpresari/kooperatibista figurei dagokienetan igoera izan dela nabari da; hala ere, oraindik ere, oso murriztak izaten jarraitzen dute kopuruek.
- Gizarte Segurantzaren afiliazio-datuei erantzunez, ikusten da eskualdeak Gipuzkoan aintzat hartutako batez bestekoak baino zuzendaritza-profileko enplegu gutxiago eta kualifikatu gabeko eta ekoizpeneko ofizialen langile gehiago biltzen dituela (% 22, % 11 eta % 32 Gipuzkoan, hurrenez hurren).


2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.1 grafikoa Establezimendu berriak (tasa % biztanleko), 2003-2016



Iturria: Eustat. Udalmap

2.2 grafikoa Establezimendu saldoa (tasa % biztanleko), 2003-2016




Iturria: Eustat. Udalmap

- 2016an, establezimendu kopurua 5.255era igo zen Oarsoaldea eskualdean. Establezimendu horiek 21.675 pertsonari ematen zioten enplegua. Horrek esan nahi du enplegua berreskuratzen hasi dela (2014an baino 781 pertsona gehiago, % 3,7 gehiago).
- Hain zuzen, bilakaeraren ikuspegitik, nabari da krisi ekonomikoaren urteetan mila biztanleko dauden establezimendu berrien sorrera-tasan izandako murrizketa handiak inflexioa areagotu berri duela. Hala eta guztiz ere, lau udalerrietatik bakar batean ere oraindik ez dira lortu krisiaren aurreko urteetan lortutako kopuruak. Oraindik ezin da ekonomia hedagarriaz hitz egin.
- 2016an, establezimendu berrien sorrera-tasa % 10,6koa izan zen Oiartzunen; udalerrri hori da emaitzarik onenak izan ohi dituen. Tasa hori Gipuzkoari, oro har, aintzat hartutakoaren gainetik kokatzen da (% 7,3). Aldiz, Errenteria eta Pasaiaiko establezimenduen sorrera-tasa Gipuzkoako batez bestekoa baino baxuagoa izan da aztertutako urte guztietan (2003-2016).
- Establezimenduen saldoaren bilakaerari dagokionez, hau da, alden edo sortu berri diren establezimenduen eta bajeen arteko aldeak kontuan hartuta, agerian geratzen da krisiarekin lotutako beherakada eta azken urteetako berreskuratze arina. 2016an lau udalerriek emaitza positiboa erakusten dute, oraindik ere tamaina txikikoa bada ere.

2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.3 grafikoa Industria establezimenduen batezbesteko tamaina (enpleguak), 2016



Iturria: Eustat. Udalmap.


2.6 taula Eskualdeko enpresa nagusial (100 enplegu baino gehiago)

Enpresa	Udalerrria
PAPRESA, S.A.	Errenteria
ELSTER IBERCONTA, S.A.	Errenteria
BEISSIER, S.A.	Errenteria
SALVA INDUSTRIAL, S.A.	Lezo
AMCOR FLEXIBLES ESPAÑA, S.L.U.	Lezo
INTERAL, S.A.	Lezo
SAN JOSE LOPEZ, S.A.	Oiartzun
ABB AUTOMATION PRODUCTS, S.A.	Oiartzun
INDUSTRIAS TAJO S.COOP.	Oiartzun
TRANSPORTES INSAUSTI, S.A.	Oiartzun
DSV ROAD SPAIN, S.A.U.	Oiartzun
SALTO SYSTEMS, S.L.	Oiartzun
SOCIEDAD ESTATAL DE ESTIBA Y DESESTIBA	Pasaia
AUTORIDAD PORTUARIA DE PASAIA	Pasaia

Iturria: Oarsoaldea Eskualdeko Agentzia.

- Establezimenduen batez besteko tamaina faktore garrantzitsua da inbertitzeko eta aldaketetara egokitzeko gaitasunari dagokionez. Establezimendu txikiak malguagoak dira, baina finantza-arriskua, askotan, altuagoa izan ohi da eta ez da hain partekatua. Establezimendu handiek finantza-baliabide gehiago dituzte eta eskalako ekonomietatik onura atera dezakete.
- Oarsoaldea eskualdeko establezimendu industrialen batez besteko tamaina Gipuzkoako batez bestekoa baino murriztagoa da. Pasaian batez beste ia 4 enpleguko establezimenduak daude eta Errenterian eta Lezon 12 enplegukoak. Gipuzkoan berriz, kopurua 14,4 enplegukoa baino altuagoa da (2016ko datuak).
- Eskualdean, enpresa erreferenteen presentzia mugatua da eta sektore helduei dagozkien enpresa azpikontratatzailak nagusitzen dira.
- Industria-enpresa garrantzitsuenak garraio-sektoreari, plastikoari, paperari eta makineriari dagozkio. Handiena San José López (garraio-sektorea) da. 2014an 289 enplegu zituen. Papresak jarraitzen dio tamainan (paperaren sektorea), 211 enplegurekin.
- Azken urteetan, enpresa enblematikoen itxiera areagotu da: Ramón Vizcaíno, Catelsa...

2.4 grafikoa Enpleguaren portzentaia maila teknologiko bakoitzean. 2009 eta 2014



Iturria: EKAI.

- Maila teknologiko baxuko establezimenduetan enpleguak duen garrantzia nabarmen handiagoa da Oarsoaldean Gipuzkoan baino. Hain zuzen ere, goiko grafikoa ikus daitekeen moduan, eskualdeko enpleguaren % 27,7 maila teknologiko baxuko gisa kalifikatutako sektoreetako establezimenduei dagokio. Ehuneko hori % 17koa da Gipuzkoan.
- Gainera, esan daiteke 2009 eta 2014 artean erregistratutako bilakaera ez dela ona; izan ere, maila teknologiko baxuko segmentuan pilatutako enplegu-kuotak gora egin du Oarsoaldean. Gipuzkoan eta EAEn kontrakoa gertatu da. Maila teknologiko baxua eta ertaina -baxua modu erantsian kontuan hartzen baldin bada, ondoriozta daiteke Oarsoaldean enpleguaren % 71 aipatutako segmentuan pilatzen dela. Ehuneko hori % 58koa da Gipuzkoan eta % 66koa EAEn.
- Maila teknologikoarekin lotutako emaitza txar horiez gain, MIKek egindako txostenak agerian jartzen du eskualdean berrikuntza-estrategia zehatzak eta eragile zientifiko-teknologikoekin elkarlan irekiko harremanak dituzten enpresen eskasia (MIK txostenaren lagineko enpresen % 85).

2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.7 taula Enpresa esportatzaileak (> 25 enplegu)

	Enpresak guztira	Esportatzaileak	Esportazioaren %
Oarsoaldea	56	34	60,7
Gipuzkoa	600	403	67,2

Iturria: Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoa
Eusko Jaurlaritz. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.

2.8 taula Esportazio portzentaia salmentekiko (> 25 enpleguko enpresak)

	% 0-25	% 26-50	% >50
Oarsoaldea	53,8	38,5	7,7
Gipuzkoa	51,2	18,8	30,0

(*) Datuak eman dituzten enpresei lotutako emaitzak. Iturria: Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoa
Eusko Jaurlaritz. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.

- Orsoaldeako enpresen profil esportatzaileari dagokionez eta Euskadiko Katalogo Industrialaren eta Esportazioen datuei erantzunez, ondorioztatu da enpresa esportatzaileen ehunekoa (25 enplegu baino gehiago) baxuagoa dela eskualdean Gipuzkoako lurralde multzoan baino. Hain zuzen ere, 25 enplegu baino gehiagoko Orsoaldeako enpresen % 60k esportatu egiten dute; proportzio hori % 67ra iristen da Gipuzkoan.
- Hala eta guztiz ere, kanporako salmenten parte-hartzea Gipuzkoan oro har hartuta lortutakoaren oso antzekoa da. Hala ere, kanpora esportatutako bolumenari arreta jarritz egindako azterketa zehatzagoak bistan jartzen ditu alde adierazgarriak. Izan ere, salmenten erdia baino gehiago kanpo-merkatuan jartzen dituzten enpresek (25 enplegu baino gehiagokoak) Oarsoaldean Gipuzkoan baino ordezkari nabarmen txikiagoa dute; % 8 eta % 30ekoa da hurrenez hurren).
- Establezimenduen tamaina txikiagoak izaera esportatzailean eragiten du. Enpresa sendoak edo enpresa handien ordezkariak diren laneko guneak falta dira eskualdean.

2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.9 taula Orsoaldeako enpresen presentzia Klusterretan

Klusterra	Enpresak (kopurua)	Oarsoaldea
Ezagutza Klusterra	180	<ul style="list-style-type: none"> Tknika (Errenteria)
AFM Makina-Erreminta Ekoizleen Elkartea	164	<ul style="list-style-type: none"> Dimeco (Oiartzun, Lanbarren) Maquinaria Geka (Oyartzun) Mecanizados Izadi (Errenteria) Grupo Pegamo (Oiartzun, Lintzirin Gaina) Grupo Wisco (Lezo)
Mugikortasun eta Logistika Klusterra	97	<ul style="list-style-type: none"> Puerto de Pasajes (Pasaia) Algeposa (Pasaia) Txita Txirindak (Errenteria)
ACLIMA Ingurumeneko Industrien Euskadiko Kluster Elkartea	77	<ul style="list-style-type: none"> --
Elikaduraren klusterra	67	<ul style="list-style-type: none"> Grupo Gourmet Okin (Errenteria) Nakulas (Oiartzun, Lanbarren) Baqué (Oiartzun, Ugaldetxo) Sobre Natural (Errenteria)
HEGAN Aeronautikako eta Espazioko Klusterra	49	<ul style="list-style-type: none"> Grupo TTT (Oiartzun, Lanbarren) Khegal Aeronáutica
Energia Klusterra	105	<ul style="list-style-type: none"> --
ACICAE –Automobilgintza Klusterra	300	<ul style="list-style-type: none"> Euroutil (Errenteria) Mariskone (Oiartzun) Rubitec (Lezo) Industrias Tajo (Oiartzun)
Paperaren Klusterra	29	<ul style="list-style-type: none"> Papresa (Errenteria)
AVIC Euskal Injeniaritza eta Aholkularitza enpresen Elkartea	31	<ul style="list-style-type: none"> --

Iturria: Elaborazio propioa.

- Kluster edo elkarte sektorialenganako atxikipena eta horietan eskualdeko enpresen presentzia hainbat faktorek baldintzatzen duten arren, lurralde jakin bateko enpresa-ehunaren zeharkako adierazlea da eta potentzialtasun ekonomikoarekin nolabaiteko korrelazioa du.
- Oarsoaldean tamaina adierazgarriko enpresa eragileen kopuru handi baten eskasiak azaltzen du neurri handi batean klusterretan eskualdeko ordezkari mugatua eta sareetan presentzia eskasa izatea.
- Atxikitako koadroan ageri diren sektorekako 10 klusterrek 1.009 enpresa biltzen dituzte guztira, eta eskualdeko 20 bakarrik daude sartuta, hau da, % 1,8.
- Makina-erremintak, Mugikotasuna-Logistikako, Elikadura eta Autonomozioko klusterretan nabari da eskualdeko enpresen presentzia handiena.
- Nabarmendu beharrekoa da ezagutzaren klusterrean eskualdeko eragileen presentzia eskasa (Tknika bakarrik) eta presentzia hutsala Injeniaritzakoan eta Aholkularitzan, Energiari eta Ingurumeneko klusterrean.

2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.10 taula Hamar urte eta gehiagoko biztanleria ikasketa mailaren arabera. Bilakaera 2001-2015 bitartean

Udalerrria	Gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dutenak		Gutxienez lanbide ikasketak gainditu dutenak		Gutxienez unibertsitateko ikasketak gainditu dutenak	
	2001	2015	2001	2015	2001	2015
Gipuzkoa	41,0	63,6	16,4	18,4	13,8	23,7
Errenteria	35,5	57,6	18,4	20,6	8,5	14,8
Lezo	37,9	61,1	19,2	22,8	8,6	15,9
Oiartzun	39,2	63,0	16,8	18,9	11,4	21,7
Pasaia	33,3	57,7	15,5	19,2	7,7	15,6

Iturria: Hezkuntzaren udal estatistika.

2.11 taula Hamar urte eta gehiagoko biztanleriaren banaketa, ikasketa mailaren arabera, 2016


	Errenteria	Lezo	Oiartzun	Pasaia	Oarsoaldea eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Alfabetatugabeak	0,8	0,4	0,4	0,5	0,6	0,4	0,4
Ikasketarik gabekoak	3,2	2,9	1,4	2,2	2,7	2,2	2,2
Eskolaurrea eta lehen mailakoak k	37,7	35,1	34,0	38,3	37,1	33,2	33,3
Lanbide-heziketakoak	21,0	23,1	19,3	19,7	20,6	18,7	17,6
Bigarren mailako ikasketakoak	22,1	22,3	22,3	22,8	22,3	21,4	21,5
Erdi-goiko mailako ikasketakoak	5,2	5,4	7,0	5,7	5,6	7,5	7,7
Goi mailako ikasketakoak	10,1	10,9	15,7	10,8	11,1	16,7	17,3

Iturria: Hezkuntzaren udal estatistika

- Populazioaren instrukzio mailarekin lotutako bilakaerak oso ibilbide positiboa erakusten du; % 20ko baino gehiagoko igoera nabaritu da bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleen artean eskualdea osatzen duten lau udalerrietan.
- Hala eta guztiz ere, Orsoaldeako populazioaren prestakuntza maila Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik kokatzen da. Hain zuzen ere, Hezkuntzako Udal Estatistikatik igorritako datuen arabera, gutxienez bigarren mailako ikasketak osatu dituen 10 urte baino gehiagoko populazioa biztanleriaren % 56 da Errenteriaren eta Pasaia kasuan, eta % 62ko kopurura iristen da Oiartzunen; ehuneko hori batez beste % 62,3an kokatzen da Gipuzkoan.
- Unibertsitate mailako ikasketak dituen populazioaren ehuneko ere txikiagoa da. Errenterian, Lezon eta Pasaian % 15 eta Oiartzunen % 21 artekoa da (% 23 Gipuzkoan). Oarsoaldea eskualdearen bereizgarria, aldiz, ikasketa profesionalak dituen populazioak lortu duen garrantzia da.


2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.5 grafikoa Langabezia tasa



Iturria: Lanbide.

2.6 grafikoa Langabezian dauden pertsonen kopurua, sexuaren arabera, 2016




Iturria: Lanbide.

2.12 taula Enplegarritasun indizea, 2016

Indizea	Udalerria
Oso altua	▪ Oiartzun
Altua	▪ Donostia-San Sebastián ▪ Lezo
Baxua	
Oso baxua	▪ Errenteria ▪ Pasaia


Iturria: Lanbide

2.7 grafikoa Kontratazio kopurua



Iturria: Lanbide.

2.8 grafikoa Enplegu-eskatzailen kopurua




Iturria: Lanbide.

- Oarsoaldea eskualdean Lanbiden erregistratutako langabezian dauden eta enplegu-eskatzailak diren pertsonen kopurua 4.197ra iritsi da 2016ko laugarren hiruhilekoan; % 46 gizonezkoak ziren eta % 54 emakumezkoak.
- Aztertutako adierazle nagusiek agerian jarri dute eskualdeko lau udalerrietan nabaritu den laneko merkatuaren hobekuntza: enplegu-eskatzailen bolumen jaitsiera, langabezia-tasaren jaitsiera eta kontratazio kopuruaren igoera. Hala eta guztiz ere, alderaketa eginez gero, eskualdeak Gipuzkoako lurraldeak (orotara hartuta) baino datu txarragoak aurkezten ditu.
- Errenteria eta Pasaia dira emaitzarik okerrenak pilatzen jarraitzen duten udalerriak (langabezia-tasa altuagoa eta enplegarritasun-aurreikuspen okerragoak). Lanbideren arabera, bi udalerrietan, enplegarritasun maila "oso baxua" da.


2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.9 grafikoa Kontratu ezaugarriak, 2016



Iturria: Lanbide.

2.10 grafikoa Langabetuen profila, 2016



Iturria: Lanbide.

2.13 taula Langabetuak eta kontratatuak adinaren arabera, 2016

	< 30 urte		30 – 44 urte		> 44 urte	
	Kontratatuak	Langabetuak	Kontratatuak	Langabetuak	Kontratatuak	Langabetuak
Errenteria	35,2	13,51	40,9	39,09	24	47,4
Lezo	22,6	16,32	45,3	35,01	32,1	48,66
Oiartzun	27,2	17,8	47	38,29	25,9	43,9
Pasaia	27	14,76	42,7	33,3	30,3	51,94

Iturria: Lanbide

- Lanbideren datuen bidez, kontratatutako pertsonen ezaugarriak eta langabezian dauden pertsonen ezaugarriak kontrasta daitezke sexuari, adinari eta kualifikazio mailari dagokionez.
- Bi taldeen ezaugarrien kontrasteak desberdintasun handiak islatzen ditu: kontratazioak pertsona gazteetan eta kualifikazio maila ertainetan edo goi mailakoetan pilatzen diren bitartean, langabezian dauden pertsonen zorroan kualifikazio baxuko profilak nagusitzen dira, baita adin-tarte altuagoei dagokien pertsonen presentzia handiagoa ere.
- Kualifikazio mailari dagokionez, kontuan hartzekoa da kontratuak, batez ere, gutxienez batxilergoa duten pertsonen dagokiela; aldiz, maila baxuek biltzen dute langabezian dagoen biztanleriaren zatirik handiena.
- Adinari dagokionez, langabetuen artean 44 urte baino gehiagoko pertsonen kopurua nabarmen handiagoa da kontratatutakoan artean baino. Aldeak % 20 ingurukoak dira; horrela, islatzen da kontratuak gazteen taldean pilatzen direla, eta ondorioz, 44 urte baino gehiagoko pertsonen langabezian kronifikatzeko joera dutela.
- Azken finean, langabezian dauden pertsonen taldeko eta kontratatuak diren pertsonen profiletako aldeak oso adierazgarriak dira.

2. HAUSNARKETA TALDEETAN AURKEZTUTAKO ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOAK

2.14 taula Zonaldeko merkataritza jardueraren inguruko datuak, 2015

	Txikizkako merkataritzaren dentsitatea * (biztanleen %)	Txikizkako merkataritzako azalera biztanle bakoitzako (m ²)
Errenteria	10,91	0,91
Lezo	5,86	0,93
Oiartzun	13,38	5,80
Pasaia	9,81	0,62
GIPUZKOA	12,55	1,42
EAE	11,75	1,45

Iturria: Oarsoaldea-Udalplan.

2.15 taula Pasaia Badiako udalerriko sektore turistikoari buruzko datuak

	Turismoko ostatu plazak (biztanleen %) 2010	Ostalaritza establezimenduak eta jatetxeak (biztanleen %) 2016
Errenteria	1,81	4,78
Lezo	8,13	6,69
Oiartzun	64,76	6,99
Pasaia	1,38	6,21
GIPUZKOA	24,91	6,17
EAE	18,97	6,35

Iturria: Oarsoaldea-Udalplan.

- Orsoaldeako udalerrietako txikizkako komertzioaren dentsitateari dagozkion adierazleek, Eustatek argitaratutako informaziotik abiatuta eskuragarri daudenek, islatzen dute Oiartzunek soilik aurkezten dituela Gipuzkoak baino balio altuagoak.
- Biztanleko txikizkako komertzioaren azalerari dagokionez ere, Oiartzun rankingeko buruan kokatu da Gipuzkoako Lurraldearen batez bestekoa baino lau aldiz altuagoa den ratioarekin. Orsoaldeako beste hiru udalerrriak batez bestekoaren azpitik daude.
- Hala eta guztiz ere, eskualdeak azalera handiko komertzioen ekarpen eta presentzia handia du; hain zuzen ere, Oiartzunen daude: Alcampo, Carrefour, Leroy Merlin, Brico Depot, Mercadona....
- Sektore turistikoari dagokionez, populaziori lotutako ostatu turistikoaren ehunekoak erakusten du eskualdean ekarpen txikia duela, Oiartzun salbuespen izanik (udalerrian campinga egoteak nabarmen eragiten du emaitzetan).
- Mila biztanleko dauden ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduen ratioa Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik kokatzen da Errenteriaren kasuan; deigarria da, eskualdeko buruan baitago kokatuta (% 4,8 eta % 6,2, hurrenez hurren).



3. OARSOALDEA ESKUALDERAKO ERRONKA SOZIOEKONOMIKO NAGUSIAK

3. OARSOALDEA ESKUALDERAKO ERRONKA SOZIOEKONOMIKO NAGUSIAK

❖ 1. ERRONKA: LURRALDEA, PERTSONEN ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN HABITATA BIZIBERRITZEA

➤ Lurralde-kalitatea, aktibo ekonomikoa.

Lurralde baten kalitateak eta erakargarritasunak, biztanleen osasunean eta bizitzeko moduan eragiteaz gain, bertako *ekonomian eta etorkizuneko potentzialtasunetan* ere eragina du. Turismoa edo nekazaritza-sektoreetarako garrantzitsua izateaz gain, enpresa-kokapenean eta kanpora begirako lurraldearen irudi orokorrean ere faktore garrantzitsua da. Gainera, *zuzeneko jarduera-motorra* izan liteke eta lurraldearekin lotutako zenbait nitxo, fabrikazio aurreratuekin batera, aukera-eremuak dira, Euskadiko espezializazio adimentsuko Lehentasun Estrategikoetan zehaztutakoaren arabera (RIS 3 Euskadi).

➤ Oarsoaldean aurre egin beharreko desabantaila bat, nabarmen finkatutako egoera baten gainean jardutea eragiten duen konplexutasunarekin.

Jarduera ekonomikoko arloen degradazioak eta kalteek *Oarsoaldea eskualdearen lehiakortasuna* eta enpresa teknologikoak erakartzeko gaitasuna *murrizten dute*, eta inguruneari dagokionez desabantailan dagoen ekonomia izatea baztertzen du.

Lurralde-kalitatearen hobekuntza eragile desberdinetatik lantzen da eta *hiri arloetan emaitzak* nabari dira; emaitza horiek *jarduera ekonomikoko eremuetara hedatu* beharko lirateke. Hiri-eremuetan egiten diren jarduerak, oro har, ezin dute irismen aringarritik harago joan, eraldaketa sakonak eta lurralde mailako mugaketak egiteko konplexutasuna baitago lurzoru berrien garapenean eremuen eta mugaketen dentsitate altua dagoelako. Nagusiki 60ko eta 70eko hamarkaden hazkunde handiak eta kontzentrazioak zehazten dute bilakaera. Garapen mota hori, kalitate baxukoa eta antolatu gabea, *jarduera ekonomikora ere zabaltzen da*, eta bertan, eskualdearen periferia-izaerak eragina du. Donostiarekiko hurbiltasunak hainbat onura dakartza, baina era berean, mendekotasunak ere eragiten ditu, esate baterako: zerbitzu-jarduerak eta egoitza-eremuak ezartzea hiri multzo handi baten barruan erosteko ahalmen gutxiagoko eskaerak asebetetzeko. Biziberritzea, beraz, ekintza konplexua da eta denboran zehar finkatzen aritu den bilakaerari konponbidea ematea eskatzen du.

➤ Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren estrategia, baliabideen kontsumoak eskualdearen hobekuntza sozioekonomikoan modu paraleloan eragitea ahalbidetuko duena

Oarsoaldean lurzoruen okupazioko ezaugarri berezietako bat da merkataritza-azalera handietara eta garraiora zuzendutako eremuak ugariak direla. Kokapen geografikoak eragin nabaria duen jarduerak dira. Onurak nabarmen gauzatzen dira eskualdearen kanpoko arloetan. Baliabideak mugatuak izanik, balio erantsi handiko jarduerak, esate baterako industriak eta kalitatezko produktuen kontsumoari lotutako beste batzuk, nekazaritza-sektoreak esaterako, lehendik konplexuak diren

3. OARSOALDEA ESKUALDERAKO ERRONKA SOZIOEKONOMIKO NAGUSIAK

erronkei lurraldea erabiltzeagatik konpetentzia gehitzen die. Lurralde-plangintzak eta lurzorua sustatzeko garaian lehentasunak zehazteak *lurzoruaren erabileran tentsio-egoerak eta aukera-kostuen eta kanpo-efektuen balorazio eskasa konpondu* beharko lituzke.

Egoitza-eremuetan bezalaxe, beharrezkoa da egungo *jarduera ekonomikoko eremuak birgaitzea eta lurzoruaren eskaintza orokorra konfiguratzea*, balio erantsi handieneko jarduerak eta industria lehenetsiko dituen, lurzoruaren baliabideen egungo kontsumoa kualifikatuz eta leheneratuz; hori ez doa eskualdeko adierazle sozioekonomikoen egoerarekin eta bilakaerarekin modu paraleloan.

❖ 2. ERRONKA: BERRIKUNTZARA GEHIAGO ZUZENDUTAKO EGITURA EKONOMIKOA ETA BALIO ERANTSI HANDIAGOA LORTZEA

➤ **Espezializazio adimentsuaren lehentasunak, testuinguru orokorra**

Eusko Jaurlaritzak, etorkizuneko aurreikuspenak eta EAEko ekonomiaren gaitasunak kontuan hartuta, espezializazio adimentsuko 3 lehentasun zehaztu ditu: fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak (bereziki osasunerantz zuzenduta). Gainera, lurraldearekin zerikusia duten hainbat nitxo identifikatu dira. Fabrikazio aurreratuko lehentasunari begira, sektore industrialetara zuzendutako ikerketa eta garapena biltzen da (bereziki garraioa, ekipo-ondasunak eta metalak), batez ere proiektu berrien sorrerari, material berrien txertaketari eta fabrikazio-prozesuen hobekuntzari zuzenduta. Enpresako eta zentro teknologikoetako I+G unitateek garatu beharreko eginkizun garrantzitsua dute.

➤ **Oarsoaldea, etorkizunaren aurrean jarrera hartu beharrean eta indarguneak jokoan jarri beharrean**

Oarsoalderako aztertutako adierazle sozioekonomikoetan *egoera kezagarria nabari da sektore horien presentziari* dagokionez; horrez gain, baita berrikuntza maila murriztuagoak eta sektore produktiboaren atomizazioa ere. Puntako proiektuak dituzten enpresak badauden arren, salbuespena dira eta eskualdean ez dituzte sektoreak eta balio-kateak behar bezala erakartzen. Oarsoaldean *maila teknologiko baxuko sektoreetako enpleguaren* (gorakorra) moduko adierazleen jokabide txarra Gipuzkoarako eta EAERako islatutakotik bereizgarria ere bada.

Eskualdeko baliabideak kokapen oneko enpresa zehatzetan eta ibilbidea eta potentzialtasuna duten hainbat zentrotan (AZTI, Tknika, Don Bosco, Blas de Lezo) biltzen dira, batez ere eskualdeko enpresa-multzora zuzenago eta errazago iristeko. Prestakuntza, *lanbide-heziketan* titulaturako pertsonen kopuru altuarekin, Orsoaldeko ezaugarri berezia. Bestalde, itsasoarekin lotutako jarduera da eskualdeko baliabide bereizgarria, arloa joera berrietara eta eduki teknologiko handiagokoetara zabalduz.

3. OARSOALDEA ESKUALDERAKO ERRONKA SOZIOEKONOMIKO NAGUSIAK

➤ Ekipamendu teknologikoak eta ehun ekonomikoaren hobekuntza, apustu nagusiak

Fabrikazioan eta lotutako zerbitzuetan, pertsoneri emandako zerbitzuetan (zahartzea) eta itsasoarekin zerikusia duten baliabideen ekonomian oinarritutako eremuen konfigurazioak dira –lurraldetik eta prestakuntza-enplegutik eskaintzen dituzten ekintzez gain- ekintzarako oinarri nagusiak. Jakina da aurrez aipatutako ahalik eta etekin handiena lortzea eta lehendik dauden ekipamenduen jarduera sustatzea komeni dela.

Edonola ere, azken erronka ezagutza zabaltzea eta ehun ekonomikoa bultzatzea da; hori dela eta, beharrezkoa da inplikazioa eta elkarlana bilatzeko formula posible guztiak martxan jartzea, betiere, egungo posizionamendua leheneratu dadin eta eskualdeko egitura eralda dadin.

❖ 3. ERRONKA: NAHIKOA ENPLEGU SORTZEA, KALITATEZKOA ETA ETORKIZUNA DUENA

➤ Lan-merkatu zorrotza, egokitzapen-ahalegina behar duena eta bazterkeria-arriskuak dituen

Globalizaziotik etorritako *aldaketa sakonek*, aurrerapen teknologikoen eta ziklo ekonomikoen, beste hainbat efekturen artean, alde negatiboan, enplegu-baldintzak okertzea eta aldaketetara egokitzeko beharra ari dira eragiten. *Eskakizunak* prestakuntzari dagokionez, ekintzaile-jarrera, zereginak intentsifikatzea... horiek guztiek gero eta lehiakorragoa den ingurutik zintzilik geratzen diren biztanle-geruzen loditzea ari dira eragiten. Etorkizuneko sektoreak, espezializazio adimentsuko lehenetsuetan islatuak, prestakuntza-profil altuak eskatzen dituzte. Prozesuen automatizazioak eta digitalizazioak lanpostuak egokitzeko eta mantentzeko *mehatxuak* diren arren, eduki handiagoko funtzioak sortzeko aukera ere badira, eta edonola ere, saihestu ezin diren aldagaiak direla dirudi.

➤ Oarsoaldean enpleguen defizita murriztea; horren abantaila da eremu irekia izatea, iragazkorra eta aukera berriak dituen, baina enplegarritasun eta prestakuntza maila baxuak dituen

Gaur egun, Oarsoaldea, orotara hartuta, *ez da autosufizientea enpleguaren sorreran*; izan ere, eskualdean dauden enpleguen eta hemen bizi den biztanleria langilearen kopuruaren artean 7.000 pertsonako aldea dago. Bestalde, datu horiek Pasaia eta Errenteria udalerriek egiten duten bizitegi-funtzioa erakusten dute. Herritarrak, neurri handi batean, Orsoaldeko eta Donostialdeko beste udalerrietan aritzen dira lanean. Oiartzunek eta Lezok, batez ere Oiartzunek, aldeko emaitzak eskaintzen dituzte.

3. OARSOALDEA ESKUALDERAKO ERRONKA SOZIOEKONOMIKO NAGUSIAK

Enplegu-defizita betetzea, eta are gehiago lan-merkatuaren etengabeko eskakizunak kontuan hartuta, ez da helburu erraza; are gehiago, abiapuntuko *prestakuntza mailak* kontuan hartzen baldin badira. Orsoaldeako biztanleriaren prestakuntza-kualifikazioa Gipuzkoako eta EAeko batez bestekoaren azpitik kokatzen da. Langabezian dagoen biztanleria nabarmentzen da baita ere Errenteriako eta Pasaiako zifretan; udalerrri horietan *enplegagarritasun*-indizea oso baxua da. Enplegu-gabezia mailarik handienak ikasketa gutxien dituen biztanleriaren artean daudenez, agertoki berrien aurrean eskualdearen posizionamenduak ahalegin gehigarri bat behar du. Berrikuntzarekin lotutako *aukeraz gain* (digitalizazioa, industria 4.0), horiek eskualdean enplegu berrietarako atea zabalduko dituzte nahitaez, turismoa eta pertsonen emandako zerbitzuaren sektoreek, esaterako, Oarsoaldean enplegua sortzeko potentzialtasuna dute. Enplegu horiei *kalitatezko baldintzak, egonkortasuna eta edukia* eskaintzea da helburua, baita herritarrei horiek onartu ahal izateko *gaitasunak eskaintzea* ere. Eta gainera, enplegagarritasun konplexueneko taldeek beren espazioa topa dezaten lortzea.

➤ **Profil profesionalen espezializazioa, teknologia, pertsonen eskaintako zerbitzuak, lanean eta gizartean txertatzea eta ekintzaitza- eta elkarlan-formulak enplegua sortzeko iturri nagusi bihurtzea**

Lanbide-heziketan ikasketak dituzten pertsonen proportzio altuak badu bere berezitasuna. Horretaz aprobetxatu behar du eskualdeak, eta erreferentea izan. Prestakuntza-zentroen egitura, sortu beharreko laguntza ekipamenduak eta aldaketa teknologikoetako perspektibak kontuan hartuta, *aukerak eskaini behar dira* goi mailako profiletarako eta profil profesionaletarako, batez ere espezializazioa dutenak. Pertsonen arretarekin zerikusia duten *sektoreen* garapenak, mendekotasunak, arlo soziosanitarioak eta turismoak enplegu-aukera handiak eskain ditzakete; bertan, Oarsoaldeak abagune handiak izan ditzake.

Egoera kaltegarrian dauden taldeak *lan-munduan eta gizartean txertatzea*, enpleguko politika aktiboen garapenaren eta gizarteratzeko enpresen bidez, langabezia murriztu eta egoera pertsonalak hobetu ditzaketen tresnak dira.

Bistakoa denez, *erabakitze gaitasuna eskaintzen duten formulak*, esate baterako: ekintzaitza sustatzea eta parte-hartzea sustatzen duten kooperatibak edo enpresak sortzea oso garrantzitsua da sortu nahi den enplegu motarako.

3. OARSOALDEA ESKUALDERAKO ERRONKA SOZIOEKONOMIKO NAGUSIAK

❖ 4. ERRONKA: ESKUALDE ARTIKULATUAGOA ETA KOHESIONATUAGOA LORTZEA, ARLO GUZTIETAN LIDERGORAKO ETA ELKARLANERAKO GAITASUNAREKIN

➤ Arlo teorikoan zalantzan jarri ezin den eredia, modu errealean ezartzeko ahalegin handia eskatzen duena

Gaur egun, elkarlanean oinarritutako gobernantza, formalki behintzat, erakunde guztietan gero eta onartuago dagoen irizpidea da, parte-hartzeak eskaintzen dituen emaitzen hobekuntza, erabakietan inplikatzeko eta konpromisoa dela eta. Kanpora zabaltzeak gainera, laguntzak eta osagarritasunak lortzea ahalbidetzen du. Jokabide horiek gainera, lidergoa sustatzen dute erabakitzeko agertoki guztietan. Zalantzan jarri ezin daitezkeen printzipioak dira, zalantzarik gabe, praktikan *lortzeko ahalegin handiak* eskatzen dituztenak. Oarsoaldea Garapen Agentzia osatu zenean, 1993. urtean, lau udalerrriak txertatuz, helburuen artean hauek zituen: erantzukizun soziala, elkarlana eta aliantzak udal arteko mailan, erakunde artean, enprekin eta nazioarte mailan.

➤ Oarsoaldeak eta bertako eragile guztiek, barne-loturak estutu behar dituzte eta kokapena indartu behar dute aukera-eremua izango den kanpoaldearekiko

Eskualdeko identitate propioa helburua gehiago da errealitatea baino Oarsoaldean, eta horretan eragina dute errealitate konplexua erakusten duten faktoreek. Lau udalerrien arteko (eta udalerrien artean) aniztasun sozioekonomikoa eta antolamenduko tresnak eta tokiko ikuspegiaren kudeaketa nagusitzeak ez dute errazten helburuak eta estrategiak bateratzeko zeregina. Donostiaren moduko udalerriekiko duen hurbiltasunak eta haien eraginak, hainbat loturarekin eta jarraikortasun fisikoarekin, diluzio-faktorea dira. Goi mailako erabaki arloetan eskualdeko lurraldearen nahiak bildu eta ordezkatzeko dituen lidergoa mantentzea ez da erraza.

“Orsoaldeako ekonomia” *ekonomia indibidualetako datuak* (erakundeenak, enpresenak...) eranstearen ondoriozko kontzeptua da batik bat, multzo hautemangarri eta antolatu bat baino gehiago. Emaitzen kontuak eta helburu partikularrak gainerako eragileei dagokienez bere horretan gelditzen diren arloak izan ohi dira askotan. Erakundeen konplexutasuna eta eragileen aniztasuna gehitzen baldin bada, multzoa “enpastatzearen” eta jarduerak batzearen zailtasuna nabarmena da. Enpresa arloan, batez ere faktore ekonomikoei (enpresa-taldeak, sektoreak) lotutako lehenetsitako artikulazioa da logikoa, ezarpeneko leku fisikoari lotutakoa baino gehiago. Jarduera-eremuak elkarbanatzen dituzten eragile ekonomikoen arteko artikulazio-gabezia bereizgarri negatiboa da eta horretan lan egitea derrigorrezkoa da.

Produktzio-ehunaren *atomizazioak* eta sareen presentzia eskasak desartikulazioaren beste faktore bat osatzen dute, barneko elkarlana erraztuko duten (kooperatibak esate baterako) enpresen presentzia eskasak areagotuta.

3. OARSOALDEA ESKUALDERAKO ERRONKA SOZIOEKONOMIKO NAGUSIAK

➤ **Eskualdeko Plan Estrategikoaren erronka, proposamenen, kohesio-estimuluen eta lankidetzaren tresna gisa arlo sozioekonomikoan.**

Plan Estrategikoa martxan jartzea, lau udalerrietako eragile publikoen eta pribatuen, eta eskualdean inplikazioa duten erakundeen ordezkarien parte-hartzearekin eginda, hori da erakundeak konpondu beharreko lehen erronka. Nork berea lortzea eta apustu bateratua lortzen laguntzea eragiten duen ezarpena. Erronka honek kanpo-eragileak helburu komunetan inplikatzea eragiten du. Eskualdeko Garapen Agentziak Planaren elementu katalizatzailearen eta dinamizatzailearen papera jokatu behar du.

Sektore ekonomikoei dagokienez, planaren erronka ezartzen diren *elkarlaneko tresnen inplikazioa eta arrakasta* lortzea da. Ekimen bateratuak sustatzeko (balio-kateak babestea, asoziazionismoa, industrialdeak mantentzea) eta izaera materialeko tresnak (berrikuntza-zentroak, teknologiak, zerbitzuak, enpresak kokatzea).

Komplexutasuna eta helburu komunak bilatzea dirudi dela formularik gomendagarriena jarduerako arlo guztietan eta lurraldeko eskaletan. Kanpoaldean beste udalerriekiko eta eskualdeekiko elkarlana da landu beharreko potentzial handiko bideetako bat, dagoeneko ezarritako formulak zabalduz, arlo sozioekonomikoetara senidetzea esate baterako, eta beste lurraldeekin eta ekimenekin lotura berriak eta sareak ezarriz.

3. OARSOALDEA ESKUALDERAKO ERRONKA SOZIOEKONOMIKO NAGUSIAK


Erronken egokitasuna eta proposatutako estrategia

ERRONKAK	ERRONKAREN ARRAZOIA	OARSOALDEAN ERRONKAREN EGOKITASUNA	PROPOSATUTAKO ESTRATEGIA
1. LURRALDEA, PERTSONEN ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN HABITATA BIZIBERRITZEA	Lurralde-kalitatea, aktibo ekonomikoa	Aurre egin beharreko desabantaila	Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren estrategia, baliabideen kontsumoak eskualdearen hobekuntza sozioekonomikoan modu paraleloan eragitea ahalbidetuko duena
2. BERRIKUNTZARA GEHIAGO ZUZENDUTAKO EGITURA EKONOMIKOA ETA BALIO ERANTSI HANDIAGOA LORTZEA	Espezializazio adimentsuaren lehenetasunak, testuinguru orokorra	Etorkizunaren aurrean jarrera hartu beharra eta indarguneak jokoan jarri beharra	Ekipamendu teknologikoak eta ehun ekonomikoaren hobekuntza, apustu nagusiak
3.- NAHIKOA ENPLEGU SORTZEA, KALITATEZKOA ETA ETORKIZUNA DUENA	Lan-merkatu zorrotza, egokitzapen-ahalegina behar duena eta bazterkeria-arriskuak dituen	Enpleguen defizita murriztea	Profil profesionalen espezializazioa, teknologia, pertsonen eskaintako zerbitzuak, lanean eta gizartean txertatzea eta ekintzaitza- eta elkarlan-formulak enplegua sortzeko iturri nagusi bihurtzea
4. ESKUALDE ARTIKULATUAGOA ETA KOHESIONATUAGOA LORTZEA, ARLO GUZTIETAN LIDERGORAKO ETA ELKARLANERAKO GAITASUNAREKIN	Arlo teorikoan zalantza jarri ezin den eredia, modu errealean ezartzeko ahalegin handia eskatzen duena	Eragile guztiek barne-loturak estutu eta Kanpo posizionamendua indartu behar dituzte aukera-eremua izango den kanpoaldearekiko	Eskualdeko Plan Estrategikoaren erronka, proposamenen, kohesio-estimuluen eta lankidetzaren tresna gisa arlo sozioekonomikoan.




4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

Erronka eta Ildo Estrategikoak, makrojoerak kontuan hartuta



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

Ildo Estrategikoen eta Ekintzen Eskema



1. Ildo Estrategikoa Itsasoarekin lotutako ekonomia bultzatu

Justifikazioa

Plan Estrategikoa egitean, behin eta berriz nabarmenduta gelditu da eskualdeko ekonomiaren izaera bereizle nagusiak itsasoa, Pasaiaiko badia eta tradizionalki zerikusia izan duten jarduerako sektore guztiak direla. Aldaketak oso bistakoak izan dira, arrantzarekin (altura eta baxura) eta salgaien trafikoarekin, ontziolaren eraikuntzarekin eta portuaren inguruneari eta inguruko nukleoei izaera handia ematen dien zerbitzu-aukera zabalarekin zerikusia duten jarduera historikoarekin

Krisiak eta eraldaketek portuko trafikoaren sinplifikazioa eragin dute (eskualdetik kanpoko jarduerari ematen die arreta), baita arrantzaren indar txikiagoa eta arrantzaren eraldaketa eta jarduerak sakabanatzea ere (industria laguntzailea, ingeniariak, arrantzaren handizkako merkataritza) eskualdeko jarduera ekonomikoko eremu desberdinetan. Gainera, itsasoarekin lotutako eragile berriak sortu dira: ikerketa- eta prestakuntza-zentroak, itsas ondarea eta ingurumen-ondarea, aisialdiko jarduerak eta abar. Bestalde, nabaria da aldaketa teknologikoak ere iritsi direla. Horrela, tokiko ekonomiaren oinarri tradizionala duen sektoreak berriz sortu behar du, eta beste lurraldeekin alderatuta dituen aukera apartak eta ibilbideak aprobetxatu behar ditu. Ostera ere itsasora begira bizitzea da helburua.

L1.1 ekintza.	Sektorearen egituraketa, itsasoarekin eta itsasertzarekin lotutako sektore guztietako eragileak eta profesionalak bilduz
L1.2 ekintza.	Teknologia/berrikuntza/sustapen eta jardueren sorkuntzarako eremuak garatzea
L1.3 ekintza.	Itsasoarekin lotutako produktuen/zerbitzuen balio erantsia handitzea
L1.4 ekintza.	Itsasoko jarduerekin zerikusia duen prestakuntzan sustatzea
L1.5 ekintza.	Lehendik dagoen itsas ondarearen bultzada eta baliabide berriak sustatzea
L1.6 ekintza.	Itsasoko baliabideen babes eta aprobetxamendu iraunkorra

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L1.1 ekintza Sektorearen egituraketa, itsasoarekin eta itsasertzarekin lotutako sektore guztietako eragileak eta profesionalak bilduz

Hasiera batean Pasaian ezarrita, portuetako erabileretako bilakaerak eta garraioan espezializatzeak eragile zati bat eskualdeko beste puntu batzuetara sakabanatzea eragin du, lehendik portuko esparruaren kanpoaldean zeudenez gain. Itsasoarekin zerikusia duten sektoreen aukera zabala da. Zehaztu beharrik gabe, hainbat sektore aipa daitezke: manipulaziora zuzenduta daudenak, salgaien garraioa eta logistika, portuetako zerbitzuak, maioristak eta arraina eraldatzen duten enpresak, ontziolak, ontzigitzako industria laguntzailea, elektronika, energia, ingeniariak, fabrikatzaileak eta ontzigitzako efektuen merkaturatzaileak, prestakuntza eta ikerketa-zentroak, ondarea, sentsibilizazioa, turismoa, amarratzea, urpekaritza, surfa (fabrikazioa barne) eta kirola.

Eskualdean lurralde mailako banaketak eta horien artean lotura-gabeziak jarduera horren eta lankidetzaren garrantziaren pertzepzioa mugatzen du. Elkarrekiko erlazio maila desberdinak lortu nahi dira multzoaren lehiakortasuna handitzeko, eta ondorioz, baita eskualdekoa ere.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Oarsoaldean itsasoarekin lotutako eragile publiko eta pribatuen elkarketaren/klusterraren bidez pilotzea.

Oarsoalderako jarduera multzoa biltzen duen erakundea osatuz elkarlaneko eta indarguneko loturak sustatzeko aukera dago. EAE mailako klusterra egonik (Euskal Herriko Itsas Foroa), egoitza Bilbon duena, ez da adierazitako jardueraren segmentu guztietara iristen, eta batez ere, dimentsio txikiagoko eragileetara. Sektoreetako asoziazioak ere badaude (ADIMDE, Euskadiko Itsas Industrien Taldekatzea), aurrekoarekin Bilbon egoitza partekatuz, eta GIPORT Pasaia Portuaren Erabiltzaileen Elkarte, batez ere salgaien operadoreetan eta portuetako zerbitzuetan zentratuta. Proposamen honen bideragarritasuna sektorean lortzen den babes mailaren araberakoa da eta komeni da ekimen zehatz bat abiatu arte atzeratzea edo harekin lotzea, esaterako, polo teknologikoarekin.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L1.2 ekintza Teknologia/berrikuntza/sustapen eta jardueren sorkuntzarako eremuak garatzea

Itsasoaren inguruan eragile publiko eta pribatuen pilaketak, aurrez aipatu den moduan, lehiakortasun poloa sortzeko aprobetxatu beharreko potentziala islatzen du. Egungo sakabanaketa, eskualde baitako bai sektore mailakoa, bai geografikoa, zuzendu beharreko faktorea da, ez hainbeste jarduerak leku bakar batean zentralizatzean, baina bai sor daitezkeen berrikuntzako ekosistemaren "bizitza organoetan".

Ikerketako eta prestakuntzako erakundeen arteko potentzialtasuna eta elkarlanak, neurri handiagoan edo txikiagoan aipatuko sektoreei eragiten dienak, proiektuen sorrerak, enpresak eta asoziazioak oso sektore desberdinetan parte hartzeak, berrikuntza mailak handitzea behar dutenak, hub-en bidez landu beharreko jarduerak dira, zehaztapena behar duten jarduerekin, zerbitzuekin, irismenarekin eta instalazioekin. Salgai intermodaleko garraio adimentsua, azpiegituretako hobekuntza, portuko ekipamendua eta kudeaketa, smart port-ak, ontzien eraikuntza, ontzien industria laguntzailea, nautikoa, energia, itsasoko elektronika, akuikultura, itsasoko baliabide biologikoak (arrantza, bioteknologia), itsasertzaren kudeaketa, itsas-ondarea... horiek guztiak dagoen eremu zabala adierazten dute. Pasaiaiko Portuko Plan Bereziak portuan polo hori txertatzea ahalbidetu dezake.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Itsasoko polo teknologikoa osatzea

Hainbat aukera alternatibo edo metagarri planteatu daitezke: Eragileen artean topatzeko eremu bat osatzea (bilera-aretoak, merkataritza-harremanetarako aretoak, auditorioa); eskualdean eskainitako produktuen/zerbitzuen erakusketa, ikerketa eta proiektuak sortzeko eremuak, ikerketaren hedapena, I+G unitateak ezartzea, enpresa-egoitza parke teknologiko moduan, enpresa berrien haztegia... Aurreko garaietan mota honetako proposamenak egin dira, sektore-aukera txikiagoarekin, Jaizkibiak 2009an antolatutako gogoeta-tailerretan (puntuaziorik handieneko proposamena izan zenean) eta La Herrera Herrira proposamenaren baitan (nahiz eta arlorako hirigintza proposamen orokorra izan). AZTI da proposamenaren oinarri nagusia, Pasaiaiko Itsas Arrantza BHLren gertutasunagatik batez ere, eta Herreran kokatzea interesgarria litzateke, baina aukera hobe gisa ezin dira beste kokaleku batzuk baztertu. Dagoeneko badaude eskualdean prestakuntzako eta ikerketako eragileen arteko elkarlan-dinamikak, eta baita atzerrikoekin ere (BC3, Aranzadi, IFREMER eta abar), polo horrek Gipuzkoa eta EAE mailan irismena izateko aukerak zabaltzen ditu.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Ezagutzaren eragileen artean sinergien sorrera bultzatzea (AZTI, Blas Lezo, TKNIKA, Don Bosco....).

Komunean diren lanetarako eta proiektuetarako etengabe koordinatzeko eta ezagutzak trukatzeko tresna ezartzea. Dituzten baliabide materialetan eta giza materialetan parteka eta osa daitezke. Egoitza fisikoa izatea eska dezake, eta itsasoko polo teknologikoaren baitan ezartzea.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Itsasoko ikerketa zientifikoaren hedapen-eremua

Itsas ikerketak Pasaian du Kantauriko kostako puntu nagusia, AZTI-Tecnalia Zentro Teknologikoaren presentziarekin eta 108 langilerekin. Instalazio honek arlo hauetan egiten du lan: itsasoko ekosistemen funtzionamendua, arrantza-kudeaketa iraunkorra, itsasoko eta kostetako ingurumen-kudeaketa, eta baliabideen erabilera eraginkorra (itsasoko teknologia eta teknologia urtarrak). Urtero proiektu adierazgarriak sortzen dira enpresen eta nazioarteko mailako prestakuntza- eta ikerketa-zentroyen inplikazioarekin, baita Europako proiektuekin ere. Duen esanahiarengatik, nabarmendu beharrekoa da aldaketa klimatikoaren intzidentziaren arabera itsasoaren maila neurtzeko homologatutako instalazio bakarra duela. Baliabide horrek guztiak AZTIren inguruko eremu batean (Trintxerperekiko duen hurbiltasunagatik eremuari erakargarritasun berezia emango lioke) egitura litekeen interes zientifiko eta sozial altuko informazioa ahalbidetzen du. Gaur egun, hedapen egituraturako jarduerarik ez dagoen arren, mila pertsona inguruk bisitatzen dituzte urtero ikerketa-zentro honetako instalazioak. Itsasoko polo teknologikoan txerta liteke.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L1.3 ekintza Itsasoarekin lotutako produktuen/zerbitzuen balio erantsia handitzea

Eskualdea arraina deskargatzeko (itsasotik edo errepidetik) eta merkaturatzeko puntu garrantzitsua den arren, prestatu edo eraldatzen den zatia oso murrizta da; horrek sortutako balio ekonomikoaren zatirik handiena beste leku batzuetan gertatzea eragiten du. Gainera, tokian egindako produktuak izateko aukera galtzen da; baita prestatutako produktuak eskatzen dituzten kate komertzialetarako sarbidea ere, eta dagoeneko nabarmena den gastronomia sustatzea. Elikagaien ikerketan puntakoak diren erakundeak egotea, AZTI esaterako, oso aldeko faktorea da. Arrainaren eraldaketa-proiektuetan artisauek jarduerak sustatzea eta handizkako sektorearen inplikazioa, finkatze handikoak, eta eskualdeko produktuen marka-irudia sortzea jarduera gomendagarriak izan daitezke.

Bestalde, jarduerak sustatzeak, ontzi-erakuntza esaterako, portuan ez du ontzitegi irisgarririk, enpresa zehatz bati emakidan emanda daudelako. Ekipamendu hori beharrezkoa da eskualdean dauden sektoreko enpresen eragileratasunerako, egindako ikerketekin bat etorriz. Bestalde, azpiegitura mota horrek (instalazio berean edo proiektu desberdinetan) aukera bat suposatzen du offshore energia-instalazioen zerbitzura bideratutako ontzien eraikuntzan espezializatutako ontziolen kokapenari dagokionez. Sektoreak, offshore energia moten antzera, etorkizun interesgarria du portuetan.

Lurralde arloan, Portuko Agintaritzak, esparrutik kanpoko eremuetan portuari lotutako logistikako jarduera berriak ezartzeko eremuak jartzea eskatzen du; horiek egungo operazioen eta trafikoen osagarriak izango dira. Ekintza hau Plan honen ardatz eta ildo estrategikoetara bideratzea da erronka, jarduera berritzaileak eta balio erantsi handiagokoak eragin ditzaten (ekintza honen helburua) eta lurraldearen birsorkuntzarekin eta enpleguaren sorrerarekin bat egin dezaten; eskualdeko estrategiaren arlo garrantzitsuak dira horiek.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Arraina prestatzeko eta eraldatzeko lantegiaren sorrera babestea

Arraina merkaturatzeko egiturak hornitzeak, esate baterako lonja (Estatuko hirugarrena arrain bolumenari dagokionez), MerkaOartzun eta Lanbarren eta handizka merkaturatzeko enpresa asko egoteak kontrastea eragiten du prestatzen den edo lantzen den arrain-proporzio baxuarekin. Eskualdean, gainera, kontserbetan eta arraina prestatzeari dagokionez (bakailaoa, antxoak) tradizio handia dago eta oso murriztuta geratu da. Merkaturatzeko arraina prestatzen eta ontziratzen duten handizkako enpresa batzuen esperientzia arrakastatsuak badaudela kontuan hartuta, uste da eraldaketa-lantegi bat sortzeko potentzialtasunak badaudela; instalazio horrek bultzada eta sektorea inplikatzeko beharko luke.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

Ontzi-industriarako ontzitegia eta eremuak egotea

Portuan dauden bi ontzitegiak (Zamakona eta Ondartxo ontziolak) ez daude erabiltzeko moduan gainerako eragileentzako (eraikuntza, ontzi-industria osagarria). Ontzitegi irisgarria eta hurbilekoa egotea oinarritzat da Oarsoaldea eskualdeko ontzi-industriarako, 2015ean Gipuzkoako Foru Aldundiak Oarsoaldea Agentziaren laguntzarekin eta eskualdeko 9 enpresaren parte-hartzearekin sustatutako itsas sektorerako balio-kateak identifikatzeko Core proiektuan ondorioztatu zen moduan. Elkarrekin lan egiteko produktu eta aukera-arlo desberdinak ezarri ziren, baina horretarako, ezinbestekoa da aipatutako ontzitegiak edukitzea; egun, enpresaren bat Hendaiakoa ari da erabiltzen. Instalazio mota horiek eta oro har ontzi-industria espezializaturako eremuen instalazioak (eraikuntza aluminioan, ontzitegiak itsasoko energia-instalazioen zerbitzura bideratutako ontzientzat) merkatu posibleak dituzten proposamen gisa planteatzen dira. Proposamen horien bideragarritasuna kontrastatuz, Portuko Agintaritzak uste du bideragarria dela proposamen zehatzak konfiguratzeko baldin badira, bai enpresa interesdunen arteko kontsorzioaren aldetik, bai Bordalaborda eremuan gaituko duten ontziak eraikitzeko enpresa posibleen aldetik.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L1.4 ekintza Itsasoko jarduerekin zerikusia duen prestakuntzan sustatzea

Oarsoaldea erreferentziako eskualdea da lanbide-prestakuntzan eta itsasoarekin zerikusia duten espezialitateetan protagonista da. Batez ere Pasaiaiko Itsas Arrantza BHI bere programarengatik eta Don Bosco bere potentzialtasunengatik, eskualdean ekonomia urdinaren garapenari eskaintzeko bi oinarriko euskarri dira. Sektore ekonomikoen egituraketa eta koordinazio desiragarriak eta lehen adierazitako berrikuntzako hub-ek sinergia argiak sortzen dituzte; horietan, prestakuntza txertatu behar da, eta horregatik, baita enplegu-aukerak ere.

Itsas Arrantza BHIk ikasketa-eskaintza zabala eskaintzen du eta askotan, sektoreari profesionalak eskaintzen dizkiote, baina horrez gain, beste prestakuntza batzuk ere indarrez sartu dira, hain zuzen ere, aisialdiarekin eta ur azpiko jarduerekin lotutakoak. Karga eta deskargako estatuko araudiak Europako zuzentarauetara egokitzearekin, jarduera hauetarako prestakuntza espezifikoa zeregina sustatzen da eta aukera bat zabaltzen da. Estatuan hori eskaintzen duen zentro bakarra dago oraingoz, Gijoneko Itsasoko Prestakuntzaren Zentro Integratua, 2017an lehen titulazioak eman dituen. Bestalde, Don Boscok esperientzia industrial eskain dezake eta garapenean dauden arloetan susta dezake eskaintza, itsas elektronikan esaterako. Bi kasuetan, espezializazio-programen formulak, ezarpen bizkorrekoak, tokiko enpresen beharretara egokitu eta EAEko erakundeen mendekotasun eskusiboarekin, zentro horietako prestakuntza-aukerak sustatzen ditu.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Blas de Lezo Pasaiaiko Itsas Arrantza BHIren prestakuntza-eskaintza zabaltzeko eta sustatzeko aukerak aztertzea

Zentroa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren mendekoa da hasierako prestakuntzari dagokionez, eta Garapen Ekonomikoaren eta Azpiegituren Sailarena, prestakuntza ez arautuari dagokionez. Kantauriko kostan bere espezialitatean erreferente nagusia izanik, potentziala espezializazio-programen bidez gara daiteke, lanbide-heziketako zentro bateratu bihurtzea aurrez ikusita dagoenez. Espezializazio-programak tokiko garapen ekonomikoaren beharretara egokitu daitezke, inguruko enpresetatik eta modu bizkorrean arreta eskainiz. Egungo eskaintza oso zabala da. Prestakuntza-zikloak eskaintzen ditu: mantentze-lanetako teknikaria eta makineria kontrola ontzietan eta itsasontzietan, nabigazio eta itsasertzeko arrantzako teknikaria, ontzien eta itsasontzien makineria mantentzeko antolakuntzako goi mailako teknikaria, goi mailako teknikaria itsas garraioan eta alturako arrantzan, eta ur azpiko operazioen eta operazio hiperbarikoen teknikaria. Itsas espezialitateko ziurtagirietarako (segurtasuna, suteak, radarra...) prestakuntza ere eskaintzen du, merkataritza-ontziteriako titulu profesionalak (patroia, marinela), arrantzako titulu profesionalak (kapitaina, kostaldeko patroia) eta osasun-prestakuntza. Baita aisialdirako itsas titulazioak ere. 5.000 m²-ko eraikina du, baita eskola-ontzi bat eta erreskateko arrantzontziak ere. Gaitasun horiek itsas arkeologiaren moduko eremuetara hedatu daitezke edo kargako titulazioetarako erreferentzia-zentroa izan daitezke.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Don Boscok arlo honekin lotuta duen potentziala garatzea

Ikastetxeak automozioa, kimika eta papera, elektronika eta telekomunikazioak, mekatronika, eraikuntza metalikoak eta soldadura, hotza-beroa eta klimatizazioarekin zerikusia duten espezializazioetan oinarritutako prestakuntza-eskaintza du. Horietako batzuek itsas sektorearekin du zerikusia. Ikastetxeak Muntaketa eta Mantentze-lana eta dronen garapena proiektu berritzaileak ere baditu; hala ere, uretako dronena dago buruan. Gaitasun eta baliabide zabalei esker, itsas jarduerarekin zerikusia duen prestakuntza garatzeko potentzial handia izateko aukera dago, esate baterako, bilakatzen ari den itsas elektronika, eta ekoizle gutxi dago merkatuan EAEko erakundeen baimena behar duten espezializazio-programen modalitateak eskaintzen dituen potentzialtasunak ere ugariak dira, erraz ezartzen dira eta tokiko enpresen beharretara egokitzen dira.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Nabigazio tradizionalako eskola

Laster martxan jartzea aurrez ikusten da eta publikoari zabalduko ikastaroak eskainiko dira; era berean, familiei, taldeei, enpresei, partikularrei eta ikastetxeei zuzenduta ere egongo dira. Arraun- eta bela-ontzi tradizionalak erabiliko dira: traineruak eta batelak. Itsas ondarera egingo den hurbilketa praktikoa izanik, hedatzea eta aisialdirako erabiltzea ahalbidetuko du; gainera, ontziak erabiltzeko kualifikatuko da. Pasai Donibaneko lehengo hiltegian kokatu beharreko Albaolaren ekimena da, Udalak lagatakoa eta Santiago plazako ontzietako ainguratokietatik hurbil.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Erriberako Arotz Eskola

Aprendiztegi Nazioarteko Eskola Albaolaren ekimena da. Bertan ari dira lanean martxan jartzeko helburuarekin, ontzian egiten den lana oinarritzat hartutako ezagutzak transmititzera zuzenduta, fabrikazioko fase guztietan parte hartuz, eta nazioarteko adituen elkarlanarekin. 18 pertsonako edukierarekin eta hiru ikasturteko iraupenarekin planteatzen da (ikasturteko 6 pertsona). Eskolaren nazioarteko izaerak kultura aniztasuneko testuingurua eskaintzen du; bertan, elkarbizitzako eta desberdinarekiko errespetuaren balioak garatzen dira. Era berean, jendeari begira lan egiten ikasten da, eskolaren lana balioetsiz. Jatorri desberdinetako 52 pertsona dauden itxaron zerrendan.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L1.5 ekintza Lehendik dagoen itsas ondarearen bultzada eta baliabide berriak sustatzea

Alderdi honetatik ere eskualdean puntako jarduerak garatzen dira; horien aurrerapenak eta eremuak eskualdeko espezializazio oso nabarmenean pentsatzea ahalbidetzen dute. Lehendik dauden ekipamenduak sustatzea, zabaltzea, baliabideak dibertsifikatzea eta baliabide berriak balioestea, ekitaldien programazioa, sareak sortzea... jarduera horiek guztiek eragina dute diru sarrerak sortzen, sektore turistikoari laguntzen eta osatu beharreko berrikuntzaren konglomeratuan beste sektore baten moduan parte hartzen.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Itsas Kultur Faktoriaren bultzada

Euskadiko Itsas Faktoriak, 2016an, ia 50.000 bisitari jaso ditu, jarduera San Juan baleontziaren eraikuntzan oinarrituz, baina baita hainbat jarduera antolatuz ere. Ikerketa-zentroekin, prestakuntza-zentroekin, tokiko arloko eta nazioarteko erakunde publiko eta pribatuekin, eta ekimenekin ari da elkarlanean Hauek dira Albaolaren helburuak: Euskadiko itsas ondarea berpiztea; ikerketaren eta arkeologia esperimentalaren bidez dagoeneko desagertutako artisau-ofizioak eta ontzi historikoen ontzi-eraikuntzaren teknologia berreskuratzea, balio ematea eta tokian eta nazioartean hedatzea kultura desberdinekin konektatuz. Urteko aurrekontua milioi bat euro ingurukoa da (publikoa eta pribatua % 50ean). 20 pertsona baino gehiagoko zuzeneko enpleguarekin, 3 milioi euroko zeharkako inpaktu ekonomika eragiten du.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Mater Museoaren bultzada

ItsasGela asoziazioari dagokio eta urtean 7.000 bisita inguru jasotzen ditu. Atunketa-itsasontziari bisitak antolatzeaz gain, ibilbide gidatuak, tailerrak, heziketa-programa, itsasorako irteerak, ekitaldiak eta ekajarduerak ere egiten dira. Prestakuntzako eta ikerketako erakundeekin ari da elkarlanean eta Kostako Ekintza Taldearen parte da. ItsasGela asoziazioak tokiko garapen iraunkorrari laguntzeko sentsibilizazioa bultzatzea du helburu, aberastasun-iturri osagarriak eta arrantza- eta kultura-ondarearen aktibazioa eragingo duten kultura eta turismo kulturala sustatuz.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Jaizkibel draga

60 metroko luzera duen itsasontzia, arrosario-draga motakoa, ugoitzekin, 1933tik (Euskalduna Ontziolan eraiki zen urtea) 1983ra jardunean aritu zena portuaren sakonera mantentzen. Interes Kultureleko Ondasun aitortu zuten Monumentu kategoriarekin 1992an (Estatuko lehen itsasontzia) eta Kultura Ministerioaren Ondasun Industrialeko Plan Nazionalean (2011) sartuta dago. Degradazio-egoera larrira iritsi ostean, 2012an zaharberritu zen Pasaian 640.000 €-ko kostuarekin (Portuko Agintaritzaren, jabearen 400.000 €, Foru Aldundiaren 140.000 € eta Eusko Jaurlaritzaren 100.000 €). Erakusteko eta bisitatua izateko pentsatu zen, baita tailer-eskola funtzioak egiteko ere. Hala eta guztiz ere, gaur egun, Ondartxoko ontzitegian (San Pedro) dago uzte-egoeran eta ostera ere degradazio fasean. Itxura denez, GFAko Kultura Sailaren proposamen bat dago 2022. urtean (urte horretan amaitzen da portuko egungo emakida) Ondartxoko egungo instalazioak zabaltzeari ekiteko, eta bertan sartuko litzateke itsasontzia, Portuko Agintaritzak lagata. Ondare industrialeko eta itsas ondareko baliabide garrantzitsua izanik, etorkizunari buruzko zehaztapen bat behar da. Are gehiago une konplexu honetan eta babestutako ondasunetan salbuespena ez dela kontuan hartuta.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

ItsasGune- Pasaiaiko Badiako Itsas Baliabideen Zentroa (Pasai Donibane)

Mater Museoaren ekimena, museo komunitarioaren sorrera proposatzen duena, herritarrek eta Pasaiaiko erakundeek eskainitako itsas baliabide materialak (objektuak, argazkiak eta abar) eta ez materialak (testigantzak, abestiak eta abar) bildu, mantendu eta hedatuko dituena. Itsasoarekin zerikusia duten lanbideen erakusketa egitea. Funtzio anitzeko eremua gaitzea, produktu tradizionalen topagune eta salerosketa gisa jardungo duena. Gainera, proiektu eta produktu berrien diseinua sustatuko du. Bestalde, ekintzailetzarekin, informazioarekin eta dokumentazioarekin zerikusia duten beste jarduerak batzuk hartzen dira aintzat. Uste da lehengo udaletxearen eraikina leku egokia litzatekeela, Santiago plazan.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L1.6 ekintza Itsasoko baliabideen babes eta aprobetxamendu iraunkorra


Baliabide baten erabileraren iraunkortasuna eta horren ulergarritasuna ezin dira bereizi, elkarren artean lotuta dauden multzoak baitira. Horrela ulertzen da ingurune naturalaren kontserbazioa eta kudeaketa, itsas ondarearen moduan, baita Europar garatzen diren itsas lehiakortasuneko poloen kide gisa ere. Oarsoaldearen kasuan, itsas fatxada, bokalean ondo identifika daitezkeen “fiordoa”, ondare aberatsa da, eta itxura guztien arabera, alderdirik bereizgarriena. Itsasertza kudeatzeko tresnak erabiltzeak, itsas baliabideen antolaketa eta mantentzea esate baterako, eta aprobetxamendu bateragarriak, erabilera tradizionalak, ikerketan, turismo ekologikoan eta kulturean eta lurraldearen irudi orokorrean modu positiboan eragiten dute.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Jaizkibel-Ulia itsas eremu babestea

Itsasertz zati honetako itsas baliabide naturalen balorazioa eta garrantzia ondo bermatuta geratu da egindako ikerketa zientifikoetan (horien artean, OCEANA Fundazioa eta Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala eremu hau babestearen aldekoak dira). Babes-erregimen bat lortzea proposatzen da, gaur egun eremu horien itsasertzearino iristen den eremu babestua zabalduko duena (Natura Sarea 2000 Modu Berezian Zaintzeko Eremua) edo Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko Administrazioaren inplikazioa lortuko duten beste aukera batzuk, bakoitza bere kompetentzia arloan, dagozkien eragileez gain.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Badiako eta Oiartzun ibaiko urak degradatzen dituzten hondakin-uren isurkinak ezabatzea

Saneamendu-sistemetan aurrerapenak egon dira; Pasaiaiko Portuko Agintaritzak portuko eraikin guztien saneamendu-sareari egindako konexioa eta, Zentral Termikoaren lurzoruan antolatzen ari den kai berrian, euri-uren bilketarako instalakuntzen aurreikuspena azpimarratu daitezke Saneamendu-sistemetan egindako aurrerapenak garrantzitsuak diren arren, Pasaiaiko badiara eta Oiartzun ibaira botatako isurkin jakin batzuen konponbidea topatu gabe dago oraindik. Horiek uraren kalitateari eta erabilerari eragiten diote, eta horrelako oinarritzko azpiegiturarik ez duten jarduerak egitea baldintzatzen dute. Donibane nukleoak badiara isuritako zuzeneko isurkinak aipatu behar dira, portuetako kaietatik eta instalazioetatik etorritakoak, Txingurri errekek ekarritako kutsadura (Hospitalillo kaian) eta Oiartzun ibaian isuritako isurkinak (Iztietan eta Niessen azpian isurtzen diren estalitako erreketara botatako isurkinak), baita ibai-adarretara isuritakoak ere (Bakarraiztegi-Lintzirin erreka).



2. Ildo Estrategikoa

Industriaren eta zerikusia duten zerbitzuen garapena eta birsorkuntza sustatzea

Justifikazioa

Industria sektore estrategikoa izan da Oarsoaldean eta hala izaten jarraitu behar du, enpresa eragile handiak desagertu diren arren. Jarduera ekonomikoetako industrialde askotako kalitate urbanistiko, antolamendu eta hornidura-eskaintza eskasa eta kalitate txarrekoa zuzendu egin behar da; era berean, eskuragarri dagoen lurzoru-eskaintzarako sarbidea eta ezagutza erraztu behar da. Eskualdeko estrategia propioaren bidez, industria lehenetsitako aukera gisa garatzea da helburua, lehendik dagoen "habitata" zabalduz eta hobetuz, baita ekimen berriak erakartzea ere.

Berrikuntza-adierazleek, beren jarduera arloetan oso nabarmenak diren enpresak alde batera utzita, enpresen barruan ere esku hartzea beharrezkoa dela azaltzen dute, produkzio-egituraren muinak maila igotzea ahalbidetuko duten proiektuekin, betiere, enpresa-kulturan etorriko diren aldaketa esanguratsuetatik kanpo ez geratzeko. Enpresei zuzendutako zerbitzuak hobetzea, baita sektorearen beraren maila ere, formula eraginkorrek eta erakargarriak erabiliz.

Ildo partikularretik, eta birsorkuntzan eragiten duten eta, gainera, aberastasun-iturri potentzialak diren sektore gisa, ekonomia zirkularra identifikatu da, eta horren baitan, hondakinak eta energia.

L2.1 ekintza.	Lehentasunez industria sustatzera bideratutako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskualde mailako estrategia ezartzea eta inplementatzea
L2.2 ekintza.	Eremuak/Industrialdeak osoki birsortzea, jarduera urbanistikoak, hondakinak, energia, mugikortasuna partekatutako ekipamenduak txertatuz
L2.3 ekintza.	Jarduera ekonomikoen industrialdearen informazioa eta kudeaketa sustatzea
L2.4 ekintza	Maila guztietan enpresen arteko lankidetzeta eta enpresa-jardueraren jarraipena bultzatzea
L2.5 ekintza.	Zerbitzuen sektorea industrian birkualifikatzea
L2.6 ekintza.	Berrikuntza industrialerako eta ekintzailatza industrialerako tresnak eta eremuak sortzea
L2.7 ekintza.	Industria kreatiboetara eta kulturalerako mesede egiteko eremu-sare bat gauzatzea
L2.8 ekintza.	Ekonomia zirkularrekin zerikusia duten jardueren garapena
L2.9 ekintza	Enpresa-eredu berriak ezartzea sustatzea, pertsonen partaidetzan, erantzukizun sozialean eta iraunkortasunean oinarrituta

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L2.1 ekintza. Lehtasunez industria sustatzera bideratutako jarduera ekonomikoetarako lurzoruen eskualde mailako estrategia ezartzea eta inplementatzea

Gaur egun, Oarsoaldean lurzoru industrialaren eskaintza hainbat faktorek baldintzatzen dute eta tamaina jakin batzuetako mota orotako ezarpenei eragiten die (1000 m2 baino gehiagoko eraikitako azalera):

- Udal plangintzetan industrial gisa kalifikatutako lurzoruak garatzeko benetako bideragarritasuna falta da.
- Lurzoru berberengatik lehian aritzen diren erabilera komertzialen (azalera handiak, handizkako eta txikizkako komertzioa tamaina ertain-handikoa, automobilen kontzesionarioa eta abar) eta garraio jardueren (martxan edo proiektuan) presioa; kasu batzuetan, lurralde-plangintzak berak zaintzen ditu.
- Jabetzak blokeatutako eskaintza, saldutako lursailak inaktibo edo erreserba gisa mantenduz, eraiki gabe daudenak eta lursailak industrialdeetan.
- Industrialdeen degradazioa, kalitate baxua eta ekipamenduen eta zerbitzuen defizita, nolabaiteko eskakizuna duten jardueretarako erakargarritasun eskasa zehazten duena.

2016ko uztailetik, Sprilur eta Oarsoaldea Agentziaren artean inbentarioa egin zen datatik, okupatutako lokalen hazkunde garrantzitsua antzeman da. 500 m2 gainditzen dituzten lokalen eskaintza oso mugatua da merkatuan. Libre dauden azalera handienak Egiburuberrin (Errenteria), Lintzingainan eta Lanbarrengainan (Oartzun) daude eta lursail publiko bat eta zabaltze bat Iturrin-Gaintxurizketan (Lezo), baita industrialdeetan, pabiloietan eta hutsik dauden lokaletan aurki daitezkeen txikizkako eremuak ere.

Bistakoa da industria Oarsoaldean garatu ahal izateko, beste elementu batzuen artean, horretarako gaitutako eremuak behar dituela, ezaugarri onenekin eta arrazoizko kostuarekin. Gorago adierazitako faktoreen bilakaera naturalak ez garamatza pentsatzera egoera horiek gertatuko direnik, gurtiz kontrakoa baizik.

Hori dela eta, beharrezkoa da egoera aldatuko duen eta jarduera industrialari, mantentze-lanari eta ezarpen berriei mesede egingo dien eskualde mailako lurralde estrategia propioa egitea. Estrategia hori egiteko eta 2016an egindako inbentariotik abiatuta, industrial gisa kalifikatutako eta praktikan bideraezinak diren lurzoruei buruzko erabakiak hartu behar dira; baita saldutako eta inaktibo eta eraiki gabe dauden lurzoruei buruzkoak ere (instalaturako enpresak hedatzeko erreserba gisa eskuratutakoak izan ezik); eta erabilera industrialerako eta birgaitu beharreko eremuetarako berriz erabil daitezkeen lurzoruei buruzkoak (hurrengo ekintzarekin lotzen da); eta nola ez, eskualdean gaituta dauden lurzoru baliabideei eta erabilera industrialerako duten orientazioari buruzkoak: logistika erabilera izateko aukera duten lurzoruetan, sinergiak dituzten industria-jarduerak garatzeko aukerei buruzkoak. Gomendagarria da estrategia honek ezarri beharreko tipologiari eta jardueri dagozkien helburuak txertatzea, baita Plan Estrategiko honetan zehaztutako ildo orokorrekin lotuta ere.

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L2.2 ekintza. Eremuak/Industrialdeak osoki birsortzea, jarduera urbanistikoak, hondakinak, energia, mugikortasuna partekatutako ekipamenduak txertatuz

Lehendik dauden industrialdeetatik abiatuta, kalitatezko industrialdeak lortu nahi dira, derrigorrez lurzoru berriak kontsumitu gabe; horrela, dagoeneko ezarritako jardueri ere mesede egiten zaie. Industrialde guztiei edo mailaz maila zuzendutako planaren bidez jardutea, egindako esperientziak ikaskizun gisa erabiliz. Instalaturako enpresen iritzia eta beharren identifikazioa oinarritzeko alderdiak dira.

Industrialdeen birsorkuntzak tradizio luzea du Holanda eta Erresuma Batuen moduko herrialdeetan, 90eko hamarkadara egin behar da atzera. Aukerak anitzak dira, itxura estetiko hutsetik hasi, eta industrialdearen beraren azpiproduktuen eta hondakinen, energiaren, eremu komunaren, irisgarritasunaren, paisaia-tratamenduen, ingurumenaren berrerabilera ahalbidetzen duten osoko jardueretara arte. Jarduera horien bideragarritasuna ekarpen publiko eta pribatuetan oinarritzen da, erregistraturako kasuistakaren arabera parte-hartze desberdinekin.

Oarsoaldearen kasuan, egoerak batez ere arlorik oinarritzkoen gainean jarduteko beharra islatzen du, arlo urbanistikoak edo paisaia arlokoak; horrela, irismen handiagoko helburuak landuko dituzten eremu zehatzetan aitzindariak diren proiektuetan lanean hasi ahal izango da. Ildo horretatik, sinbiosi industrialeko proiektuek interesa dute hondakinak, energia, biltegitratzeko eremuak eta abar landuz.

Instalaturako enpresei mesede egiteaz gain, horrela, kalitatezko segmentuetan jarduera industrialerako eremu berriak sortzen dira.

Ekintza honekin loturiko aipaturako proiektuak

L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Industrialde bat birsortzeko jarduera pilotua (Iturrin, Lezo)

Sprilurretik, erabilerarik gabeko lurzoru industrialak birsortzeko esperientzia desberdinetan ari dira lanean. Enpresa berrietara bideratutako lurzoru bihurtzea da helburua. Oarsoaldean, Lezoko Iturrin industrialdea birsortzea da helburua. Industrialdeak, Oartzunen mugakidea denak, irisgarritasun-arazoak ditu Lanbarreneko biribilgunetik; ekipamenduko eremuak ez dira garatu, bideak egoera txarrean daude eta pabiloiak degradatuta. Aukera-eremuak diren heinean, azalera bat du foru-titulartasuneko industrialdearen baitan, baita lursail berriak ere, inguruan sortzen direnak, Lezoko HAPOren Gaintxurizketa AOU 36 arlo berriaren zati bideragarriari dagokiona. Sprilurrek dagoeneko egindako lanean, oinarritzotzat hartzen da enpresen iritziak eta beharrak biltzea; zeregin hori 2017ko maiatzetik ari dira egiten eta arloaren multzoa birsortzeko aukera izan daiteke.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

XX. mendeko garapen industrialetan Paisaiako Ekintza Planak egitea eta aplikatzea

Paisaia-irudirako neurriak zehaztea eta aplikatzea, fatxadak hobetzeko araudiak, urbanizazio-baldintzak, beste garapen batzuekiko harremana, moteltze-eremuak eta abar. Eskualdeko udalerrri guztietan aukera bat baino gehiago izanik, Paisaiaren ekintza-planak egitea jardueren diagnostikoa eta zehaztapena egiteko tresna gisa erabiltzeko aukera dago, horrela ezarri zen 2014ko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolakuntzan paisaia babesteari, kudeatzeari eta antolatzeari buruzkoan. Planen bideragarritasunari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak esleitzen ditu urtero, planak sortze lana finantzatzen laguntzeko, baina ez planak gauzatzeko. Tresna hori bera biltzen da bizitegi-eremuei zuzendutako atalean.



L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Sinergien bulego bat sortzea eta industrialde batean sinbiosi industrialeko jarduera pilotu bat garatzea

Eskualde arloko sinergien zerbitzua edo bulegoa sortzea, enpresei beren baliabide soberakinak hobeto aprobetxatzen laguntzeko (hondakinak, beroa, eremua pabiloian, garraioa) kostuak murrizteko eta irabaziak handitzeko beste enpresa batzuekin elkarlanean. Eskualdeko jardueren multzorako proiektu zehatz bat gauzatzeko; bertan, sinbiosi industrialak sustatuko da bere alderdi guztietan; horrela, eremua bere iraunkortasunarengatik eta eraginkortasun ekologiko eta ekonomikoarengatik kualifikatuko da. Proposamen honen gaineko bideragarritasuna eta aurreikuspenak San Marcos Mankomunitateak bere zerbitzuetan material horien gainean eskaintzen dituen irisgarritasun mailari buruzko kontsultarekin kontrastatu behar dira.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L2.3 ekintza. Jarduera ekonomikoen industrialdearen informazioa eta kudeaketa sustatzea

Jarduera ekonomikoko arloak materialki hobetzeaz gain, horien irudia txukuntzea komeni da, informazioa eskaintzea, eta eskualdeko ekonomiarako interesgarriak diren jarduera berriak erakartzeko gaitasuna handitzea.

Jarduera berriak erakartzea errazteko, informazioa da lehen tresna, industrialdeei eta lursailen eta pabiloien eskaintzari buruzko datu kualitatiboak eskainiz.

Landu beharreko bigarren arloak industrialdeetan garatutako jardueren arteko barne laguntza eskasari aurre egin nahi dio, baita erakundeekin hitz egiteko gaitasun-faltari ere. Mantentzeko erakundearen figura da egokiena.

Gerentzia bati esleitutako industrialde bakoitzaren funtzio kudeatzailea izan daiteke enprekin erlazionatzen den tresna, haien eskaerak eta proposamenak biltzen dituena, bertako elkarlana eta jarduerak dinamizatzen dituena, zerbitzuaren hornitzaileak diren administrazioekin eta eragileekin erlazionatzen dena, proiektuak planteatzen dituena, diru-laguntzak bildu eta abar.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Industrialdeen araberako datuak eskaintzen dituen informazio bateratuko sistema ezartzea

Enpresei eta industrialdeei buruzko informazio-iturri desberdinak dauden arren, ezartzen ari diren enpresa posibleetarako ez dira datu interesgarriak erreferentzia gisa hartzen, esate baterako, lurzoruaren erabilerak, tipologia, industrialdearen zerbitzuak, ibilgailu berezietarako irisgarritasuna, aparkatzea, hirigintza-araudia, eta lokalak eta pabiloiak alokatzeko eta saltzeko eskaintza zehatzak. Oarsoaldeak (Debarrenarekin eta Goierriarekin batera) GEIS du (Informazio-sistema Geografiko Enpresariala), aipatutako arloak bete gabe utziz. Kontuan izan beharreko erreferentzia bat da Bages industrialdeetarako Bageseko Eskualdeko Consell-ek (Bartzelona) eskainitakoa.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Lankidetzako ereduak sustatzea, mantentzeko erakundeak esate baterako

Arazoak konpontzeko egoera indibidualen gainean (zerbitzuak, sarbideak, birsortu beharreko eremuak, saneamendua, elkarrizketa) aurrera egitea eta aukerei aurre egitea da helburua, enpresen artean eta administrazioekin batera eraginez. Mantentze erakundea da figura egokiena eta beste lurralde batzuetan ekimen zehatzak antzeman dira (Kanaria Handia, esate baterako); horiek defendatzen ari dira (udal-teknikarien eta enpresen ikuspegia hartuz) eta azterketa juridikoak egiten, erakunde publiko-pribatuen konfigurazioa zabaltzeko protokoloa sortzeko, arlo bakoitzeko mantentze-baliabideak kudeatzeko eta eremu bakoitzeko lehentasunak modu bateratuan zehazteko. Garatutako esperientziak arrakastatsuak direla aintzat hartuta, 2018an lurralde horretako hainbat industrialdetara zabalduko dira.



L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Industrialdeen gerentzia funtzioa ezartzea

Industrialdeko enpresek, erakunde publiko batek edo bi alderdien parte-hartzearekin izendatutako funtzioa ezartzea. Erreferentzia gisa, arlo industrialetako gerentzen funtzioa Valenziako Komunitateko arlo industrialetako legearen zirriborroan biltzen da eta arlo horiek kudeatzeko kargu profesional espezifikokoaren sorrera hartzen da aintzat. Horrek jarduera honetarako enpleguaren sorrera esan nahi du. Bi hilabeteko ikastaroak egingo dira, berrikuntza-prozesuetan, lehiakortasunean eta iraunkortasunean prestakuntza espezifikoarekin; kudeaketa ekonomikoa eta komertziala; berrikuntza; ingurumena; hirigintza; erosketak; enpresen arteko lankidetzak; informazio-sistemak eta teknologia berriak. Eskualdean, dimentsio murriztua duenez, funtzio horiek Oarsoalde Agentziak har ditzake, gauzatu ahal izateko beharrezko zerbitzuak egituratuz.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L2.4 ekintza Maila guztietan enpresen arteko lankidetzeta eta enpresa-jardueraren jarraipena bultzatzea

Enpresen neurri txikia eta enpresa bultzatzaileen presentzia txikia direla eta, lankidetzeta da irtenbide bakarra. Zuzeneko lehiarekin aliantzak ezartzea konplexua den arren (batez ere merkatu zehatzaren baitan), posibleagoa da lankidetzeta beste bitarteko batzuen bidez irisgarriak ez diren bezero eta merkatuei arreta emateko. Ildo horren baitan, balio-kateak osatzea, kanpoko merkatuetara sarbidea izatea edo elkarrekin lana egiteko helburua duten enpresa-sareak ezartzea dirudite bide irisgarrienak.

Erretiroak eta enpresetan ondorengotzarik ez izateak jarduera etetea eta hauen desagertzea eragiten ari da. Egoera hori ez da soilik mikroenpresen kasuan gertatzen, eskualdeko industria-egituraren oinarri diren 10-15 enpleguko establezimenduetan ere hauteman baita. Jarduera mantendu ahal izateko, beharrezkoa da partaide berriek edo langileek belaunaldien jarraipena eta erreleboa ahalbidetuko luketen formulak bilatzea.

Gainera, dokumentuko beste atal batzuetan ikus daitekeen moduan, besteak beste honako hauen inguruan aurrera egitea planteatu da: asoziazionismoa, berrikuntza-gune komunetan parte hartzea, industria-sinergia eta industrialde bereko erakundeekin koordinazioa, besteak beste.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Eskualdeko balio-kateak sustatzea

Enpresa balio-katean berriro posizionatzea da xedea. Horretarako, ordea, honako hauek egin behar dira: enpresa parte-hartzaileen balio-kateak identifikatu, enpresak bertan posizionatu, egungo eta etorkizuneko oinarriko konpetentziak identifikatu, enpresen arteko lankidetzeta-prozesua ezarri, elkarlaneko eskaintza berriak sortu. 2015ean, Agentziak, "CORE: balio-kate diferentzialak Oarsoaldean" txostenean sustatu zuen, itsasoko ontzi sektoreak, ekonomia kreatiboa, eta kautxua eta plastikoa aukeratuz. Sektore horietan identifikatutako 123 enpresetatik 32k hartu zuten parte. Aukeraren emuak, indar bateratua eta merkaturatzeko proiektuak zehaztu ziren. Aztertutako kateetan proiektu komunak planteatu ziren: arrain-haztegi/industrialde akuikolak, aluminiozko ontziola, smart ports, ontzitegi-proiektua, hotz-fabrikak, ontzien birziklatzea-desegitea, off shore, instalazioak lehorrean, itsas energien lobbya, instalazio industrialen mantentze-lana.



L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Laguntza proaktiboa ondorengotza enpresarialari

Erretiro-garaia iristen denean, itxi egin behar izaten dituzten enpresen jabeago transmisioak inplika ditzakeen arazo juridikoei, antolaketa arlokoiei eta finantza arlokoiei aurre egitea da helburua. Bertako langileei transmisioa egitea eta kooperatibak sortzea dira irteera posible batzuk, baita eragile berriak sartzea ere. Laguntza-proiektuak eta proiektu pilotuak egonik, beharrezkoa da arazoarekin identifikatzen diren enpresen gainean modu proaktiboan jardutea; izan ere, ezagutza-gabezia eta denbora-falta dela eta, ez dira erakundeen laguntzak bilatzen.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L2.5 ekintza. Zerbitzuen sektorea industrian birkualifikatzea

Orsoaldeko egitura ekonomikoak ahulezia nabarmena erakusten du berrikuntza mailatan eta sektoreen hazkunderan, esate baterako, azalera komertzial handietan, eta oro har kualifikazio baxuko zerbitzuetan. Donostiak eta Bidasoa Beheak enpresei zerbitzuak eskaintzeko jardueretarako duten erakarpenak lurralde-espezializiorantz garamatza, eta bertan, Orsoaldeak lehiatzeko zailtasunak ditu. Hala eta guztiz ere, sektorea oinarrizkoa da eskualdeko enpresek dituzten enpresen arteko elkarlaneko defizitak, ikerketa, produktuen diseinua, informatika eta arlo desberdinetako aholkularitza estaltzeko; oro har, dimentsio txikikoa, azpikontratatzailerak eta egitura teknikorik gabeak.

Aipatutako zailtasunez gain, eskualdean zerbitzu-enpresen eskaintza egon ohi da; oro har sakabanatua, eta sustatu beharreko elementua da. Lokalen kostu baxuagoak eta kokapen egokiak jarduerak ezartzen lagundu dute; horrela, inguruko lurraldeekin lehiatzeko aukera dute. Bestalde, eskualdean kokatutako enpresek zerbitzu aurreratuen inguruan egindako eskaerei dagokienez, beharrak antzeman dira. Zerbitzu horien estalduran eta arreta eman ahal izateko gaitasunean Orsoaldeko enpresek ere parte hartzea nahi da, sektorea sustatzeko lagungarri izan dadin.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Mamut bulego-erakina zerbitzu-enpresen zentro gisa bultzatzea

Gaur egun, hainbat jardueratako 85 enpresa inguru (ingeniaritzak, informatika, arkitektura, ingurumena, elikadura-ikerketa, zinema, komunikazioa, bidaiak, notaritza eta abar) eta Orsoalde Agentziako egoitza nagusia eta bertako enpresen zentroa (enpresetarako moduluak, bilera-aretoa, prestakuntza, sustatzaileen aretoa) eraikin komunean daude (Mamut). Eskualdeko jatorria izanik edo kanpotik etorrira, egun, 300 enplegu inguru daude instalazio batean. Egun, 40 lokal inguru ez daude aktibo eta modu naturalean garatu da, Agentziaren instalazioetan hasitako enpresen finkapenean modu positiboan parte hartuz. Gaur egun "Mamut merkataritza-zentroko Bulegoen Eraikin" gisa ezagutzen den komunitatea, oso ondo kokatuta dagoena eta aparkatzeko lekua duena, zerbitzu kualifikatuetakoen enpresen zentro bihurtzeko potentzialtasuna identifikatzen da, identitatea eta irudia eskainiko luke, erabilera komuna egiteko ekipamenduak izanik eta ingurune hurbileko industrialde garrantzitsuetako enpresak erakarriko lituzke (bilera-aretoak, telekonferentziak, showrooma eta abar). Orsoalde Agentziaren kokapena elementu bultzagarria eta zentro horren kudeatzailea izan daiteke, jarduera publikoen eta pribatuen finkatzearekin. Instalazio multzoaren jardueraren hurrengo legezatztea aurrera egiteko inflexio-puntua izan daiteke.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L2.6 ekintza. Berrikuntza industrialerako eta ekintzailtza industrialerako tresnak eta eremuak sortzea

Jarduera industrialean dagoen beheranzko joera eta Orsoaldeako ekonomian duen gero eta garrantzi txikiagoak laguntza-neurriak aplikatzea eskatzen du arlo guztietan. Berrikuntzarekin lotutako ahulezia da eskualdeko enpresen bigarren ezaugarria. Horrekin lotuta, enpresen dimentsioa eta horien egitura baldintzatzailea izan ohi da eta tresna egokiekin aurre egin behar da. Derrigortutako elkarlana erabilera komuneko eremuak sortuz eta berrikuntza sustatzera eta enpresetara iritsaraztera zuzendutako tresnak sortuz susta daiteke.

Jarduerak hona zuzenduko dira:

- Eragile teknologikoen eta prestakuntza arlokoen, erakundeen eta enpresen arteko harreman-eremuak konfiguratzeko.
- Elkarlan teknologikoko sareak eta zerbitzuekin lotutakoak (maila guztietan) sustatzea.
- Eremuak hedatzeko jarduerak eta ekitaldiak antolatzea. Erreferentziazko hizlarietara jotzea, arlo zehatzetan espezializatzea (prestakuntza, teknologia eta emakumea, teknologia eta gazteria, teknologia eta gizarte-ekintzailtza).

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Habian Berrikuntza Gunea

Erreterian enpresek, prestakuntza-zentroek, eragile teknologikoen, udalek eta garapen-agentziek eta beste eragile batzuek osatutako eremua kokatzeko proposamena da. Helburu nagusien artean, enpresa-dibertsifikazioa, berrikuntza teknologikoa eta merkatuena sustatuko duten ekimenak bultzatzea da; horrez gain, baita ere enpresen arteko lankidetzak, prestakuntza-zentroena eta dinamizazio-eragileena, eta lehiakortasuna bultzatzearekin lotutakoa. Laguntza-sareen sorrera sustatu nahi du, kompetentzien garapena eta balio-kateak, eta helburu zehatzen artean dago prestakuntza-zentroen eta enpresen arteko ideien transferentzia hobetzea, baita I+G-n enpresa-inbertsioa handitzea, enpresetan teknologia berrien txertaketa sendotzea, aukerak eta proiektuak identifikatzea ezagutzan intentsiboak diren sektoreetan, eta eskualdeko klusterren estrategia sendotzea ere.



L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6


Sormena industriarekin lotzen duten ekimenak

Ekonomia kreatiboari zuzendutako laneko mahaitik sortutako proposamena. Berrikuntzarako sormenaren kontzeptu tradizionala zabaldu nahi du; horrela, jarduera fabrikazio-prozesuaren baitan txertatuko da. Teknologiak, profil profesionalak eta diseinuarekin lotutako kanpo zerbitzuak industriara eramaten laguntzen du; eremu berritzailea da, sektore kreatiboaren jardueraren zerumuga nabarmen zabal dezakeena. Diseinu industrial kreatiboak edo artearen eta industriaren arteko loturak proposamenara hurbiltzen diren kontzeptuak izan daitezke. Gauzatu ahal izateko formulak ez da aurrera egin.



Auditoria digitalak eta Zerbitzu Aurreratuen Sarea

Talaios Koop-en proposamena da, Plan Estrategikoari egindako ekarpenetako bat. Enpresak teknologikoki duten maila baxuari aurre egin nahi zaio proposamen honekin. Bereziki larria dirudi honek, Industria 4.0 eta zerbitzu aurreratuak nagusi izan beharko duten proiektio batean. Auditoria zehatzago bat eta beharren detekzioa egingo duen azterketa bat egitea beharrezkoa dirudi. Eskualdearen kapazitate teknologikoaren azterketa zehatz bat egitea proposatzen dute lehenik. Ondorioekin, agertu diren beharren azterketa egin ondoren, zerbitzu batzuen sorkuntza edo eskaintza egitea aurreikusi daiteke. Bestalde, lurraldean dauden, adibidez Torrekuan (Skura-SKR solutions, Talaios-Tanit...) teknologiarik lotutako agenteen esperientzia baliatuz, komertziora zein industriara bideratutako produktuak eta zerbitzuak gara ditzakete. Azterketatik ateratako behar emergenteen aurreikuspenarekin, lurraldean dauden enpresa aurreratuak eta sortu edo etorri daitezkeen berrien zerbitzu aurreratuen Orsoaldeko sarea sortu dezakete, kasu honetan Tknika eta Don Boscorekin harreman zuzena izan dezakeena. Proposamena, beraz, eskualdearen diagnostiko teknologikoa egin eta behar emergenteak abiapuntu izango dituen zerbitzu aurreratuen sarea sortzea da.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L2.7 ekintza. Industria kreatiboei eta kulturaleri mesede egiteko eremu-sare bat gauzatzea

Industria kreatibo eta kulturek indar eta aitorten berri bat hartu dute Europako estrategia orokorraren baitan; batez ere, beren dinamismoarengatik eta enplegua sortzeko duten gaitasunarengatik; Europako aniztasun kulturala sustatzen dutelako eta lurralde-kohesioari laguntzen diotelako, eta sormenak berrikuntzan eta ondorioz sektore ekonomikoetan zuzeneko eta zeharkako efektu positiboak dituelako.

Barne hartzen diren jardueren zerrenda ere zabaldu da; izan ere, tradizionalki zerikusia duten sektoreez gain (ondarea, artxiboak, liburutegiak, liburua eta prentsa, ikusizko arteak, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak eta multimedia, arkitektura, publizitatea, artisautza), beste batzuk ere gehitzen dira: bideojokoen edizioa, musika-tresnen fabrikazioa, albisteen agentziak, itzulpen- eta interpretazio-jarduerak eta abar. Gainera, beste jarduera batzuekiko adarkatzeak ere ezartzen dira, ekoizpen-sisteman ukitu kultural eta kreatiboak sustatuz. Ildo hori jarraitu nahi du Europako garapen-estrategia berriak. Lanbide kreatiboetan eta unibertsitatearen artikulazioan bertan gabeziak antzematen diren prestakuntza-sistema, *online* irakaskuntza esaterako, Oarsoalderako eta eremu teknologikoak kokatzeko aukera izan daiteke.

Oarsoaldean proiektu kreatiboak sustatzeko esperientziak ahulezia erreala erakusten du Donostiako ekintzen eta potentzialaren aurrean. Donostiak Tabakaleraren moduko ekipamenduekin egindako apustu argiaren ildotik, dimentsioak kontuan hartuta jarduera gehiago hartzeko potentzial zabala baitu, beharrezkoa da osagarritasunean eta koordinazioan oinarritutako estrategia baten inguruan pentsatzea, mendekotasunera iritsi gabe. Hala eta guztiz ere, Oarsoaldeak eremu propioak gara ditzake, bai dituen potentzialtasunetara egokitzen direlako, bai berria izateagatik erreferente-izaera eduki dezaketelako.

Ekintza zehatzak ildo honetakoak izan daitezke:

- Ikus-entzunezko sektorea garatzeko (euskal zinema, animazioa, jokoak...) eskualdeak eskaintzen dituen aukerak arakatzea, Donostiarekin osagarritasunean eta lankidetzan oinarritutako estrategiatik.
- Lehendik dauden baliabideak sustatu eta hedatzea (Ciriza, Lekuona, Santo Ángel de la Guarda, Torrekua, Niessen, Mamut....) ekipamendu berriak txertatuz, esate baterako, Zinealdea, bideragarria izango balitz.
- Unibertsitateko prestakuntza lanbide kreatiboekin, berrikuntzarekin eta diziplinekin lotutako espezialitateetan bultzatzea, kreatibitatea ekoizpen-jarduerarekin lotzen dutenak.
- Teknologiaren inguruko topaguneak sustatzea, herritarrei zabalik daudenak.

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Zinealdeko instalazio-aukeren azterketa

Konglomeratu baten parte izanik (ikus-entzunezko poloa), 2010ean eraiki zuten Oiartzunen (Lintziringaina industrialdea). Ez zen martxan jartzera iritsi. Lehen fasea eraiki zen eta ekonomia kreatiboarekin zerikusia duten jardueretarako aukera izatera iritsi zitekeen. Ekonomia kreatiboaren taldeko bileran sortutako proposamenak zinemarekin eta arte eszenikoekin zerikusia duten proiektuak ekoizteko, erakusteko eta banatzeko aukerak aztertzea dakar berekin, edo ekonomia kreatiboarekin zerikusia duten beste erabilera batzuetarako. Eremuak 1.820 m2-ko estudio handi bat du, 820 m2-ko beste estudio bat, eta 420 m2-ko plato bat eta 200 m2-ko bi laguntzaile. Enpresa laguntzaileetarako gelak ere baditu, eta 1.500 m2-ko bi solairu bulegoetarako. Jabetza pribatuko eraikin bat da. Bideragarria izateko, sektorearen egoerari eta kompetenziarenari aurre egin behar dio gaur egun dauden ekimenen artean, esate baterako, Ikus-entzunezko Berrikuntza Poloa eta Eduki Digitalak, Donostian kokatuta (Zuatzu) eta Donostiako Udalak sustatuta.



L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Euskal Unibertsitate Digitala Oarsoaldean

Talaios Koop-en Plan Estrategikoari egindako ekarpena da. Oarsoaldeak unibertsitate mailako ikasketa dutenen indizea ikusita, beharrezko dirudi ikasketa mota hau maila lokalago batean eskaintzen duen ezagutza zentroak erakartzea. Espezializiorako aukerak egon badaitezke ere adibidez, ikus-entzunezko, animazio, bideo jokoak... multzo zabalaren inguruan, beste aukera bat da hainbat formazio erakarri eta elkarlanean jarriko dituen egituren aldeko apustua. UEUK adibidez (besteren bat ere izan liteke) Euskal Herriko unibertsitate digital/online baten apustua egiteko proposamena mahai gainean jarri zuen. Orain arte, formazio digitala eman izan duen unibertsitate bakarra UNED izan da, zergatik ez UEUren proposamen honi heldu eta Oarsoaldera erakarri; Katalunian ikusi den bezala UOCen kasuarekin, bateragarri eta osagarri bilakatzen denean batez ere. Aukera berriak irekiko litzuke honek, digitala izateak, azpiegitura aldetik ez luke behar handirik jarriko eta beraz erraza litzateke. Aldi berean, formazio mota honek ere beharrezko dituen azterketek, topaketek, formazio saio presentzialak... jendea erakarri eta lurraldean orain arte ez zuen eskaintza bat eskura jarriko luke. Gainera etorkizuneko behar eta sektoreetan sortutako ezagutza lurraldean txertatu, eta beste lurraldeetara zabaltzeko plataforma izango litzake. Modu honetan, IKT, industria aurreratua, pertsonen zaintza bezalako eremuetan ideien erreferente bihurtuz eskualdea.



L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Laborategi teknosozialak

Talaios koop-en Plan Estrategikoari egindako proposamena da hau ere. Lurraldean jada badauden ezagutzak probestuz, ideia berriak garatzeko ekosistemak laguntzea proposatzen da. Hezkuntza formalaz gain, espazio informal hauetan jendea elkartu, formazio saio informalago edo laburragoak egin eta elkar topatzeko espazio sortuz. Teknologiaren inguruan eraikitako zenbait laborategi teknosozialek, horren adibide bat Cornellako Citilab, erakusten duten bezala, jarduera ekonomiko berrientzako harreman sareak osatzen hasteko leku egokiak dira; herri eta hirietan dauden gune eta espazio hutsak baliatzeko ere aproposak. Tknika, Torrekoa, Don Bosco eta eskualdeko teknologian interesatutako beste eragileen bitartez, nodo ezberdinetatik, Lekuonan laborategi teknosozial bat ezartzeko aukera dago. Lekuonak izango duen proiektioarekin, teknologiaren erabilera soziala eta aktibismo teknologikoa Errenterian eta eskualde osoan zabaltzeko bidea irekiko du. Beraz, proposamena da eskualdeko laborategi teknologikoen saretik, eskualdeko herritarrei zabalik egongo den Laborategi teknoziala sortzea, Euskal Herri mailako beste erreferentzia guneekin saretua egongo dena.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L2.8 ekintza. Ekonomia zirkularrarekin zerikusia duten jardueren garapena

Jarduera ekonomikoetan eta etxebizitzetan sortutako hondakinen aprobetxamendua etorkizunera begira egindako plan guztietan ezarritako erronka da eta hori Oarsoaldea eskualdeak ezin du saihestu. Plan Estrategikoa egiteko garaian, dagoeneko erabilitako kontsumoko produktuak biltzeko eta birziklatzeko aukerak adierazi dira, baita metatzea, horien gainean lanak egitea eta saltzea ahalbidetzen duten instalazioak gauzatzea ere.

Energia da oso garrantzitsua den beste jarduera nitxo bat. Oarsoaldearen kasuan eskualdeko plan berri bat du eta etxebizitzan, jarduera ekonomikoko sektoreetan eta energia-eraginkortasunean eragina duten ekintzak proposatzen ditu. Etxebizitza-parkeari buruzko jarduera lehenetsita dago Oarsoaldean eta eskualdeko erronka nagusietako bat da. Hori dela eta, aprobetxatu egin behar da jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko. Sektorean esperientzia duten eta langabezia dauden herritarrak sustatzea eragiten duten formulak, prestakuntza aurrerapen berrietan, eta egungo enpresen eta enpresa berrien dinamizazioa dira gauzatu beharreko ekintzak, nahiko konplexua izan arren.

Ekonomia zirkularraren kontzeptupean, dokumentuaren beste atal batzuetan ere proposamenak txertatzen dira, esate baterako, jarduera ekonomikoetako industrialdeak birsortzeari buruzkoak, sinergia industrial eta tokiko elikadura-produktuen ekoizpenari eta kontsumoari lotutakoak.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Ekonomia zirkularrari lotutako eremu publikoaren ekarpena sustatzea

Sektorean jarduten duten eragileek eta jarduerak berak ez dituzte pabiloiaren kostuak asebetetzeko nahikoa sarrera sortzen, beste jarduera batzuen prezioen gorakadan izandako presioa eta eragina direla eta. Hala eta guztiz ere, birziklatzeak edo berrerabiltzeak aparteko ingurumen-onurak eta onura sozialak sortzen ditu, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen enplegua, esate baterako. Eskualdean eremu bat ezartzeak, ahal dela estalitakoa, materialak metatzen, berreskuratzen eta saltzen lagun dezake, kudea ditzaketen sektoreko erakundeek adierazitakoaren arabera, Emausek, esate baterako.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Kontsumo-produktuetako hondakinak biltzeko eta birziklatzeko bideragarritasun-azterketa


Produktuen eskualdeko bilketa egiteko aukera kontrastatzea proposatzen da, esate baterako, higieniko xurgagarriak eta kafe-kapsula plastikoa; izan ere, beste leku batzuetan ere badaude esperientzia arrakastatsua (Goieki Agentzia). Bestalde, Arraztalo elkartearen eskutik, ostalaritza-establezimenduetako kafe-hondakinak erabiltzeko aukera aztertzen ari dira, esate baterako, pellet-substratu gisa edo fabrikaziorako, Tknikaren moduko erakundeen laguntzarekin, betiere.



L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Orsoaldeako energia Plana garatzea

2016ko abenduan argitaratutako behin betiko bertsioa eta Agentzia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmen bati esker sustatutakoa, hauek dira helburuak nagusiak: Eskualdeko kontsumo-sektore guztietan energia-kultura berri bat ezartzea, energia kontsumoaren murrizketa eta eraginkortasun energetikoaren hobekuntza ardatz nagusi bezala izango dituen; Pobrezia energetiko egoerak gutxitzea, berezi etxebizitza sektorean; Orsoaldeako energia auto-hornikuntza maila indartzea, eskualdeak dituen baliabide energetikoak, energia berriztagarriak bereziki, baloreari jarritik eta eskualdeko gaur egungo ekonomia modeloa berritu eta balio gehiago duten ekoizpen sektore berrietara bideratuz, eta trantsizio prozesu honetan Orsoaldeako gizarte eragileak eta herritarrak funtsezko elementuak izatera irits daitezela sustatzea, energiarekiko sentikortzea eta formakuntza indartuz. Energia Planak 21 programa eta 75 ekintza biltzen ditu, Agentziaren funtzioak behar ditu, besteak beste, eta ekintzen arabera, prospekziokoak, sustapenekoak, laguntza teknikokoak edo lidergoarekin lotutakoak izan daitezke. Plana sustatzeko 2017ko ekainean arteko plangintzari dagokion hitzarmena izenpetu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bost agentziaren artean (horien artean, Orsoalde Agentzia).



L.E. 1 | **L.E. 2** | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Eskualdean eta eskualdetik kanpo garatu beharreko proiektuei erantzuteko gai den eskaintza lortzeko etxebizitzak birgaitzeko profesionalak antolatzea

Bizitza-kalitatean zuzeneko eragina izanik, eskualdearen erakargarritasunean oihartzuna du, eta banaka hartuta, aukera ezin hobea da arlo ekonomikoan sor dezakeen jarduera eta enpleguarengatik. Lehen sektorean okupatuta zeuden pertsonetan, eta ondorioz, oinarritzko esperientzia eta ezagutzak dituztenen artean, langabezia maila altua nabari da. Etxebizitzetako jarduerak hauek barne hartzen dituzte: eraikuntza, fatxada, ekipamenduak, igogailuak, energia-eraginkortasuna eta abar. Hainbat sektore eta gremio barne hartzen dituzte. Araudia bultzagarria da eta ekimen bateratuak barne hartzen dira; hauek esate baterako: Instagirenak (Gipuzkoako instalatzaileen eta mantentze-lanetakoen enpresa-asoziazioa), ehunka enpresa biltzen dituen, edo gaitutako kooperatiben sorrera. Orsoaldeako Energia Planak hainbat ekintza biltzen ditu: eskualderako eta udalerriek koordinatzeko birgaitzeko osoko plana egitea.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L2.9 ekintza Enpresa-eredu berriak ezarzea sustatzea, pertsonen partaidetzan, erantzukizun sozialean eta iraunkortasunean oinarrituta

Azken krisi ekonomikoak agerian utzi ditu argi eta garbi gure gizartean dagoen eredu ekonomikoaren gabeziak. Parametro tradizionalak guztiz eta modu sakonean zalantzan ari dira jartzen, esaterako, baliabideen ustiaketa mugagabearen oinarritutako aberastasun-sorrera, behar sozialak irabazi ekonomikoaren maximizatzearen mende jartzea, edo kapitalaren eta pertsonen arteko erabateko bereizketa, besteak beste. Eta hala, eredu berrirantz aurrera egin behar dugun sinesmena ari da sortzen, jarduera ekonomikoak pertsonen zerbitzura egon behar duela dioena, eta ez alderantziz. Ekonomiak giza garapen inklusiboa eta iraunkorra, erabateko enplegua eta enplegu produktiboa eta guztiontzako lan duina sustatzeko balio behar du. Zaintza, aisia eta komunitatean parte hartzeari lotutako beharrak asetzeko aukerak ahalbidetu beharko ditu planteatutako eredu berriak.

Paradigma aldaketa honek ekonomi eraldatzaileak sortuko dituen ekosistema bat garatzea suposatzen du, horiek, indar handiagoarekin edo txikiagoarekin, dagoeneko, gure errealitatean ikusi daitezkeenak: ekonomia soziala eta solidarioa / eraldatzaile, ekonomi komunitarioak, ekonomia feministak, ekonomia kooperatiboak, ekintzaitza soziala eta kolektiboa, ekonomia zirkularra, besteak beste.

Paradigma-aldaketa hori ekintzaitzako eredu berrietan eta pertsona ekintzaile mota berrien sorreran ikus daiteke, baita enpresa-eredu berrien agerpenean ere; jarduera ekonomikoaren iraunkortasunerako oinarri etiko eta giza oinarria planteatzen dute, ingurune sozialean eta kulturean sartuta, eta modu eraginkorrean langileen berdintasuna eta parte-hartzea sustatuta, jardueraren arlo guztietan (jabetza, mozkinen banaketa, erabaki-hartze, kudeaketa,...).

Paradigma berri hori honelako elementuetan ageri da:

- Banakakoa eta independentea den ekintzaitza-eredua kolaboratzailea ere baden beste eredu batera pasatzea, pertsonarengan, talentuan eta sinergia-bilaketan eta sareen sorreran oinarrituta.
- Erabateko iraunkortasuna (soziala, ingurumenekoa eta finantza arlokoa), errentagarritasun ekonomiko hutsaren aldean.
- Balio erantsi soziala sortzea: gizarteari balioa ematea, eta ez akziodunentzako irabaziak soilik
- Balio etiko eta sozialak eskatzea enpresari, jarduera osoan (bezeroak, hornitzaileak, langileak, ingurumena, tokiko ingurunea, gizartea, oro har): guztion onerako ekonomia
- Genero-ikuspegia sartzea
- Ekonomia erreala babestea, eta ez espekulazio- edo finantza-ekonomia.
- Lurraldearen baliabide endogenoak sustatzea (tokiko produktuak eta ekoizleak), baliabideen erabileran eta esleipenean eraginkortasun maximoa bilatuz: ekonomia urdina eta zirkularra, kontsumo-plataformak
- Beharrak eta jarduerak taldekatzea, demokrazia ekonomikoa eta kooperazioa sustatuko duten sare eta elkarten bitartez
- Proiektuen finantzaketa-bide berriak: Banku etikoa, mikrokredituak eta abar.

Testuinguru berri horren aurrean, eskualde gisa gure erronka ekintzaitza- eta enpresa-eredu berri horiek sustatzea da, lehen aipatutako elementu/balioetan oinarritutako eredu ekonomiko eta sozial berria sortzen lagun dezaten.

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

Eskualdeko Garapen Agentzia eredu berri horien bultzadarako eragile gakoa da. **Lan-ildo ugari** jar daitezke martxan:

- 1.- Aldaketaren protagonista izanik: ekintzaileei laguntzeko zerbitzua eraldatzea
 - 1.1. Langile teknikoen prestakuntza
 - 1.2. Laneko tresnak eta metodologiak diseinatzea eta egokitzea: lehendik dauden tresnak egokitzea edo berriak sortzea
 - 1.3. Eremuko erakundeekin hitzarmenak: banku etikoa, ekonomia soziala eta solidario/eraldatzeko erakundeak...
- 2.- Aldaketa eraginez: sentsibilizazioa
 - 2.1. Jardunaldiak eta ekitaldiak antolatzea
 - 2.2. Jardunbide egokiak bistaratzea
 - 2.3. Eskolak hurbiltzea
- 3.- Aldaketa sustatuz: ekintzaitza soziala eta femeninoa sustatuz
 - 3.1. Ekintzaitza sozialaren eremuan jarduera-ildo espezifikoa bultzatzea: pertsona eta kolektibo ekintzaile sozialak identifikatzeko+prestatzeko+inkubatzeko proiektu pilotua diseinatzea eta abian jartzea, gero balidatzeko eta ekintzaileei laguntzeko zerbitzuaren egiturazko eskaintzan sartzeko.
 - 3.2. Ekintzaitzaz, genero-arraila lantzeko jarduera espezifikoa bultzatzea, bereziki ekintzaitza teknologikoan.
- 4.- Enpresen potentziala: enpresak aldaketaren katalizatzaile gisa
 - 4.1. Eskualdean kokatutako enpresa-ehuneko eredu berrien ezarpena, goian aipatutako baloreak sustatuko dituztenak
 - 4.2. Aldaketa eragiteko eta katalizatzeke sareko kide izango diren enpresa kolaboratzaileen sarea sortzea
 - 4.3 Enpresetan langileen partaidetzari laguntzea
- 5.- Administrazio publikoaren potentziala, ekonomia sozialaren sustatzaile gisa
 - 5.1 Klausula sozialak
 - 5.2. Erreserbatutako kontratu publikoak
 - 5.3. Zerga-politika
 - 5.4. Komunitario kooperatibo kolaborazio-estrategiak aztertzea
 - 5.5. Ekonomia sozialaren arloan kokatutako ekintzaitza proiektuak bultzatzea
- 6.-Aldaketa zehaztuz: azalduko 5 ardatz hauetan proiektu pilotuak identifikatzea eta abian jartzea.

2. Ildo Estrategikoa Pertsoneri emandako arreta, aukera-sektorea

Justifikazioa

Eskualdeko demografiaren azterketak agerian jartzen du zahartzearen erronkak duen garrantzia, indize altuekin eta areagotzeko joera argiarekin, batez ere Erreterian eta Pasaian.

Garapen ekonomikoaren ikuspegitik, Plan Estrategiko honen oinarria, zahartzeak eta mendekotasunari laguntzeko sektorean pertsoneri arreta eskaintzeko gero eta zerbitzu gehiago eskaintzea dakar berekin. Era berean, baita ezagutzan eta beren beharretara aplikatutako teknologian ere.

Pertsoneri arreta eskaintzeko sektoreak enplegu sortzeko potentzial handia eskaintzen du datozen urteetan. Hazteko aurreikuspen horiek oso garrantzitsuak dira hurbiltasuneko enpleguak direlako, deskokatu ezin direnak.

Faktore demografikoek ez ezik, sektorea beste batzuek ere presionatzen eta bultzatzen dute, hau da, joera sozialek ere (pertsona bakarreko eta familia bakarreko familia gehiago, emakumeen jarduera-tasa gorantz eta abar) norabide bereberan parte hartzen dute. Gainera, etxean ahalik eta denbora gehien egotea da adineko pertsonen eta gizarteak gustuko duten aukera. Politika aplikatuek eta araudi-testuinguruak, aukera hori pribilegiatzeko joera dute, pertsonak beren ohiko ingurunean mantentzearen alde eginez. Ildo horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak etxebizitzan osoko arreta eskaintzen duten gailuak sustatu nahi ditu, eta horretarako, etxean arreta eskaintzeko pertsonak kontratatuzko laguntza ekonomikoak ematea sustatuko du; gainera, helburu horri lagunduko dioten irtenbide teknikoak instalazioa sustatuko du. Elementu hori oso garrantzitsua da jarduera pertsonari arreta eskaintzeko sektorean garatzeko, laguntzen eta pizgarrien politikari oso lotuta.

Azken finean, eskualdeak berak dituen beharrak (daudenak eta aurrez ikusitakoak), baina era berean apustu politikoak eta Gipuzkoako lurraldeak zahartzearen erronkarekin lotutako erantzunetan espezializazio eta bereizgarritasun maila altua lortzeko nahiak berretsi egiten dute pertsoneri arreta eskaintzeari dagokionez estrategiak eta jarduerak garatzeko orduan Oarsoalderako aukeren sektore argi baten larrialdia.

L3.1 ekintza.	Zahartzearen erreferentziazko zentroa sortzea eta adineko pertsonen arretan ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak garatzea
L3.2 ekintza.	Arreta soziosanitarioko prestazio publikoen eskaintza eta egituraketa
L3.3 ekintza.	Zerbitzuen sektorea pertsonentzat artikulatzea
L3.4 ekintza.	Jarduera fisikoa egiteari lotutako zerbitzuak garatzea, lehentasunez adinekoei zuzenduta

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L3.1 ekintza. Zahartzearen erreferentziako zentroa sortzea eta adineko pertsonen arretan ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak garatzea

Gipuzkoako Foru Aldundiak zahartzearekin eta ezgaitasunari arreta eskaintzearekin lotutako zentro aurreratua sortu nahi du Pasaian. Adineko pertsonen zaintzan erreferentea izan nahi du. Zentroak egoitza-arreta eredu berrantolatzen lagundu nahi du, betiere, pertsonan eta haien beharretan oinarritutako eredurantz berriz orientatzeko. Aipatutako zentroan lehen eta bigarren arretako zerbitzuak batera arituko dira, eta foru eta udal kompetentziako zerbitzuak bateratuko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 600000 euro inbertituko dituen proiektuak –inbertsio pribatua ere espero da– zaintza- eta osasun-zerbitzuen prestazioan berrikuntzarako beharrezko elementuak txertatzea aurrez ikusten du. Ondorioz, I+G-ko ekimenak, transferentziak eta ekintzailatza bilduko lituzke, laguntza arloan eta arlo industrialean eta teknologikoan zentratuta. Zentroak produktu berriak, zerbitzuak eta arreta-ereduak esperimentatzeko, pilotatzeko eta “testeo” egiteko eremu izan nahi du.

Aipatutako zentroak osasun-adituei eta gizarte-zerbitzuetako eta zerbitzu sozio-sanitarioetako adituei prestakuntza eskaintzea ere aurrez ikusita dago, baita zaintzaileei ere. Era berean, informazio-gaiak, emaitzen hedapena eta dokumentazioa barne hartuko dira.

Ondorioz, zentroa jardueraren elementu eragilea izan daiteke zerbitzu aurreratuetan eta berritzaileetan, eta eskualdean zahartzearekin zerikusia duten zerbitzuak (teknologia, aisialdi aktiboa, osasunaren zaintza...) eskaintzeko balio izan dezake, Silver Economy izenekoan edo zilarrezko ekonomian txertatuta.

Pasaia hartuko du zahartze-zentroa; izan ere, gaur egun egoitzetan toki gehiago izateko eta eguneko zerbitzuen eskaera handia dago bertan. Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiak Pasaia Badia birsortzeko egindako apustuaren baitan kokatzen da. Aurrez ikusitako kokapen zehatza Herreran dago, Portuko Zerbitzuaren Antolamenduko Plan Bereziak kaltetutako Portuko Agintaritzaren lurzoruan. Aurrez ikusitako eremuak 8.000 m²-ko dimentsioa du gutxi gorabehera.

Gipuzkoako Foru Aldundia (Lurralde Antolaketa, Berrikuntza eta Gizarte Politika arloak) eta Portuko Agintaritza lanean ari dira dagoeneko, Pasaia Udalarekin batera, azpiegitura berri honen ezaugarriak eta baldintzak zehazten.

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L3.2 ekintza. Arreta soziosanitarioko prestazio publikoen eskaintza eta egituraketa

Gizarte Zerbitzuetako 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezartzen du gizarte-zerbitzuen pertzepziarako eskubide subjektiboa. Lege horri lotuta dago Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa 2015-2017, Oarsoaldea eskualdea lurraldeko gizarte-zerbitzuen 17 arloetako bat balitz bezala hartzen duena. Zerbitzu edo prestazio bakoitzerako estaldura-helburu zehatzak esleitzea dakar horrek. Zerbitzuen eta prestazioen katalogoa definitzen duena Gizarte Zerbitzuen Legea den arren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu- eta prestazio-zorroari buruzko 2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua da, 33. artikuluan, udal-eskumeneko zerbitzu eta prestazio edo laguntza ekonomikoak ezartzen dituena.

Erakunde arteko lan-mahaiak, Gipuzkoako Foru Aldunditik sustatuta (bertan daude udal-ordezkariek eta Eudel), hain zuzen ere araudi berriak sartutako aldatetei aurre egin nahi die eta inplikaturako eragileen artean koordinazio egokia bermatu.

Testuinguru horretan, eskualdeak prestazio mankomunatuak identifikatu behar ditu, izan ditzakeen aukerak aztertu, zerbitzu horien irismena eta finantzaketako eta kudeaketako formula egokiak. Oarsoaldea eskualdeko agentzia eragile giltzarria izan daiteke ezarritako formula mankomunatuak planifikatzen/kudeatzen. Lan-ildo hori oso garrantzitsua da Oarsoaldearen datozen urteetako garapen sozial eta ekonomikoan.

Ekintza honekin loturiko aipaturako proiektuak

Nahitaezko gizarte-zerbitzu jakin batzuk emateko eskaintza mankomunatuak aztertzea eta martxan jartzea

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu- eta prestazio-zorroari buruzko 2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, 33. artikuluan, udal-eskumeneko zerbitzu eta prestazio edo laguntza ekonomikoak ezartzen ditu.

- Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua.
- Etxez etxeko laguntza
- Esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko zerbitzua.
- Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
- Gizarte-zerbitzuen eremuan gizarteratzea eta parte-hartzea sustatzeko zerbitzua.
- Eguneko arreta-zerbitzua.
- Gaueko harrera-zerbitzuak.
- Ostatu-zerbitzuak (harrera-etxebizitzak/tutoretzapeko etxebizitzak, adinekoentzako tutoretzapeko apartamenduak/adinekoentzako etxebizitza komunitarioak)

Zerbitzu horietako asko Oarsoaldea eskualdea osatzen duten udalerrietako bakoitzak modu autonomoan eskaintzen dituen eta eskainiko dituen arren, nahitaezko beste zerbitzu batean prestazio partekatua planteatzea arrazoizkoa da haien kudeaketa mailako eragingarritasuna bermatzeko (esaterako, gizarteratzearen arloan); 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Tokiko Erakundeen ingurukoak, horren alde egiten du. Eskualdeko Agentzia udalerriko ikuspegiaren dinamizatzaile eta biltzaile izan daiteke, zerbitzuen estalduraren, haien irismenaren eta kudeaketa- eta finantzaketa-moduaren inguruko azterketa sakona sustatuta.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L3.3 ekintza. Zerbitzuen sektorea pertsonentzat artikulatzea

Pertsoneri eskainitako zerbitzuek jarduera asko biltzen dituzte; horietako asko pertsonaren etxebizitzan egiten dira, eta funtsean, eguneroko bizitzari lotutako zereginak eta egoera ahulenean dauden kolektiboen zaintzari lotutako zereginak izan daitezke (adinekoak, adingabeak...).

Eskualdearen ordenazioa eskatzen duen eremua da. Pertsonari emandako zerbitzuak indartzea eta egituratzea behar soziala eta ekonomikoa da, baina baita tokiko garapenerako aukera ere (tokiko enpleguak, eskualdean oso presente dauden profil kualifikatu ertain edo ertain-baxuak lan-munduan sartzea, tokiko parteneriatuak...).

Sektore horrek garapenerako dituen potentzialtasunak ez datoz bat, hala ere, sektorearen aitopenearekin eta bistaratzearekin. Horren arrazoietakoa bat da eragile ugarien artean jarduera izugarri zabaltzea. Hain zuzen ere, hazten ari den sektoreetako bat da, ezkutuko ekonomia oso garrantzitsua da sektore horretan, eta bertako enplegua eta lanbidea ez dira erakargarriak (ordutegi zatiak, kontratu partzialak eta abar) eta gehienetan, profesionalak bakarka aritzen dira lanean.

Hala, sektorea enplegua sortzeko aukerako sektore gisa garatzearekin batera (orain arte batez ere emakumezkoen enplegua izan da), horri lotutako beste hiru erronka ere aipatu behar dira: esku hartzen duen pertsonaren nortasun profesionala beharrezko kualifikazioaren bidez, aplikatutako eredu ekonomikoaren dibertsifikazioa eta emandako zerbitzuaren eta proposatutako enpleguaren kalitatea. Horren guztiaren azken helburua da zerbitzu horien eskaerak dituen beharrak, gero eta zorrotzagoak direnak, asetzea.

Gainera, pertsonari emandako zerbitzuen sektorea egituratzearekin batera, etorkizunean iraunkorrak izan daitezkeen kudeaketako eta finantzaketako eredu berriak esperimentatzea eta zabaltzea etor daiteke.

Eredu kooperatiboak aukera erakargarria izan daitezke, etxerako zaintzak emateko gaitasun teknikoak dituzten profesionali edo etxeko zerbitzu partikularrak ematen dituzten profesionali mikro-enpresa sortzeko aukerak eskainiz eta haiek elkartuz.

Eredu kooperatibo horiek pertsoneri emandako zerbitzuen sektorean tokiko enplegua sortzeko modu berria izan daitezke. Horrek lagunduko luke sektore horretan sarri ezaugarri izan ohi den isolamendu profesional hori hausten, berrikuntzako prozesuak abiatzea ahalbidetuko luke, ezkutuko ekonomia piztea eragingo luke eta banaka bideragarriak ez diren proiektuen iraunkortasuna ahalbide lezake. Eskualdean eskaintza osatuagoa eta ikusgarriagoa duen merkaturatu egituratzea ahalbidetuko luke, mendekotasunaren arretan esku-hartzen duten unitateak handiagoak izan daitezkeen, eraginkorragoak eta, ziurrenik, emandako zerbitzuaren kalitatea handiagoa izan dadin.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | **L.E. 3** | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Pertsoneri zerbitzua emateko sektorean kooperatibak sortzea bultzatzea

Kooperatibak tresna egokia izan daitezke gertutasuneko enpleguak garatzeko eta egonkortzeko, gizarte-kohesioaren bektore diren lanbideetan, esaterako, pertsonen zaintzarekin eta arretarekin lotutakoetan. Gizarte-ekonomiak protagonismoa izan du sektore horretan zerbitzu horiek ematen esperientzia aurreratua duten eremu geografikoetan (Frantzia, esaterako). Gainera, hain zuzen ere, atomizazio eta inplikaturako langileen isolamendu profesional handia duen sektorea denez, badirudi egokia dela gizarte-ekonomia sustatzea. Horrekin lotuta, zenbait esperientzia azter daitezke, esaterako, Bilboko Aurrerantz kooperatibak garatutako; etxeko laguntza-zerbitzuak ematen ibilbide luzea du.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L.E. 1 | L.E. 2 | **L.E. 3** | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Prestakuntzaren eremuan ekintzak garatzea, eta zehazki, mendekotasunaren arretari lotutako profesionaltasun-ziurtagiriak

Autonomia pertsonala eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta sustatzeko 39/2006 Legea onartu zenetik mendekotasunaren sektoreari lotutako zerbitzuak pixkanaka profesionalizatzeko prozesua gertatu da, hala, maila autonomikoan profesionalen kualifikazio eta titulazioari buruzko erregulazioak izan dira. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak gizarte-erakundeetan mendeko pertsoneri arreta sozio-sanitarioa eta etxean pertsoneri arreta sozio-sanitarioa emateko kualifikazio profesionaleri lotutako eskakizunak betetzearen inguruko jarraibideak zehaztu ditu.

Mendekotasunaren arretarako sektorean, beharrezkoak diren gaitasun teknikoak eta harremanetarako gaitasunak gero eta gehiago izango dira. "Egiten jakitea", esperientzia, gaitasuna gero eta gehiago erabiliko diren irizpideak izango dira lanbide horretan jarduteko. Horrekin lotuta, zaintzaileen, zaintzaile geriatrikoen, etxeko laguntzako auxiliarren eta sektoreari lotutako beste profesional batzuen prestakuntza, ziurtapena eta gaikuntza eskualderako jarduera-eremu argia da (arlo horretan prestakuntza arautua eskaintzen duen zentrorik ez dago).

Ezinbestekoa da epe luzerako estrategia bat egitea helburuak, bitartekoak eta aliantzak jarrita, baldin eta Oarsoaldeak sektore horretan kokatu nahi badu eta Foru Aldunditik adierazi duten bezala, Gipuzkoa lurralde lehiakorra izan dadin eta aldaketa demografikoaren fenomenoari aurre egingo diona izaten lagundu nahi badu. Etorkizuneko Zahartze Zentroa Pasaian kokatzeak (dagoeneko prestakuntza eta ikerketa arloa bilduko dituela aurrez ikusten da) ahalbidetu eta aktibatu beharko luke eskualdeko lidergoa arlo soziosanitarioan kualifikazio-bide guztiak lantzeko.



L.E. 1 | L.E. 2 | **L.E. 3** | L.E. 4 | L.E. 5 | L.E. 6

Egindakoaren emaitzak ebaluatutakoan eta ikasitako lezioak sartutakoan Etxeko-LAN ekimena sustatzea

Oarsoaldea Agentziatik sustatuta eta kudeatuta, Etxeko-LAN ekimenaren helburua da etxeko lanak eta/edo zaintza-lanak egiten dituzten pertsonekin lan-zorroa sortzea haien gaitasunak hobetzeko, horretarako zenbait prestakuntza antolatuta. Era berean, zeregin mota horiek behar dituzten familientzako bitartekaritza eta aholkularitza-zerbitzua eskaintzen du, lan-eskaintzen kudeaketa eginez eta kontratazioetan eman beharreko urratsen aholkularitza eskainiz. Hori guztia osatzeko, eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa ematen dute, lan-baldintza egokiak bermatzeko. Eskuragarri dauden azken datuen arabera, lan-poltsan izena emanda 143 lagun zeuden, eta eskari horietatik % 90 emakumeak ziren.

Garapen Agentziak pertsoneri arreta emateko sektorea egituratzeko ekintzak sustatzea

Eskualdeko garapen-agentziatik egin daitezkeen zereginen artean honako hauek nabarmen ditzakegu:

- Sektorearen ezaugarriak aztertzea eta jardueren direktorioa egitea
- Sektorearen profesionalizazioan eta kompetentzien eskaintzan modu aktiboan parte hartzea (etengabeko prestakuntza, tutoretzak...)
- Sektoreari lotutako lanbideei balioa emateko ekintzak garatzea
- Merkatua egituratzea eskaintza osatuagoa eta ikusgarriagoa egituratzeko lurraldean (zerbitzuen aukera zabala eskainiko duen elkarrizketa bakarra,...)
- Zerbitzu berritzaileen garapena sustatzea
- Xedapenak artikulatzeko eta izaera juridiko guztiak hartzeko laguntza juridikoa eskaintzea
- Esperientziak eta zereginak kapitalizatze eta mutualizatzea (sareko lana, administrazioa, kontularitza, komertziala...)
- Ezagutzaren eta lanbide ugarien sinergia ahalbidetzea, merkatuaren bilakaeretara hobeto egokitzeko
- Zerbitzuen kalitate-ziurtapenak sustatzea
- Sarean lan egiten erakustea
- Garapen iraunkorraren balioak sustatzea (produktu biodegradagarriak, ekologikoa...)

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L3.4 ekintza. Jarduera fisikoa egiteari lotutako zerbitzuak garatzea, lehenetasunez adinekoei zuzenduta

Enplegu berriak sortzeko aukerak ez ditu zahartzeari lotutako arreta soziosanitarioak soilik sortuko. Jarduera fisikoa eta kirola egiteak ere gero eta garrantzi handiagoa du alderdi ekonomikoan: Europako herrialdeetan nabarmen hazi da sektore horri lotutako zuzeneko eta zeharkako enplegu kopurua. Hain zuzen ere, “kirolaren ekonomia” izenekoaren barruan sartzen diren kontzeptuetan egindako gastua (kirol-instalazioen kudeaketa, klubak, kirol-diziplinetako prestakuntza, kiroleko osagarrien eta artikuluen fabrikazioa, denda espezializatueta kirol-artikuluen txikizkako merkataritza eta abar) nabarmen handitu da.

Jarduera fisikoa egitearen onura indibidualak eta sozialak asko dira eta, besteak beste, adin aurreratuetan mendekotasuna saihestea ahalbidetzen duela nabarmendu behar da, eta gaixotasun kronikoak prebenitzeko eta tratatzen laguntzen duela, eta horrek osasun-gastuan aurrekia egitea dakar.

Onura horiez jabetuta, politika publikoetatik bizi-ohituretan sartzera bideratutako estrategiak ari dira garatzen. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalak ere ari dira jarduera fisikoa egitearen aldeko neurriak sustatzen, eta zehazki adinekoei zuzendutakoak, hala adierazten dute zahartze aktiborako eta osasungarrirako programa guztiek.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, 2013-2020 Osasun Planaren haritik, MUGIMENT ezarri izana nabarmendu behar da, jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa murrizteko plan estrategikoa. Haren helburua da gizarte aktiboagoa sortzea, eta horretarako, udalerrira jardueren erdigunetzat hartzen du.

Oarsoaldean, gai horrekiko sentsibilizazioa handitu izana eta horri emandako garrantzia adierazten duten adibide onak ditugu, Errenteria 2025 Plan Estrategikoan ikus daitekeen moduan; izan ere, bertako jardueren artean herritarrentzat fisikoki aktiboa den bizimodua sustatzera bideratutako bat zehaztu zuen. Gerora izan duen garapenak jarduera zehatzak ekarri ditu (esaterako, Oiartzun ibaiaren inguruan jarduera fisiko osasungarria egiteko 2016ko Gida eta dauden instalazioei eta ibilbideei buruzko azalpen-panelak jartzea, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Integralean orain gutxi onartutakoa). Lezo, bestalde, EAE mailan aitzindaria da adinekoentzako jarduerak direla eta, esaterako, Tipi-Topa irteerak.

Jarduera ekonomikoaren eta enplegu-sorkuntzaren ikuspegitik, entrenamenduari, animazioari eta aisialdiarekin eta ariketa fisikoa egitearekin lotutako jardueren kudeaketari lotutako zerbitzuak eta lanbideak sortzeko aukerak eskaintzen dituela uste da, eta esfera horretan berrikuntzako eta ekintzailtzako ekimenak ahalbide ditzake.

4. Ildo Estrategikoa

Gizarte-egoera ahuleneko kolektiboen gizarteratzea eta lan-munduratzeara sustatzea

Justifikazioa

Eskualdeko garapen sozioekonomikoa sustatzeko bertako herritarren gizarteratzea eta lan-munduratzeara bermatu behar da. Horretarako, enplegua da lehentasun nagusia, horixe baita segurtasun ekonomikoa eta pertsonen gizarteratzea bermatzeko gakoa.

Oarsoaldeak laneko merkatuaren kaltetze handia izan zuen krisi ekonomikoaren urteetan. Azken urteetan erregistratutako hobekuntzez gain, langabezia kronifikatuta dago, eta horien artean gehiengoa kualifikazio baxua duten pertsonak dira; kolektibo batzuk lan-merkatuan gutxiegi ageri dira (adin-tarte handieneko populazio aktiboa, etorkinak, desgaitasunen bat duten pertsonak, ohitura- edo jokabide-arazoei lotutako arrisku-pertsonak...), eta horiek langabezia-tasa altuagoak dituzte.

Errealitate hori ikusita, ez da nahikoa eskualdearen aktibazio ekonomikorako ingurune egokia sortzea, nahiz eta Plan Estrategikoaren ildo guztietan dagoen helburu hori; ezinbestekoa da enplegu-politika aktiboak sustatzea eta gizarteratzeko eta lan-munduratzeko mekanismoak bultzatzea, enplegurako laguntza pertsonalizatuak indartuta.

Oarsoaldea Agentziak orientazioko, gizarteratze-ibilbideen diseinurako jarduerak egin izan ditu bazterketa-arriskuan dauden pertsonekin, baita enplegu-eskatzaileen kualifikazio-jarduerak ere. Era berean, eskualdeko enplegu-planak egin ditu, eta enplegura eta prestakuntzara sarbidea izateko proiektuak, kontrataziorako, ekintzailatzarako edo prestakuntza espezializaziorako laguntzak bildu ditu. Plan Estrategiko honek aukera eskaintzen du laguntzen politikak berriz pentsatzeko eta ekonomia sortuko duten enplegu-politika bihurtzeko.

L4.1 ekintza	Eskualdean inklusio soziolaboralaren esparru integralaren eguneratzea eta bultzatzea. Bereziki prestakuntza okupazionala, enplegu-planak eta kontratazio publikorako prestakuntza birbideratzea, lan munduratzeara aukera hobeak lortzeko
L4.2 ekintza	Gizarte-inklusio formulak aprobeztatzea zailtasunak dituzten kolektiboen artean enplegua sustatzeko

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L4.1 ekintza Eskualdean inklusio soziolaboralaren esparru integralaren eguneratzea eta bultzatzea. Bereziki, prestakuntza okupazionala, enplegu-planak eta kontratazio publikorako prestakuntza birbideratzea, lan munduratzeko aukera hobeak lortzeko

Gizarteratzeko politikak berritu nahi dira, esku-hartzearen testuinguru integrala sustatzetik abiatuta. Hori guztia oinarritzko 2 bektoretan oinarrituta: langabetuak eta enpresak. Estrategiak eta tresnak enplegarritasun zehatzera egokitzen sakonduko da, eta oro har, pertsonaren egoera espezifikoetara egokitzen. Bereziki landuko dira tokiko ekimen berritzaileak eta arreta eman beharreko kolektiboen beharretara egokituen daudenak. Horrez gain, prestakuntza okupazionala birformulatuko da, Enplegu Planak birbideratu, eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden langileentzat erreserbatzea ahalbidetzen duten kontratazio publikoko klausula sozialak aprobetxatuko dira. Horrek ahalbidetu beharko luke gizarteratze-tasa handitzea eta iraunkorragoa eta jasangarriagoa egitea. Eusko Jaurlaritzako Enplegu Sailak tokiko protagonismoa duen euskal enplegu-sistema publikoaren alde egindako apustuak eta onartu berri den Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen Legean egindako tokiko garapen eta enplegu arloko udalerrien eskumenaren aitopen espresuak testuinguru oso egokia eskaintzen dute arlo horretan Garapen Agentziaren jardura sendotzeko eta hari behar bezalako egonkortasuna emateko.

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L4.2 ekintza Gizarte-inklusi formulak aprobeztatzea zailtasunak dituzten kolektiboen artean enplegua sustatzeko

Gizarteratze-enpresek, ekonomia sozialaren eredian txertatuta daudenek, jarduera ekonomiko baten bidez benetako lan-ingurunean ikastea ahalbidetzen dute. Enpresa horiek Eusko Jaurlaritzak hala kalifikatutakoak izan behar dute eta Lanbideren diru-laguntza dute.

Oarsoaldea eskualdean, Oarsotek dugu adibide. Formula hori (betiere, aurrez dauden esperientzien ebaluazioa ona baldin bada) beste eremu batzuetara zabaltzeko aukera Plan Estrategiko honen testuinguruan egindako hausnarketen ondorioz sortu da; esaterako, herritarren zahartzeari eta pertsonen emandako zerbitzuen sektoreari lotuta, edo ekonomia zirkularraren ingurukoak, hala nola birziklatzea eta hondakinak berreskuratzea edo espazio berdeak edo lehen sektorea mantentzea.

Eremu horietan eta/edo enpresen erantzukizun sozialaren bultzadaren bidez gizarteratzeko enpresak garatzeko aukerak eta baldintzak aztertzea da Plan Estrategiko honen testuinguruan landu beharreko arloetako bat. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarteratzeko enpresen formula sustatzeko eta enplegurako ibilbideetan giltzarri gisa indartzeko interesa adierazi du. Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak rol garrantzitsua ematen die eskualdeko agentziei, ekimen horien bideratzaile eta dinamizatzaile gisa.

Bestalde, enplegu zentro bereziak desgaitasunen bat duten pertsonentzat lan munduratzeko formula ezin hobea da. Eskualde honetan, jadanik, badaude aukera zehatzak aztertu eta bultzatu beharrekoak.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | **L.E. 4** | L.E. 5 | L.E. 6

Buruko gaixotasunak/desgaitasuna duten pertsonentzat enplegu-zentro berezia sortzeko baldintzen azterketa

Arraztalo-k, Oiartzungo gaixo psikikoen Elkarteak, 2008an sortutakoak, helburuen artean du Enplegu Zentro Berezia (EZB edo gazteleraz CEE) sortzeko proiektua, eta hala dator haien Estatutuetan. EAEn dauden Enplegu Zentroak hala kalifikatutakoak dira eta dagokion erregistroan izena emanda daude, 1985eko abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuaren arabera. Kontratazioagatik diru-laguntza publikoa jasotzen dute. Zentro horiek konpromisoen artean dituzte, besteak beste, honako hauek: desgaitasuna duten langileekin izaera bereziko lan-harremana ezartzea, laguntza indibidualizatuak ezartzea, lanpostuko autonomia eta independentzia ahalbidetzea eta sustatzea, eta EZBra langile berriak sartzeko ahalbidetzea. Enplegu Zentro Berezietan kontratatutako desgaitasuna duten langileek % 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila izan behar dute gutxienez.



5. Ildo Estrategikoa

Sektore turistikoa, eskualdearen erakargarritasuna duela eta potentziala duen jarduera. Merkataritza, aliatua

Justifikazioa

Jarduera turistikoak ekonomian duen eragina gero eta handiagoa da; hain zuzen ere, gastu turistikoa Gipuzkoako BPGren % 7,4 da. Zenbateko hori garrantzitsua den arren, tokiko herritarrek kanpoaldean duten gastu turistikoa baino txikiagoa da (defizita 2.221 milioi eurokoa da EAEn, BPGren % 3,2); Oarsoaldean hori uda-garaiko populazio txikiagoan ikus daiteke, puntu oso jakinetan izan ezik. Eskualdeak hartzen dituen bisitarien kopurua murrizta da alboan den Donostiak jasotzen dituenekin alderatuta, eta zehazki hiriko eremu jakinetan, baina pixkanaka bisitariak ugaritzen ari direla ikusten da, adierazleen erakusten duten moduan.

1997tik 2015era izandako bilakaerak ageriko jauzia erakusten du zenbait adierazletan: turismo-bulegoan arreta emandako bisitari kopurua, 4 aldiz handitu dena (24.261 ziren 2015ean), ekipamendu kopurua (museoak, zerbitzu turistikoko enpresak eta turismo-bulegoak), 6 aldiz handituta (19 ziren 2015ean), hotel-establezimenduak 3 aldiz handituta (25 ziren 2015ean) eta ostatu-lekuen kopurua % 50 handituta. Adierazle horiek gora egiten jarraitzen dute eta erritmo bizkorragoan gaur egun.

Donostia gertu izateari esker, hiriburura doazen turistak erakar ditzakegu, Gipuzkoako turismo-sustapeneko egungo ildoen arabera; izan ere, lurraldeko beste leku batzuetara hurbiltzea nahi da, haien denbora eta gastua banatuz. Agerikoa da helburu horrek potentzial handia duela Oarsoaldearako. Gaur egun, eta 2017an Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak egin berri duen azterketa baten arabera, hirian gaua ematen duten bisitarien % 28,7k soilik bisitatzen dituzte beste herri batzuk, eta horien artean nagusiak dira Zarautz eta Getaria, eta neurri txikiagoan Hondarribia, Donibane Lohitzune eta Biarritz.

Zalantzarik gabe, masifikazioak eta eredu turistiko jakin batzuk, baliabideak sortzen dituzten arren, tokiko herritarren bizi-kaliterako kaltegarriak izan daitezke, nahiz eta, oro har, alderdi positiboari begira, azken batean herritar guztiek erabil ditzaketen zenbait zerbitzu eta ekipamendu mantentzea errazten du. Bestalde, jarduerak enplegua batez ere ostalaritzan eta saltokietan sortzen du, baina askotan urtaroen araberako enplegua izan ohi da eta kualifikazio baxukoa.

Merkataritzak Oarsoaldean iraunkortasun handia du, azalera handien eskaintza garrantzitsuarekin, Donostia hurbil dagoelako, eta hala ere, ez da ahultzen txikizkako merkataritza, eta Donostiako merkataritza-egituraren eraginari eta pixkanaka geldiezina dela dirudien onlineko merkataritzari aurre egiten dio. Turismoa, merkataritza, lurralde bateko "bizitza"-ekonomikoaren eta bizimoduaren, izan nahi dugunaren adierazle onak dira.

Lurraldearen erakargarritasuna hobetzea, giltzarri diren baliabideak sustatzea eta haien irisgarritasuna, sektoreko egituraketa eta populazioaren beraren sentsibilizazioa dira turismoaren arloan proposatzen den jardueraren oinarriak. Merkataritzari dagokionez, tokiko merkataritza sustatzea eta merkataritza espezializatuarekin, sormenarekin eta merkataritza digitalarekin lotutako ekintzailtza ahalbidetzea.

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L5.1 ekintza.	Lurraldearen, hiri-eremuen eta ekipamenduen irudia hobetzea
L5.2 ekintza.	Itsasoarekin, naturarekin, gastronomiarekin, euskararekin eta ekitaldi-antolaketarekin lotutako baliabideak sustatzea
L5.3 ekintza.	Baliabide turistikoaren balioari eta aberastasuna eta enplegua sorrarazteko duten ahalmenari buruzko sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea
L5.4 ekintza.	Ostalaritza-sektorea egituratzea eta profesionalizatzea sustatzea eta ostatu hartzeko aukeren dibertsifikazioa bultzatzea
L5.5 ekintza.	Bide-seinaleak eta baliabide turistikoak mantentzea eta hobetzea
L5.6 ekintza.	Saltoki txikiak bultzatzeko ekintzak sustatzea, lurraldeko kalitatezko elementu eta pizgarri eta turismoa erakartzen duen faktore diren heinean

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L5.1 ekintza. Lurraldearen, hiri-eremuen eta ekipamenduen irudia hobetzea

Pixkanaka hobekuntzak egiten ari badira ere, eskualdearen irudiak argiak eta itzalak ditu; eremu batzuetan natura-edertasun handia eta ondare arkitektoniko aberatsa dago, baina beste batzuk hondatuta daude, ez dira ondo zaindu, eta paisaia-gatazkak nabarmenak dira. Zalantzarik gabe, paisaia “latz” batzuk ere erakargarriak dira, baina ez dute jarduera turistiko sendo baterako aukera handirik ematen, eta, batez ere, ez dira erosoak bertan bizi diren pertsonen eguneroko bizitzarako.

Hiri-eremuetan, hirigune historikoak bereziki erakargarriak dira, baliabide turistiko diren heinean. Haien zaintzeko, garbitzeko eta hobetzeko jarduerak hasita daude, elementu baliotsuenak nabarmenduz bide batez, baina esparru horretako igurikimenak ere handiak dira. Funtsean XX. mendean itxuratutako hiri-espazioetan, herrietako hiriguneetan adibidez, apaindura-jarduerak gauzatzeko aukera asko daude, horietan dagoeneko jarduerak egiten badira ere. Aldiz, auzoetan eta erdialdeko hiri-eremu jakin batzuetan (eskualde osoko udalerrietan ikusten diren egoeretan), hobetzeko behar nabarmenak hautematen dira, egoitza-erabileraren ikuspegitik, eta, gainera, haien erakargarritasuna areagotze aldera.

Jarduera ekonomikoetarako eremuek ere irudi jakin bat sorrarazten dute, haien erabileretarako kalitateaz eta eraginkortasunaz gainera, lurralde osoari eragiten diona. Jarduera turistikorako duen garrantziagatik eta baliabide horien hurbilekoa delako, portu-esparrua hobetzeko beharra ere azpimarratu behar da, eta, zehazki, kanporantz ematen duen irudia eta barnealdeko gune irisgarriena.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | **L.E. 5** | L.E. 6

Erdigune historikoak hobetzeko jarduerak

Fatxadak garbitzea eta leheneratzea, argiztapena, egoteko guneak, erabilera publikoko ekipamenduak, zoladurak, saltokien errotulazio egokia, seinaleztapena, lorategi-guneak, zerbitzu publikoak etab. Donibaneko eta San Pedroko erdialdeak seinaleztatzea Pasaian, Lezon, Errenterian eta Oiartzunen (Elizalde, Iturrioz, Altzibar). Hiri-antolamenduko tresnetan jarduerak aurreikusten badira ere, proposatzen dugun ikuspegia oinarri nagusia den hiriaren birgaitze funtzionalaz harago doa.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | **L.E. 5** | L.E. 6

Paisaiaren Ekintza Planak sortzea eta aplikatzea XX. mendeko bizitegi-garapenetan

Paisaia-irudirako neurriak finkatzea eta aplikatzea, fatxadak hobetzeko ordenantzak, urbanizazio-baldintzak, beste garapen batzuekiko erlazioa, moteltze-guneak, etab. Eskualdeko udalerririk guztietan era askotako aukerak izanik, jarduerak zehazteko eta diagnostikoak egiteko tresna gisa erabil daitezke paisaiaren ekintza-planak, ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoan, finkatutakoak. Planen bideragarritasunari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak esleitzen ditu urtero planak sortzeko lana finantzatzen laguntzeko, baina ez planak gauzatzeko.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L5.2 ekintza. Itsasoarekin, naturarekin, gastronomiarekin, euskararekin eta ekitaldi-antolaketarekin lotutako baliabideak sustatzea

Badia, naturaguneak eta gastronomia dira eskualdeko baliabide turistiko nagusiak, haren indargune eta era askotako produktu turistikoen oinarri diren heinean. Euskara, bereizgarria eta kulturala den heinean, kontuan hartu beharreko oinarria da baita ere. Gaur egun egiten diren edo sor daitezkeen ekitaldien xedea da bisitariak erakartzea eta tokiko irudia sendotzea, eta, hori horrela, sustatu beharreko tresnak dira, baliabide guztientzat lagungarri direnak. Urtarokotasuna turismoaren ahulezia nagusietako bat da, baita Oarsoaldean ere, eta hura urte osora zabaltzea eta era askotako baliabideak erabiltzea lagungarria izan daiteke horri aurre egiteko.

Itsasoarekin lotutako proiektu gidariei dagokienez, itsas ondarearekin eta naturarekin lotutakoak azpimarratu nahi ditugu (1. eta 6. ildo estrategikoetan ere aipatzen dira, hurrenez hurren). Gauzatu beharreko proiektuen artean aipatu nahi ditugu, baita ere, gastronomiarekin (ikastaroak, esperientziak, ekitaldiak), itsas zerbitzu turistikoekin (itsas bidaietarako portuak, amarradurak, nabigazioa, arrauna, piraguismoa), natura-ibilbideekin eta ondare-ibilbideekin eta abarrekin lotutakoak.

Baliabide turistiko diren heinean, badia inguratzen duen eta Donostiarantz luzatzen den ibilbidea eta Oiartzun ibaiaren ardatza, Donejakue Bidea eta itsasartea, besteak beste, hobetzeko eta balioa emateko aukera ugari dituzten inguruak dira.

Turismoa sustatu behar da, baina babestutako naturaguneak zainduz, masifikazioa ekidinez eta baliabideak baliatuz, haien kalitatea eta berezitasuna azpimarratuz eta haiek zaintzeko beharra nabarmenduz. Naturak (Natura Sarea 2000) eta paisaiek eskaintzen dituzten balioez gainera geoaniztasuna ere ongi posizionatutako baliabidea da.

Euskarak, beste lurralde batzuetara ere hedatzen dela bistakoa bada ere, berezitasunak ditu eskualdean, eta baliabidetzat eta bisitariak erakartzeko faktoretzat jo daiteke. Eskualde berean, zenbait euskalkik bizirauten dute, gipuzkoarrak edo erdialdekoak eta nafarrerak zehazki, eta horrek izaera berezia eta aberastasun linguistikoa eta kulturala ematen diote.

Turismoa ezin liteke geratu euskararen erabilera bultzatzeko eskualdean egin diren esfortzu garrantzitsuetatik at. Euskararen balio erantsia, bisitari euskaldunak erakartzeko orduan, kontuan hartu behar da eta bere presentzia bermatu turismoko ekintza eta euskarri orotan.

Bestalde, agerikoa da eskualdean ekitaldi ugari eta era askotako antolatzen direla, eta jende ugari parte hartzen duela horietan. Herrietako jaiak eta musika-, kirol- eta kultura-ekitaldiak eskualde honen bereizgarri dira. Gehienek tokiko irismena dute, baina azpimarratzekoa da batzuetara eskualdetik kanpoko bisitariak ere etortzen direla (Musikaste, Atlantikaldia, artisautza-azoka, estropadak eta 2018rako aurrez ikusitako Itsas Jaialdia). Ekitaldien eta ekimen berrien komunikazio-ekintzak eta haien egitura bera eskualdean turismoa sustatzeko eta bisitak erakartzeko elementu bihurtu daitezke.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | **L.E. 5** | L.E. 6

Jarduerak ibilbide nagusietan

Bideak eta haien ingurua eta haietatik ikusten diren gertuko lekuak hobetzea da xedea. Zehazki, honako hauek nabarmentzea: badia inguratzen duen ibilbide osoa (oraindik bukatu gabe dagoena), itsasarteko ibilbideak bi itsasertzetan eta itsasargietarako sarrerak, Arditurriko bide berdea eta haren adarrak, Donejakue Bidearen ibilbidea, Talaia bidezidorra, ibilbide laburreko bidezidorrak, eta abar.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | **L.E. 5** | L.E. 6

Itsasoarekin lotutako baliabideak sustatzea

Itsas bidaietarako itsasontzi txikien eta ertainen presentzia finkatzea eta zabaltzea, Pasaiaiko portuak dituen mugak eta portu-zirkulazioarekiko bateragarritasuna kontuan hartuta. 2017an, 10 itsas bidaiak egingo dute eskala portu horretan, eta Portuko Agintaritzaren asmoa da 2017ko zifra horiek finkatzea eta areagotzea, baita bikoiztea ere agian; hori lortzeko, sustapen-azoketan parte hartu du. Ekimen horrez gainera, kontuan hartu behar dira beste ildo estrategiko batzuetan aipatu diren eta ildo honetan eragin zuzena duten beste batzuk ere. Itsas Kultur Faktoria, Mater Museoa, Jaizkibel draga, ItsasGunea –Pasaiaiko Badiako Itsas Baliabideen Zentroa–, Itsas ikerketa zientifikoaren dibulgaziorako espazioa, ohiko nabigazioaren eskola, Jaizkibel-Ulia itsas gunea babestea, Senekozulooa itsasargia, itsasoaren interpretazio-zentroa.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | **L.E. 5** | L.E. 6

Geoaniztasunarekin lotutako baliabideak sustatzea

Beste ildo estrategiko batzuetan aipatu direnak eta honetan ere eragina dutenak: GeoBasque sarearen proposamenak gauzatzea, dauden ekipamendu espezializatuak bultzatzea (Arditurri, Luberri), Euskal Kostaldeko Geoparkea Ulia-Jaizkibel-Aiako Harria ingurura zabaltzearen bideragarritasuna aztertzea.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L5.3 ekintza. Baliabide turistikoaren balioari eta aberastasuna eta enplegua sorrarazteko duten ahalmenari buruzko sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea

Oarsoaldea eskualdeak ondare-elementu baliotsuak ditu, baina herritarrak ez dira ondo ohartzen haien aberastasunaz, beste leku batzuetan ez bezala, beste hainbat lekutan garrantzi handia ematen baitzaie eta oso ondo zaintzen baitira, ondasun publikoak zein pribatuak izanik ere. Victor Hugo egileak Pasai Donibaneri buruz esandakoa oso esanguratsua da, eta gaur egun gauza bera esan daiteke Oarsoaldeari buruz: *lurrez eta itsasoz osatutako gune apal hau, miretsia izango litzatekeena Suitzan egongo balitz, ezaguna izango litzatekeena Italian egongo balitz, eta, aldiz, ezezaguna dena Gipuzkoan dagoelako.*

Zalantzarik gabe, kulturarekin eta ondarearekin lotutako faktoreak nahikoa dira eskualdeari balioa emateko, baina turismoak eta haren gisako jarduerak irabazi ekonomikoa eragin ditzakete haiek modu egokian erakutsiz eta ezagutaraziz.

Bi gai horietan lan egin behar dugu herritarrak eskualdeak dituen balioez eta turismoak eragin ditzakeen ekarpen ekonomikoak ohartarazteko. Jarduera turistikoak behar bezala garatzeko, eta bertako herritarrek hari buruzko iritzirik positiboak izan ditzaten, haren elementu positiboak ezagutarazi behar dira, eta bertan bizi diren herritarrengan izan ditzaketen ondorioak azpimarratu. Bistakoa denez, aldi berean, pertsona bisitariak eta ostalaritzakoak ere sentsibilizatu behar dira, eragozpenik ez eragiteko; eta, gainera, garatzen den eredu turistikoak orekatua eta gizartearen parte-hartzeari bide emateko modukoa izan behar du.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | **L.E. 5** | L.E. 6

Eskualdeko herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-plan bat sortzea

Proposamen hori 2011ko Orsoaldeko Turismo Planaren Birzehaztapenean jaso zen, turismoa aberastasuna eta enplegua sortzeko bide ematen duen jarduera dela aitortze eta hari balioa emate aldera, baina ez zen gauzatu. Jardueren artean aipatzen zen, baita ere, turismoak eskualdean izan zitzakeen eraginei buruzko azterlan bat egiteko aukera teknikoak eta ekonomikoak aztertze asmoa, eragile publikoen artean eskualdearen ikuspegitik kontzientzia turistiko bat sustatzeko xedez.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L5.4 ekintza. Ostalaritza-sektorea egituratzea eta profesionalizatzea sustatzea eta ostatu hartzeko aukeren dibertsifikazioa bultzatzea

Aspaldian eskualdeko turismo-jardueran ikus izan diren hutsuneak betetzea da xedea, hala nola 2011ko Orsoaldeko Turismo Planaren Birzehaztapenean jaso zirenak, eta oraindik indarrean daudenak:

- Lehiatzeko zailtasunak, turismora bideratutako enpresen neurri txikiaren eta langileen prestakuntza eta garapen maila eskasaren ondorioz.
- Sektoreko langileen prestakuntza maila hobetzeko beharra, besteak beste, marketinaren eta merkaturatzearen alorretan, IKTen erabileran eta eskualdeko baliabideei buruzko ezagutza-mailan.
- Ostatu emateko eskaintza urria, zailtasunak daude arlo horretan, Donostiatik oso gertu egoteak ekar ditzakeen abantailak izanik ere.

Eskualdeko Turismo Mahaia abiarazi zenetik, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako tresna bat daukagu, eta aipatutako ahuleziei aurre egiten ari da hori. Plan honen lantaldean, diagnostiko bera errepikatuz, azpimarratu da baita ere oso garrantzitsua dela zenbait hizkuntza menderatzea, eta eskualdean falta diren ostatu-hartzeko zenbait modalitaterean estaldura osatzea; adibidez, hemen ez dago *hostel* moduko ostaturik (aterpetxe moduko ostatu komunitarioa, prezio merkekoa).



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L5.5 ekintza. Bide-seinaleak eta baliabide turistikoak mantentzea eta hobetzea

Aspalditik dagoen hutsune bat da, baina udalerrriak eta sektore-ekimenak hobekuntzak egiten ari dira pixkanaka. Aipatzekoak dira, adibidez, San Pedron, kaian, jarritako Itsas Faktoria eta Mater baliabideei buruzko seinaleak, Aiako Harria parke naturaleko gida-seinaleak eta zenbait tokitan jarritako informazio-etaulak (ibilbideei, inguruei eta abarri buruzkoak). Hortaz, mota desberdinetako ekimenak eta ereduak daude; batzuetan noranzkoei buruzko informazioa soilik ematen da, hala nola administrazioak errepideetan jarritakoetan. Materialen egoeran ere ikusten dira hobetzeko beharrak, batzuk hondatuta baitaude. Dena den, errepideei buruzko araudiak esparru horretan jardutea zailtzen du, oso zorrotza baita seinalizazioari buruz.

Edonola ere, gehiegi ugaritu gabe, komenigarria da hobekuntzak egitea eta bide-seinale berriak jartzea, oinezkoei zuzendutakoak eta norabide turistikoari buruzkoak, eskualdean nolabaiteko homogeneotasuna eta nortasuna lortzen saiatuz. Horretarako, seinaleak zer leku zehaztuta jarri behar diren eta zer motatako eta nolako euskarriak erabili behar diren zehaztu beharko litzateke.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | **L.E. 5** | L.E. 6

Eskualdeko seinaleztapen-plan oso bat lantzea

Xedea da sarrerak, ibilbideak eta eraikin eta elementu bereziak seinaleztatzea, ekimen partzelatuez harago. Proposamen hori jaso zen 2003-2010 Orsoaldeko Turismo Planean, baina ez zen gauzatu azkenean. Geroago, berriz jaso zen 2011ko Orsoaldeko Turismo Planaren Birzehaztapenean, eta plan honen lan-mahaian ere berriz proposatu da.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L5.6 ekintza. Saltoki txikiak bultzatzeko ekintzak sustatzea, lurraldeko kalitatezko elementu eta pizgarri eta turismoa erakartzen duen faktore diren heinean

Eskualdean eta inguruan merkataritza-azalera handi ugari daude, eta horrek izugarri zailtzen die lehia saltoki txikiei. Oraindik ere horrelakoak irekitzen ari dira, eta eskualdearen mugetatik gertu gehiago irekiko direla aurreikusten da (40.000 m²ko *outlet* motako zentro bat Zaldunborda-Hondarribian; 3.000 m²-ko hirugarren sektoreko merkataritza-partzela berri bat Araso-Irunen; Garbera-Altzako azalera 62.000 m²-ra handiagotzea eta 65 saltoki berri neurri handiko lokaletan), eta horrek guztiak are gehiago zailtzen du saltoki txikien biziraupena.

Erakundeen jarduerak bertako saltokiei eman behar die lehentasuna, azalera handiak sortzeko edo zabaltzeko ekimen berriei eman beharren. Plan eta ekintza bereziak finkatu behar dira, honako neurri hauek jaso behar dituztenak: bertako merkataritza suspertzea, hirigintzaren, komunikazioaren, berrikuntzaren, digitalizazioaren, bertako hobien bilaketaren, bereizketaren, prestakuntzaren eta abarren laguntzaz, eta ekintzailetzarekin, sormenarekin, turismoarekin eta abarrekin sinergiak lortzea.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | **L.E. 5** | L.E. 6

Errenteriako eta Oiartzungo Merkataritza Suspertzeko Plan Berezieta (PERCO) jasotako jarduerak gauzatzea

Bi udalerriak, bakoitza bere aldetik, plan horiek lantzen aritu dira 2016an eta 2017an, bakoitza bere udalaren eskariari jarraikiz, eta jarduera sorta bat aurkeztuko dute tokiko esparruan gauzatzeko. Errenterian, merkataritzaz gainera ostalaritza ere sartuko da planean, eta haren xedea izango da orokorrean merkataritzari eragiten dion lehia sendoko egoerari (beste udalerrri batzuekiko lehia, merkataritza elektronikoa) erantzuna ematea, eta erreferentziatzeko eta kalitatezko eskaintza baten faltak eragiten duen ahuleziari, 2008ko PERCO n jada hauteman zenari, aurre egitea. Tokiko Plan Estrategikoaren batzordeetan gai hori landu zuten kide guztiak bat zetozen merkataritza erakargarri egiteko estrategia baten behararekin. Oiartzungo planak saltoki txikiak hartzen ditu ardatz. Bi horietan, oso garrantzitsua da eragindako sektoreek planen lanketan parte hartzea.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | **L.E. 5** | L.E. 6

Pasaiaiko eta Lezoko PERCOak egitea/eguneratzea sustatzea

Pasaiaiko Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia 2008an egin zen, eta, beranduago, 2015ean, “Pasai San Pedroko eta Pasai Donibaneke alde zaharren suspertze sozioekonomikorako jardueren proposamena” proiektua gauzatu zen. Azken horren xedea dira bi esparru horietako merkataritza, ostalaritza eta enpresa txikiak, eta aurretik egindako diagnostiko-azterlan bati jarraipena ematen dio. Dena den, azterlan horren edukia ez du udalerrriaren lurralde-esparru osoa hartzen, eta, gainera, proposamenak oso orokorrak dira, zehaztu egin beharko lirakeke. Hortaz, Pasaian ez dago jarduera-plan eguneraturik, ez eta hartu beharreko neurri zehatzak jasotzen dituenik ere. Lezon, aldiz, oraindik ez da horrelako planik egin.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | **L.E. 5** | L.E. 6

Mamut galeriako saltoki txikien eta zerbitzuen espazioa berregituratzea, eta haren eskaintza ekintzailetzarekin, sormenarekin, ekonomia zirkularrarekin eta merkataritza digitalarekin lotutako ekimenei zabaltzea

Esparru horretako hirigintza-arazoak laster konponduko direla eta saltoki txikiek erronka berriei aurre egin beharko dietela kontuan hartuta, iruditzen zaigu 115 lokalez osatutako espazio horren erabilera zabaltzeko une egokia dela, lokal asko hutsik baitaude. Hainbat faktore potentzial positibo ditu, hala nola bisitari ugari joaten direla hara, eskualdearen erdialdean dagoela, sarbide egokiak dituela oinez, bizikletaz edo autoz joateko, aparkatzea erraza dela, lokalak merkeak direla eta era askotako jarduerak daudela. Han kokatuta dauden enpresek gauzatzen dituzten jarduerak osatuz, iruditzen zaigu espazio hori (batez ere bigarren solairua, gaur egun ez baita asko erabiltzen) egokia dela ekintzailetzarekin, sormenarekin, merkataritza digitalarekin, merkataritza espezializatuarekin, hala nola ekonomia zirkularrarekin edo bigarren eskukoarekin, eta abarrekin lotutako ekimenak hartzeko. Proposamen horren erronka da bertako jarduera-segmentuak identifikatzea eta eskualdeko tokiko merkataritzaren sektorearen egituraren sartzeari, ekimen ekintzaileak sustatzeko abantailak baliatuz.



6. Ildo Estrategikoa

Baliabide naturalak erabiltzeko modu berriak sustatzea: tokiko nekazaritza-ekoizpena eta geoaniztasuna

Justifikazioa

Erraz uler daiteke eskualdean lehen sektorearen ekarpena murriztu izana, eskualdea gero eta urbanizatuago dagoelako, lurzoruen gaineko presioa areagotu egin delako eta, oro har, nekazaritza-jarduerak atzerakada bizitzen ari direlako, produktibitateari eta prezio txikiei lehentasuna ematen dien merkatu honetan. Alabaina, inguruan populazio handiak bizitzeak eta kalitatezko eta hurbileko produktuei eta iraunkortasunari gero eta garrantzi handiagoa emateak aukera berriak dakartza sektore horrentzat, kate osorako ekarri ere (ekoizpena, eraldaketa, merkaturatzea).

Eskualdean espazio natural aitortuak ditugu, bai eta baliabide geologiko nabarmenak eta ekipamendu espezifikoak ere. Dena den, oso gutxi ezagutzen eta balioesten dira, eta ez da ondo ulertzen baliabideak direla, eta beste toki batzuetan ematen duten ekarpenetik urrun daude. Espazio naturalei buruzko ikuspegi berri bat ematen eta osatzen duen elementua da, horiek ezagunagoak baitira haien paisaiei, faunari eta landarediari esker.

L6.1 ekintza.	Nekazaritzarako lurzoruen eskaintza sustatzea
L6.2 ekintza.	Bertako produktuak merkaturatzeko eta eraldatzeko tresnak sustatzea
L6.3 ekintza.	Naturgune babestuen geoaniztasuna sustatzea, baliabide gisa

4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L6.1 ekintza. Nekazaritzarako lurzoruen eskaintza sustatzea

Oarsoaldean eskualdean, proiektu aitzindariak gauzatzen dira, gaur egun aktibo daudenak, nekazaritza-jarduera profesional berriei lurzorua eskaintze aldera: Oartzungo Agroaldea, gaur egun lau partzela aktibo dituena, gehi lorezaintzako beste bat; Errenteriako San Marcos zabortegiko lurzoru leheneratuak (lau partzela, bi ustiategi jasotzen dituztenak, eta sortzen den energia erabiltzen dutenak). Berriki, Urrulloko Parke Agroekologikoa abiarazi da (2013) Lezon (zortzi partzela, beste lau gehituz), Makutso Oartzunen 2015ean (bi partzela), eta azkenak Apaitziartzan, Lezon (nekazaritzako lau partzela eta abeltzaintzako bat). Esperientzia horri esker, ustiategi bideragarri bat sortu da, 1 ha-ko azalera duena, zati batean negutegiak dituena, eta 2-3 pertsoneri lana ematen diena. Horiek guztiak beteta daude. Lurzorua eskaintzeko eta gerora alokairuan uzteko ekimen publikoak dira, Behemendiren laguntzaz eta udalen eta Foru Aldundiaren parte-hartzeari esker gauzatutakoak.

Pertsona interesdunen profila da pertsona gaztea (30-40 urte), nekazaritzan prestakuntza jasotakoa, eta baliabide ekonomiko mugatuak dituena. Laguntza espezifikoak emanda, eskualdean horrelako ekimen gehiago gauzatzea eragozten duen oztopo nagusia lurzoru falta izaten da, lurraldea artifizialtzen ari delako, eta horrelako lurzoru publiko oso gutxi dagoelako. Dena den, pertsona ekintzaileen eskaria handia ez bada ere, eskaera konstantea da, eta, horri esker, hazkundera iraunkorra da (gutxienez partzela bat urteko). Alde batetik, ustiategi berriak sortzeko aukera ematen du, baina lehendik dauden ustiategien baliabideak handiagotzeko ere erabiltzen dira lurzoruak.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | **L.E. 6**

Oarsoaldean nekazaritza-produktuak ekoiztea eta merkaturatzea dinamizatzeko zerbitzu bat sortzea

Nahikoa izango litzateke jardunaldi erdiz lan egingo lukeen pertsona bat izendatzea, ekoizpen-sektoreekin, merkaturatzaileekin, kontsumitzaileekin eta administrazioekin harremanetan egoteko, eta kokapen posibleak bilatzeko eta bideratzeko, eta aipatutako sektore guztietako pertsona ekintzaileak aurkitu eta haiei laguntzeko. Gaur egun, horien antzeko lanak egiten dira Behemendin, eta oso egokia iruditzen zaigu eginkizun hori finkatzea Oarsoaldea Agentzian, hark beste esparru osagarri batzuetan gauzatzen dituen jarduerak kontuan hartuta.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | **L.E. 6**

Jarduerak gauzatzeko lurzoru berriak itxitako San Marcos zabortegian

Plataformaren iparraldean, zabortegian azkena erabili ziren guneeetan, erabiltzen ez den azalera handi bat dago (10 ha ingurukoa), eta bazka (artoa, zereala, etab.) hazteko erabili ahal izango litzateke. Jabetza publikoko lurzorua da, eta erabileraren abeltzaintzarekin eta aisialdiarekin ere bateragarria izango litzateke. Oinez hara iristeko bideak hobetuz gero, eta Lau-Haizeta esparruan kokatuta, haren potentziala asko handituko litzateke.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L6.2 ekintza. Bertako produktuak merkaturatzeko eta eraldatzeko tresnak sustatzea

Sektorea osatzen duten aspaldiko ustiatgien eta ustiategi sortu berrien neurriaren ondorioz, oso zaila izaten da merkaturatzea eta behar adina irabazi lortzea. Beste alde batetik, kontsumitzaileek kalitatezko produktuak eta ekoizpena identifikatzeko aldera, mesedegarria izaten da hurbileko bideak eta artisautza-moduak erabiltzea. Bertako saltoki txikiez gainera –horiek aspalditik lan egin izan dute inguruko ustiatgiekin–, azokak, banakako salmenta zuzena eta erosteko taldeak eta kontsumo-elkarteak, besteak beste, nahitaez sustatu behar dira ekoizpen-sektoreari laguntzeko. Bertako azokak (iraunkorrak, aldizkakoak edo aldi behin egiten direnak) indartu beharreko salmenta-modu tradizionalak dira, kalitatearekin eta gertuko produktuekin lotzen baitira.

Ekoizpenak kontzentratu egin dira denboran eta gero eta balio handiagoa ematen zaie produktu landuei (jatorria nekazaritzan eta abeltzaintzan dutenak); hori horrela, komenigarria da produktu horiek eraldatzea eta ontziratzea, eta ekoizpen-sektorean bertan edo artisautza-jardueretan sartzea. Oarsoaldean behin baino gehiagotan proposatu izan da instalazio publiko bat sortzeko aukera, sektore erabiltzaileek modu partekatuan erabili ahal izango luketena, baina proposamenak ez du aurrera egin, hura kudeatzeak ekarriko lituzkeen zailtasunak direla-eta. Kudeaketa publikotik at, beste formula batzuk ere (pribatua, publiko pribatua) sustatu ahal izango liriateke.

Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | **L.E. 6**

Bertako produktuekin lotutako kontsumo-taldeak, -elkarteak eta -kooperatibak sortzea sustatzea

Eskualdean nahiko uztartuta dago, eta areagotzen ari da gainera, ustiategi jakin batek zerbitzatutako erosketa-taldeen bidez jarduteko ohitura. Berriki (2017), Labore Oarso abiarazi da (kanpoko produktu eraldatuak ere merkaturatzen ditu), eta jauzi garrantzitsua izan da hori, 450 familia egin baitira bazkide.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | **L.E. 6**

Saltoki txikietan bertako produktuak saltzea sustatzea

Tradizionalki, tokiko saltoki txikietan saldu izan dira inguruko baserrietako produktuak; zirkuitu laburrean, beraz. Hori mesedegarria da ekoizlearentzat, saltzailearentzat eta kontsumitzailearentzat. Jarduera horri eusteko eta laguntzeko, zenbait jarduera egin ditzakegu, hala nola erakustoki identifikatzaile erakargarriak jarri eta bertako edo eskualdeko markak sortu. Ekimen pilotu bat gauzatu ahal izango litzateke, interesa duten ekoizleei eta saltzaileei parte hartzeko aukera emanez, inguruko ustiategiei erositako produktuak saltzen dituzten saltoki txikiekin eta azoketako postuekin. Oarsoaldea identifikazioa erabili ahal izango litzateke, edo udalerrri jakin batzuen, bereziki horretarako sortutako errotulu bat jarri produktuetan eta erakustokietan. Gaur egun, batzuetan, ekoizleek beraiek ematen dizkiete beren izena jasotzen duten errotuluak beren produktuak saltzen dituzten saltokiei.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | **L.E. 6**

Eraldaketa-zentro bat sortzea

Baratzeko produktuak, sagarrak, eta kanpoko frutak eta barazkiak landu ahal izango lirateke, kontserbak, marmeladak, zukuak eta sagardoa egiteko. Ekimen hori, Arraztalo Elkartearena eta Aldura Elkartearena –titular izateaz gainera kudeatzaile ere izango lirateke–, Oarsoaldean gaixotasun mentala duten pertsonen laguntzeko lan egiten duten erakunde horiek egindako proposamen zabalago batean sartzen da. Produktuak bertako saltokietan, kontsumo-taldeetan eta kontsumo-elkarteetan salduko lirateke, edo erosleei zuzenean. Ustategiek eta lanketa gauzatzen dutenek instalazioa erabiltzeko aukera izango lukete; hortaz, jarduera interesgarria izango litzateke sektore horientzat. Badaude antzeko beste ekimen pribatu batzuk ere, agroaldea batean antzeko instalazioak jartzeko asmoa duena adibidez, edo ekimen publiko bat ere gauzatu ahal izango litzateke norabide horretan.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | **L.E. 6**

Tokiko azokak laguntzea

Bertako produktuak saltzen dituzten azokak sustatzea; adibidez, handizkako azokak, aldizka udalerrietan antolatzen diren azoka espezializatuak eta nekazaritza-azoketan jartzen diren postuak. Azoketan saltzeko espazio egokiak gaitzea eta erdiguneetan azokak antolatzea, eta horiek sustatzea eta ezagutaraztea.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L6.3 ekintza. Naturgune babestuen geoniztasuna sustatzea, baliabide gisa

Aberastasun geologikoa ezagutarazteko diziplina horretan ere, Oarsoaldea aitzindari izan zen, Luberrri Ikasgune Geologikoa ireki baitzuen 2003an Oiartzunen. 2008az geroztik, Arditurri Parketxea interpretazio-zentroak, Aiako Harria parke naturaleko ekipamendu izateaz gainera, meategi zaharretako galeriak bisitatzeko aukera ematen du. Oiartzungo Udalak parte-hartze handia du bi apustu horietan, Luberrri titulartasun pribatukoa izanik. Jarduera pedagogikoez, argitalpenek, ibilbideek, bisita gidatuek eta bestelakoek ibilbide luzea egin dute jada, 2008az geroztik urteko 15.000-20.000 bisitari izaten baitira bi ekipamenduen artean.

Bi baliabideak Aiako Harria geogunerekin lotuta daude funtsean. Eusko Jaurlaritzaren txostenen arabera, mendigune granitiko hori EAeko berezitasun geologiko nagusietako bat da, eta intentsitate altuko geoturismoa erakartzeko gune gidari izateko osagai guztiak ditu. Gainera, Jaizkibel geogunea ere badago eskualdean, estatu mailan erreferente geologiko dena, eta mundu mailan erakargarriak diren egitura sedimentarioak dituena. Baliabide geologiko horiek paisaia- eta estetika-balio handia dute (Victor Hugok bere idazkietan esan bezala), balio zientifiko handia izateaz gainera.

Dena den, Geoaniztasunaren balioak aintzatestearen, babestearen eta haiei balioa ematearen aldeko apustua nahiko berria da, eta, Oarsoaldeak, hasieratik apustu egin badu ere, ez du lortu Unescok Geoparke edo Parke Geologiko izendatutako inguruek lortu duten garrantzi bera. Geoparke horrek munduko 100 gune baino gehiago biltzen ditu, eta horietako 10 Espainiako Estatuan bertan daude; azpimarratzekoa da, adibidez, Gipuzkoan dagoen Euskal Kostaldeko Geoparkea (Mutriku, Deba eta Zumaia). Baliabideak zaintzea nahitaezko helburua da, Biotopo Babestu ere baden Geoparke horretan sortutako jardueraren lekuko gisa. 2016an, 1.100 bisita gidatutik gora egin ziren, eta 22.000 pertsonak hartu zuten parte bisita horietan (% 44ko hazkundea 2015ekin alderatuta), eta beste 75.000 pertsonak ere bisitatu zuten beren kasa. Bisitez gainera, zalantzarik gabe gune horrek eragin oso positiboa du inguruaren irudian eta entzutean.



Ekintza honekin loturiko aipatutako proiektuak

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | **L.E. 6**

Geo-Basque sarearen proposamenak abiaraztea eskatzea: geoturismo iraunkorra EAeko naturgune babestuen sarean.

Eusko Jaurlaritzak landutako dokumentuak, oraingo udalerrien interesa pizteko xedea duenak, interes geologikoko 4 gune finkatu zituen Jaizkibelen (Hondarribia barne), eta beste horrenbeste Aiako Harrian. 6 eta 5 geoibilbide proposatzen ditu, hurrenez hurren, eta, gainera, 3 begiratoki Jaizkibelen (Platako itsasargia, Arando eta Pasaia) eta bi Aiako Harrian (Arditurri eta Leungo Harkaitzak Oiartzunen), eta gida-mapak ere bai. Jaizkibeli buruz esan dute seinale oso gutxi jarriko liritekeela, eta sarbidea Talaiaiko bidezidorretik izango litzatekeela. Ingurua zaintze aldera, azpimarratzen da geozainketako neurri egokiak hartu gabe ez dela sartzetik izango altxor geologiko garrantzitsu diren guneetara, hala nola Labetzura edo paramoudren gunera (Hondarribia). Itsasotik ikusgai daudenez, itsasontzietatik eta itsas ibilbideetatik behatu ahal izango dira.



4. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | **L.E. 6**

Dauden ekipamendu espezializatueta (Arditurri, Luberrri) jarduerak sustatzea

Geo-Basque sarrerako aipatutako ekipamenduen baitan, bi instalazio horiek oinarritzko baliabide erabilgarriak dira, jakintza eta ezagutza handia eskaintzen dutenak. Funtzionamendu koordinatuak, aipatutako proposamenekin lotuta (geoibilbideak, begiratokiak), lehendik dauden baliabide horiek aprobetxatzeko aukera emango digu.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | **L.E. 6**

Senekozuloa itsasargia, itsasoko interpretazio-zentroa

Pasaiako itsasarteko labarretan kokatuta dagoen 1905eko eraikin berezi hori itsasoari eta labarrei erreparatzeko behatoki aparta da. Itsasoko bioaniztasunaz gainera, Jaizkibel formazioaren balio geologikoak ere kontuan hartu behar dira, urpeko gunea eta Oiartzun ibaiaren bokalea, interes geologikoa duten gertuko bi toki. Pasai San Pedroko Senekozuloa itsasargia, automatizatuta dagoena eta erabiltzen ez den espazioa duena, Portu Agintaritzaren jabetzakoa da. Pasaiako Udalarri eskaini zaio, baina oraindik ez da erabilerarik finkatu. 2009an, Itsasgela elkarteak (Mater Museoa) proposamen bat egin zuen itsasargi horretarako, artean indarrean dagoena; egoera horrek areagotu egin du erabilera horren bideragarritasuna, bai eta Talaia bidezidorraren eta Donejakue Bidearen kokapenagatik ere, sarbidea Uliatik Donostiara dela.



L.E. 1 | L.E. 2 | L.E. 3 | L.E. 4 | L.E. 5 | **L.E. 6**

Euskal Kostaldeko Geoparkea Ulia-Jaizkibel-Aiako Harria ingurura zabaltzeko aukerak aztertzea

Erungo parkeari balio geologiko osagarriak eta oso garrantzitsuak gehitzea mesedegarria izan daiteke multzo osoarentzat. Jaizkibel-Ulia korridoreak ere garatzen du Flyscha, xehetasun bereziekin eta Aiako Harria mendigune granitikoarekin; gainera, bisitariei arreta emateko eta interpretaziorako ekipamenduak ere baditu, eta horiek funtsezkoak dira Geoparkeen munduko sarean (World Geoparks) sartu ahal izateko. Zabaltzea gauzatzeko, sarearekin alderatuta nahiko txikia den espazio bat izanik, ezinbestekoa izango da erungo Geoparkearen eta Hondarribia eta Irun udalerrien lankidetzeta, espazioak partekatzen baitira horiekin, eta eskakizunak betetzen direla egiaztatu behar da horretarako prestatutako galdetegien bidez, udalerririk gako izango direlarik (atxikitzea borondatezkoa da). Lehendik dauden jakintza eta azterlan zientifikoak ere lagungarri izango dira.

